BALIABIDEAK

# Gizarte komunikazioaren arloko prozesuak aurkitu eta eratu.

## GGKEetan komunikazio politikak, estrategiak eta egiturak diseinatzeko zenbait ideia.

Javier Erro Sala

hegoa

Komunikazio eta Garapena
Comun cac ón y Desarrol o

Hegoak “Komunikazioa eta Garapena-Comunicación y Desarrollo” programa bultzatu du 2002an. Zenbait argitalpen eta mintegiren bitartez, hurbildu egin nahi izan ditu GGKEak, gizarte mugimenduak eta komunikazioaren profesionalak gizarte komunikazioaren arloko esku-hartze estrategien gaineko gogoeta, eztabaida eta diseinura.

Argitalpen hau praktikoa izan dadin nahi dugu, eta, bertan, egoerak deskribatu, gai honetara hurbiltzeko zenbait modu aurkeztu, gogoetak bildu eta, azkenik, ibilbide batzuk diseinatu dira nahi duenak bere komunikazio bilaketa eta praktikak bideratu ditzan. Horrela, GGKEak eta gizarte mugimenduak komunikazio sozialeko ereduak aurkitu eta eratzera animatu nahi ditugu, eta, era berean, erakunde hauetan komunikazio politikak, egiturak eta estrategiak diseinatzeko erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak aurkeztu nahi izan ditugu.


Antolatzailea:

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Laguntzaileak:

COMISIÓN EUROPEA
DG Desarrollo A.4

EUSKO JAURLARITZA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Sailburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Bienestar Social
Dirección de Cooperación al Desarrollo

BALIABIDEAK

# Gizarte komunikazioaren arloko prozesuak aurkitu eta eratu

## GGKEetan komunikazio politikak, estrategiak eta egiturak diseinatzeko zenbait ideia

Javier Erro Sala

hegoa

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTOA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
Avda. Lehendakari Agirre, 83 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40
E-mail: hegoa@bs.ehu.es
www.ehu.es/hegoa

Bilbao, 2003ko otsaila
Lege-gordailua:
Itzulpena gaztelera - euskara: Labayru Ikastegia
Inprimatzailea: Lankopi, S.A.
Diseinua eta maketazioa: Marra

# Aurkibidea


**1. Sarrera** **11**

1.1. Lanaren ingurua eta zentzua **13**

1.1.1. Amaitutakoan hasitako proiektu baten zatia **13**

1.1.2. Gogoeta kolektibo baten emaitza **15**

1.1.3. Bokazio eta praktika orientatzailea **16**

1.2. Abiapuntuak **16**

1.2.1. Gizarte komunikazioa **16**

1.2.2. Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GGKE) **17**

1.2.3. Komunikazioaren egoera **17**

1.3. Helburuak eta garapena **18**

1.3.1. Helburuak **18**

1.3.2. Lanaren egitura eta garapena **18**

1.4. Barkamen postdata **19**

**2. GGKEetako komunikazioaren egoera** **21**

2.1. Merkatupeko komunikazioa ala gizarte komunikazioa? **23**

2.1.1. Zenbat eta baliabide gehiago promoziorako komunikazio gehiago eta lehiakortasun handiagoa GGKEen artean? **24**

2.1.2. Nahasmena merkataritza-komunikazioaren formen inguruan: *marketinga* konpondu gabeko arazo gisa. **25**

2.2. Komunikazioa nola ikusi eta landu GGKEetan eta GGKEen ikuspegitik? 27
2.3. GGKE guztiei dagokien arazoa. 28
2.4. Gizarte komunikazioa aurkitzeko bidea 29
2.4.1. Prestatzaileen prestakuntza: ikustarazi edo ikusten ikasi? 29
2.4.2. Zer da gizarte komunikazioaren kontu hori eta zertan behartzen gaitu? 30
2.4.3. Zer da gizarte komunikazioa profesionalizatzearen kontu hori? 31

**3. Zein GGKEk har lezake gaur egun bere gain gizarte komunikazioko proposamen bat? 35**
3.1. GGKEen diskurtso iluna 37
3.2. GGKE motak eta komunikazio arloko sentiberatasunak 39
3.2.1. Kultura instrumentalak eta adierazkorrak 39
3.2.2. Irtenbideak transformazioaren eta/edo integrazioaren arteko tentsioarentzat 42
3.3. Dramaturgia eta estrategiaren bidez komunikatzea 43
3.3.1. Komunikazio ekintza: estrategia eta adierazpena 44
3.3.2. Ez adierazkortasunik gabeko estrategiarik, ezta alderantziz ere 45
3.3.3. Komunikatzean hezi egiten dugu 46

**4. Komunikazioa kulturaren ikuspegitik: nortasunak eratzea 47**
4.1. Gizarte ezezagun bat aurkitzea 50
4.1.1. Lur mugikorretan komunikatzea 50
4.1.2. Komunikatzeko moduaren eta komunikazioa jaso nahi den moduaren arteko desfasea 51
4.2. Zertaz ari gara gaur nortasuna diogunean? 52
4.2.1. Komunikaziorako denbora, espazio eta estilo gizatiarrak bilatzea 52
4.2.2. Ez dago gizartearen transformaziorik benetako inplikazio barik: komunikatzea elkartasuna transmititzeko 53
4.3. Kultura herrikoi eta masiboan alderdi gizatiarrak aztertzea 55
4.3.1. Komunikazio prozesu adierazkor, alai eta atseginak dituzten erakundeak 55

**5. Gizarte komunikazioa proiektu politiko gisa: hiritar kritiko, arduratsu eta autonomoak sortzen** **57**

5.1. Apolitikoak?: mito baten errentagarritasun eta morrontzak **59**

5.1.1. Zeri deitzen diote GGKEek politika? **60**

5.1.2. Politikoak, beti; partidistak, batzuetan **62**

5.2. Politikara hurbiltzeko moduak **62**

5.2.1. Politikaren gainetik, diskurtsoaren arabera **63**

5.2.2. GGKEen eta politika instituzionalaren arteko topaketa **64**

5.2.3. Benetako politizazio arriskua finantziazio iturrietatik dator **64**

5.3. Gizarte arduragabea edo erresistentzia modu berriak?: *erresistentzia globaleko mugimenduen* irakaspenak **65**

5.3.1. Dagoeneko aginduen menpe ez dagoen gizartea, bere mugimenduen ardura izan nahi duelako **65**

5.3.2. Dilema: umeak balira bezalako hiritarrak sortzen laguntzea edo hiritar arduratsu eta autonomoa sortzen laguntzea **66**

5.3.3. Gizarte komunikazioa eta erresistentzia globaleko mugimenduak **67**

**6. Internet publizitate baliabide gisa edo gizarte komunikaziorako kultura gisa** **71**

6.1. Internet promozio bide gisa edo komunikazio eremu gisa **73**

6.2. Internet zuzen erabiltzeko betekizunak: begirada komunikatiboaren eragozpenak **75**

6.3. Erresistentzia globaleko erakundeek nola erabili duten internet **76**

**7. GGKEek komunikabideekin dituzten arazoak** **79**

7.1. Nola ulertzen dute GGKEek gatazka? **82**

7.2. Nolakoa da gatazka dakizkigun datuen arabera? **83**

7.2.1. GGKEak, eredu mediatikoak **84**

7.2.2. Komunikazio produktuak kontrolatzeko zailtasunak **85**

7.2.3. Komunikabideekiko gatazka estrukturala **87**

7.3. Arrisku nagusiak 89
7.3.1. Sare mediatikoetan atrapatuta 89
7.3.2. Sare mediatikoetatik kanpo geratzea 89
7.3.3. Komunikabideek GGKEetan jarduera politikoan eragindako arazo berberak sortzea 90
7.4. Konponbideak bilatzea 90
7.4.1. GGKEen eta komunikabideen arteko benetako harremana ezagutzea 90
7.4.2. Aukera mediatikoetarako egitura berriak sortu eta aprobetxatzea 91
7.4.3. Komunikabideei eta profesionalei buruz pentsatzen hastea komunikabideetatik kanpora 91
7.4.4. Heziketa lan berria eta balio anitzeko estrategia baten aldeko apustua 92

**8. Politika, estrategia eta egiturak diseinatzea: GGKEetan komunikazioa lantzeko proposamena 93**
8.1. Ondorioak 96
8.1.1. Laburpena 97
8.1.2. Ahaztu ezin diren ekarpenak 98
8.2. Lan proposamena 100
8.2.1. Proposamenaren oinarriak 100
8.2.2. Komunikazioaren gainean gogoeta egiteko inguruak sortu 103
8.2.3. Komunikazio moduak eratu 104
8.2.4. Egiten hasteko ideia batzuk 105

**Bibliografia 109**
Aipatutako bibliografia 111
Bibliografia orokorra 114

**Eranskinak** 119


1. ERANSKINA: Garapenerako GGKEen Koordinakundearen GGKE - Enpresak harremanetarako Lantaldearen ondorioen agiria **121**

2. ERANSKINA: Enpresak - GGKEak Harremanei buruzko 2. jardunaldia: Koordinakundeko GGKEen artean sinatzeko Kode Etikoa osatuko duten oinarrizko printzipio utziezinen proposamena garapenerako kooperazioaren arloan enpresekin harremanak ezartzeko **127**

3. ERANSKINA: GGKEen Koordinakundeko GKEen jokabide kodea **131**

4. ERANSKINA: Irudi eta mezuen kodea Hirugarren Munduari dagokionez **141**

Kasu bateko zirkunstantziak eta bestekoak ezin dira berberak izan, antzekoak izan daitezkeen arren, dena aldatzen delako, eta aldatzen da zirkunstantziak beren zirkunstantziak dituztelako (...) Gai guztiek, beraz, beste gai batzuez osatutako konposizioak dira, eta horrexegatik dira beti laburrak galderak eta luzeak erantzunak.

Simón Rodríguez

Ezer bukatuta ez dagoenean dena dago itzarrik.

Jesús Ibáñez

# 1. Sarrera

Lan honen zentzua hobeto ulertzeko, beronen lau ezaugarri nagusiak azalduko ditut hemen:

- proiektu zabalago baten zati bat da; izan ere, ezin da hura barik ulertu;
- tresna bat izateko asmoz sortu da;
- GGKEetan komunikazioaz arduratu behar duten pertsonen orientabidea izan nahi du, horrela, lehenengo eta behin beren erakundeetan gizarte komunikazioaren kontu hori ezar dezaten eta komunikazio politika, estrategia eta egitura eraginkorrak diseinatu ditzaten;
- pertsona bakar batek sinatu arren, taldean egindako gogoeta baten emaitza da.

## 1.1. Lanaren ingurua eta zentzua

### 1.1.1. Amaitutakoan hasitako proiektu baten zatia

Testu hau proiektu zabalago baten emaitza dugu, eta meritu handikoa da, GGKE eta gizarte mugimenduetako komunikazioaren gainean eztabaida sistematizatua bultzatu duelako. Taldeko gogoeta da, hain zuzen ere, berau abiarazteko eta mantentzeko lehenengo tresnak eskura ditugunean abiatu dena. Baina eztabaida batek eraginkorra izan nahi badu, irudimenez betea egon beharko du, eta bere mekanismoak izan beharko ditu funtzionatzeko eta garatzeko. Prozesu honen emaitzak

[1] J.Erro, Hegoa, 2002.
[2] J.Erro eta J.Ventura, Hegoa, 2002.

GGKEek eta gizarte mugimenduek komunikazio praktika konpartituak ezartzen dituztenean ikusiko dira. Baina papereratutako intentzio on hutsa izateari utziko dio, erakundeotan modu jarraian gai honen inguruan gogoeta sistematikoa eta ekintza konkretuak egiten hasten direnean.

Lan hau proiektu handiago baten pieza bat da, eta beronen bitartez Euskal GGKEetako komunikazioa zein egoeratan dagoen aztertu nahi izan dugu, bide batez, erakunde hauek, apur baten behintzat, nola komunikatzen duten eta nola komunikatu beharko luketen azter dezaten, gogoeta egin dezaten. *Herramientas para la comunicación y la cooperación para el desarrollo* argitalpenaren bitartez, Hegoak 2001ean ikerketa bat jarri zuen martxan helburu hauekin:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden GGKEetako komunikazioa zein egoeratan dagoen aztertzea.

b) Nazioarteko laguntzaren eta garapenerako kooperazioaren inguruan inplikatutako eragile guztien artean gogoeta prozesua sortzen laguntzea, batez ere, GGKEen, gizarte mugimenduen eta komunikabideetako profesionalen artean.

c) Gogoeta hori aberasteko eta GGKEen komunikazioa hobetzeko baliabide teoriko-praktikoak sortzea.

Helburu horiek lortzeko, agiri bi egin eta hiru topaketa antolatu dira.

Hona hemen agiriok:

- Lehenengo ekarpena, *Comunicación, desarrollo y ONGD* [1], eztabaidarako baliabide legez pentsatu zen eta, zenbait galderaren bitartez, inplikatutako gizarte eragile nagusien arteko talde-eztabaida sistematizatu nahi izan du (GGKEak, gizarte mugimenduak, kazetari eta komunikazioaren profesionalak, komunikabideak eta unibertsitatea).
- Bigarren lanaren izenburua *El trabajo de comunicación de las ONGD en el País Vasco* [2] da, eta GGKEekin egindako ikerketa enpirikoaren emaitzak biltzen ditu. Komunikazio egoeraren gaineko lehen azterketa da eta GGKEen baliabideak (giza baliabideak, teknikoak, ekonomikoak eta kulturalak) eta jarrerak (nola ikusten duten komunikazioa) identifikatu nahi izan ziren lan horretan. Lan topografikoa balitz legez, egunerokotasunean komunikazio lanak dituen berezitasunen gainean elkarrizketa piztea nahi du, alperreko eztabaidak ebitatuz.

2002an zehar, garapenerako gobernuz kanpoko laguntza eta kooperazioaren arloko zenbait gizarte eragilek, GGKEetako komunikazio arloetako arduradunek (daudenak), beste gizarte mugimendu batzuetako kideek, kazetari “ulerkorrek”, komunikazio alternatiboko esperientzia berrien protagonistek, unibertsitateko irakasle eta ikerlariek, gai honetako adituekin batera, iritziak, kezkak eta ziurtasunak elkar trukatu ditugu hiru ingurutan:

- *Komunikabideak eta Garapena;* bertan, garapenerako kooperazioaren arloak masa komunikabideek aintzat har dezaten dituen zailtasunei buruz eta komunikabide horien eta GGKEen arteko harreman bereziei buruz hitz egin genuen.

- *Nola komunikatzen dira gizarte mugimenduak gizartearekin?*; bertan, gizarte mugimenduek gizartearekin komunikatzeko dituzten eragozpen ugariak aztertzeko batu ginen eta, bide batez, komunikazio hori arrakastatsua izan dadin ezaugarri eta aukera batzuk aztertu genituen.
- Eta, azkenik, *Komunikazioa: elkartasunerako eta ekintza kolektiborako komunikazioa*[3]; bertan, GGKEek eta gizarte mugimenduek elkar ezagutzen eta onartzen jarraitu zuten: herritarren parte-hartzea ulertzeko beste modu batzuetan oinarrituta sortutako esperientzien trukaketa eta Interneten erabilera.

[3] Lehenengoa 2002ko maiatzaren 20an egin zen, bigarrena urriaren 14an eta hirugarrena azaroaren 28an. Denak izan ziren Bilbon.

Eztabaidetan ikusi denez, oraindik asko dago egiteko GGKEak, masa komunikabideak eta komunikazioaren arloko profesionalak elkar ezagutu eta onartzen joan daitezen eta elkarrekin komunikazio arazo komunei irtenbideak bilatzen has daitezen. Lan gogorra dago egiteko, era berean, ahalegin honetan unibertsitatea eta administrazioak inplikatzeko. Baina hasiak dira agertzen topaguneak, kezka konpartituak eta gizabanako eta erakundeek elkar entzun, ulertu eta elkarrekin lan egiteko espazioak.

Hasi berri den prozesu honetan komunikazio handia izan da gure artean. Hainbat elkarrizketa izan ditugu, ozen pentsatu dugu, esperientzia txiki baina adierazgarriak mahaigaineratu ditugu, gizarte praktikak, keinuak, begiradak eta iradokizunak izan dira, sarritan jasota geratu ez direnak (bihotzetan izan ezik), baina hain aberasgarriak izan dira ze, ez dut nahi ahaztu daitezen. Intuizio horiek, hain zuzen ere, ikasketa kolektiboen benetako sustraia adierazten dute, eurotan –batzuetan kontrol zientifikotik kanpo geratu arren– oinarrituko garelako etorkizun ez hain urrun baten GGKEen komunikazioaren arazo gaitzari irtenbidea topatzeko. Horietako batzuek ildo hau berresten dute.

### 1.1.2. Gogoeta kolektibo baten emaitza

Testu hau erraza izatea nahi dut. Ikerketa eta bateratze lan prozesuan azaldutako kezka eta gogoetak bildu nahi ditut. Horrexegatik dauka bizipen kutsua; espiritu kolektibo eta sinkretikoa; estilo sintetiko eta irekia. Hasi berri den prozesu honek, batez ere, ahalik eta ekarpen, ahots, pentsamendu eta intuizio gehien adieraztea du helburu.

Bizipen kutsua dauka jaio eta hazi egiten delako, eta hazi egiten da batez ere identifikatu eta aurkitu diren esperientzia pertsonal eta kolektiboek elikatzen dutelako. Kolektiboa eta sinkretikoa dela diot, egile asko dituelako, nahiz eta bakar batek idatzi eta beronen gain hartu akatsen erantzukizuna: Víctor Sampedro, Ariel Jerez, Mariano Aguirre, José Zepeda, Juan Carlos Miguel, Igor Sádaba, Patxi Gaztelumendi, Gorka Andraka, Nekane Lauzirika, Catherine Verbruggen, Manuela Mesa, Jorge Melguizo, Xabier Bañuelos, María Teresa Burgui, Víctor van Oeyen eta Miguel Romero, nahiz eta konturatu barik izan, hemen azaldutako ideia askoren eragileak dira, proiektuaren mintegietan emandako iritzietan oinarrituta.

Zenbait lagun, esate baterako, Idoia Aldama, Nacho Ribechini, María Guijarro, Jorge Gutiérrez, Fernando Zubizarreta, Ignacio Sodupe, Juanma Balerdi, Edur Mintegi, Julio Flor, Conchi Villanueva, Bernardo García, Yeny Villalba, Roxana Martell, etab. testu hau mamitzen joan dira euren elkarrizketa eta gogoeten bidez. Beste batzuek testuak jarri dituzte,

adibidez, Francisco López, Luis Aranguren, Joaquín García, Daniel Inerarity, eta jakina, Rossana Reguillok eta beste zenbaitzuek. Sintetikoa da, zehaztasunetan erori gabe, seinalatu egin nahi duelako (erabili ahal izateko) eta zabalik utzi nahi dituelako (berreratu eta osatu ahal izateko) gaiaren gainean pentsatu eta jokatzeko dauden aukera amaigabeak. Hemendik eta handik daude aterata datuak, pertsona batzuengandik eta besteengandik, testua gorpuzteko, zuzenbidea hartzeko eta erritmoa markatzeko. Era berean, "produktu" irekitzat hartzen dut, ez bakarrik bere erraztasunean ezer amaitu nahi duelako, baizik eta amaitu barik dagoelako. Bakoitzak ikusiko du nola erabili, nola zehaztu eta nola osatzen duen.

### 1.1.3. Bokazio eta praktika orientatzailea

Testu honen bokazioa praktikoa da, eta, jakina, eskuliburu funtzioa egitea nahiko nuke, GGKEen inguruan sortutako komunikazio prozesuetan lan egitea planteatzen diren guztientzat zuzendua. Baina ez da errezeta-bilduma. Gehiago da saiakera hori baino, komunikazioari buruzko gogoeta eta esperientzien bilduma, baina dogmatismoetatik ihes eginez. Ez dira aginduak, ez dauka zerikusirik horrekin. Argi dago modu asko dagoela nazioarteko laguntzaren eta garapenerako kooperazioaren arloko esku-hartzeen inguruko komunikazioari begiratzeko, eta beste hainbat modu desberdin dagoela hori egunerokotasunean gauzatu eta zehazteko. Eskuliburu honetan egoerak deskribatzen dira, arazora hurbiltzeko modu batzuk seinalatzen ditu, gogoetak biltzen ditu eta, azkenik, mapak marrazten ditu, nahi duenarentzat bere komunikazio bilaketa eta praktiketan orientabide izan dadin.

## 1.2. Abiapuntuak, helburuak eta garapena

GGKEei gizarte komunikazioaren arloan ereduak aurkitu eta eratzen lagundu nahi badiegu, eta erakunde hauetan komunikazio politikak, egiturak eta estrategiak diseinatzen lagundu nahi badugu, eta gainera GGKEen komunikazio egoeratik abiatuta egin nahi badugu hori, derrigor definitu behar dugu zer den gizarte komunikazioa, zeri deritzogun GGKE, eta nola ulertzen dugun komunikazio egoera.

### 1.2.1. Gizarte komunikazioa

Jakina da estilo mota bi bereiz ditzakegula komunikazio prozesuak ulertzeko:

a) Estilo instrumental hegemonikoa (komunikatu zerbaitetarako), merkataritza-kulturari eta gure produkzio sistema eta kontsumo handiari ondo egokitzen zaiona. Komunikazioa informazio transmisioarekin lotzen du eta informazio fluxuetan, baliabide teknikoetan eta mezuak masa komunikabideen bitartez ahal denik eta gehien zabaltzean jartzen du arreta.

b) Komunikatzeko estilo adierazkorra. Komunikazioa bitarteko legez eta helburu legez uler daiteke, hau da, hezketarako komunikazio gisa. Hezkuntzarekin duen lotura banaezinaren ikuspegitik, komunikazioaren bitartez batez ere ikastea eta batera haztea bilatzen da. Komunikazioa hezkuntza prozesuen eraketa legez hartuz gero, arreta handiagoa jartzen dugu produktuaren erabileretan produktuan bertan baino, erabilera horretan sortzen diren baloree-

tan, eta produktu horien erabilera estrategietan. Komunikazioak, kasu horretan, organizazio guztia eta jarduera guztiak hartzen ditu. Komunikazioa bitarteko gisa eta helburu gisa ulertuta, berez da garapenerako ariketa bat, izan ere, bestearen eraginpean jartzea dakar horrek eta sekula ez gara hasieran geunden moduan geratuko[4].

Komunikatzea, orduan, estilo bat da, baina estilotzat ulertu behar da kultur nortasuna eta gizarte posizioa negoziatu eta adierazteko baliabideen multzoa, objektu edo subjektu zehatz bati egokitutako zentzu eta balioak antolatzeko zerbait[5]. Estiloak (bere osagaietako bat, lengoaia) karga sinboliko handia gordetzen du, aldarazlea da, gure barruko jarrera, arau eta konbentzioen berri ematen du. Komunikatzeko estiloak bizitzeko estiloa azaleratzen duela esan daiteke.

Lan hau komunikazioaren bigarren adiera horretan oinarritzen da (instrumentala baino askozaz zabalagoa). Baina apur bat gehiago zehaztu behar dut, gizarte komunikazioaz ari naizelako. Hona hemen adiera horri eman nahi diodan esanahia: Estatua, merkatua eta botere iturri handiak seinalatu eta interpelatzen ari diren gizarte eragileek komunikazio produktuak produzituz, emitituz, zabalduz, hartuz eta erabiliz martxan jartzen diren prozesuak. Elkarrizketa, topaketa, arlo publikoa eta inor baztertu gabe gizarte eztabaida bilatzen duen komunikazio estiloa dugu hau.

### 1.2.2. Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GGKE)

Hemen adierazitakoa batez ere Garapenenaren arloko kooperaziorako Gobernuz Kanpoko Erakundeei dago zuzenduta. GGKEtzat hartzen ditut kooperazioan oinarritutako gutxieneko egitura egonkorra duten (noizean behin jardueraren bat egitea baino zerbait gehiago da hori), irabazi asmorik ez duten (diru-sarrerak garapenerako ekintzetara bideratu behar dira), garapenaren eta nazioarteko elkartasunaren arloan lan egiten duten, baliabideak dituzten (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak), elkartasunaren arlotik datozen, gizartearen laguntza eta gizartean presentzia duten (GGKE legez gizartean aintzat hartzen dute) eta nazioarteko elkartasunaren eta kooperazioaren inguruan oinarritzen diren erakundeak[6].

### 1.2.3. Komunikazioaren egoera

GGKEen komunikazioaren egoeraz hitz egiten dudanean honetaz ari naiz: lan arlo baten egoera erakunde zehatz baten, erabiltzen dituen giza baliabideen, baliabide teknikoen, ekonomikoen eta kulturalen arabera; baina era berean subjektu baten inguruko (pertsona edo erakundea) esangura eta zentzuez ere ari naiz, izan ere, subjektu horren testuinguru soziokulturalarekin dauka zerikusia horrek. Kontua da erakunde horien baliabideak, lanak, komunikazio praktikak, etab. ezagutzea eta, aldi berean, komunikazioa nola interpretatzen duten eta ze balio ematen dioten jakitea.

## 1.3. Helburuak eta garapena

### 1.3.1. Helburuak

Lehen esan dudanez, lan honen bidez, oso xumea izan arren, GGKEetan komunikazioaz arduratu behar duten pertsonei lagundu egin nahi zaie euren erakundeetan gizarte komunikazikoaren kontu hori zer den erakutsi eta azal dezaten, eta nondik hasi jakin dezaten komunikazio politikak, egiturak eta estrategiak diseinatzen hasteko orduan.

[4] Luhmann, 2001.

[5] O' Sullivan , Fiske eta beste batzuk, 1985: 132.

[6] Espainiar Estatuko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen (CONGDE) Jokabide Kodea.

Lan konplexua da eta, geroago ikusiko dugunez, ez da arazo tekniko bat konpontzea bakarrik. Galdera asko erantzun behar dira gizarteari ematen dizkiegun mezuen hobekuntza teknikoari ekin aurretik. Zergatik eta zertarako komunikatzen dugun dira beharbada galderarik garrantzitsuenak, izan ere, nahiz eta begi bistakoak izan, sarritan ez ditugu kontuan hartzen. Baina, nola diseinatuko ditugu komunikazio politika eta estrategia eraginkorrak aldez aurretik galdera horiei erantzunik eman gabe? Arlo honetan gertatutako porrot askoren errua gertatutakoa ondo ez identifikatzea eta jarduteko prisaz ibiltzea izaten dira. Komunikazio arazo konplexuetarako irtenbide sinple, azkar eta magikoak daudela pentsatzea da modurik egokiena arazo horiek ez konpontzeko. Erantzun eraginkorrak emateko pausu eta erritmo egokiak ezarri behar dira.

### 1.3.2. Lanaren egitura eta garapena

Ideia horrekin saiakera hau egituratu dut ondoko sei funtsezko galderen inguruan:

- Zein da GGKEen komunikazio egoera?
- Zein eratako GGKEek berenganatu dezakete gaur egun gizarte komunikazioko proposamen bat?
- Zer dakar GGKEen lanarentzat komunikazioa kultura eta nortasunen eremuetan erabakitzea?
- GGKEetan ze erabaki politiko hartu behar da aldez aurretik gizarte komunikazioko estilo bat aukeratzeko?
- Zer dakar Internetek GGKEentzat komunikabide gisa eta gizartea eta elkarteen mundua ulertzeko modu gisa?
- Zein motatako harremana nahi dute GGKEek komunikabideekin eta nolako harremana ezar dezakete haiekin[7]?

Galdera horiek erantzuten saiatzea komunikazio politikak, egiturak eta estrategiak eratzeko prozesuaren funtsezko zati bat da.

Galdera bakoitzetik kapitulu txiki bat ateratzen da:

- Lehenengoan, gaur egungo argazkia deskribatzen ahaleginduko gara. Irudiari erreparatuz gero, ikusiko dugu GGKEek beharbada gaur egun oraindik ez dutela aurkitu zer den komunikatzearen eta gizarte komunikazioaren kontu hori.
- Bigarrenean, GGKE batek, diskurtsotik haratago, gizarte komunikaziorako estilo bat bereganatu eta lantzeko zer behar den izango dugu aztergai.
- Hirugarrenean, komunikazioaren eta kulturaren arteko lotura ilunetan sartuko gara, horrela gaurko erronka berriei aurre egiteko GGKEek komunikazio begirada eta baliabide zaharkituak edo eraginkorrak erabiltzen dituzten ikusteko.
- Laugarrenean, GGKEek politikari dagokionez duten jarrera deskibatuko dugu eta, era berean, benetako gizarte komunikazioa eratzeko orduan izaten dituzten morrontzak agertuko ditugu.

[7] Komunikabide konbentzionalez ari gara (prentsa, irratia eta telebista); hemendik aurrera *komunikabideak*.

- Bosgarrenean, Internetek ia dena aldatzen duela aztertuko dugu, eta zenbait gizarte mugimenduk nola erabiltzen duten ere ikusiko dugu, GGKEentzat orientagarria izan daiteke eta.
- Eta seigarrenean komunikabideen eta GGKEen arteko harreman tira-biratsuaren oinarrizko ezaugarriak aipatuko ditugu, ea gatazkari irtenbidea eman ahal izateko mekanismoak ezartzen diren.

Sei ardatz horien ingurukoak izango dira ondorioetan eta azken proposamenean gorpuztuko diren inpresioak, esperientziak, intuizioak, apunteak, datuak eta gogoetak (batzuk norberarenak eta beste asko beste batzuenak edo topaketa kolektibotik sortuak). Proposamen ahalegina irekia eta iradokitzailea izatea bilatzen dugu. Horrexegatik nahi dugu batez ere seinalatu, aukerak apuntatu, ñabardurak jaso, ideiak eman eta norabideak erakutsi GGKEen inguruko komunikatzaileei komunikazio politika, estrategia eta egiturak diseinatu eta martxan jartzeko lanean hastean laguntzeko asmoz.

Hastean esan dut, izan ere, gero prozesu bakoitzak bere dinamikara garamatza eta zehaztasun eta aurreikuspenetatik kanpoko errealitateak agertzen dira, eta, hain zuzen ere, errealitate horrek eztandarazten du sormena. Orduantxe sortzen da komunikatzearen esperientzia paregabe eta aberatsa, esperientzia hori liburutxo handigurako baten orrialde hotzetan harrapatzeko, bizigabetzeko, zatitzeko eta azaltzeko egiten den ahalegina baino askoz aberatsagoa.

## 1.4. Barkamen posdata

Testuari ekin aurretik barkamena eskatu nahi dut. Lerro hauen bitartez fenomeno batera hurbildu naiz -GGKEena-, baina hain heterogeneoa eta konplexua izanda, fenomeno asko dira batera. Gainera, komunikazioarekin dituen harremanetatik hurbildu naiz, eta arlo hori zedarritzeko zaila da eta aztertzen hasi berria baino ez da. Inork ez du merezi bere jarduerak orokortasunen eta landu gabeko eskemen bidez islatuta agertzea, eta are gutxiago irabazi asmorik gabeko erakunde hauek, hainbeste esperientzia bildu, hainbeste oztopori aurre egin eta gizarteari hainbeste eman ondoren. Zentzunez jokatuz gero, erakunde bakoitzera berarengana bakarrik hurbildu beharko ginateke, parekorik ez duen erakunde gisa, eta barruan dituen GGKE ugariekin gau eta egun hitz egin. Egiteko dago, beraz, bigarren ahalegin kolektibo hori: modu sistematikoan hitz egiten jarraitzea, barrutik kanporantz komunikatuz.

# 2. GGKEetako komunikazioaren egoera

Atal honetan GGKEek ez dutela oraindik komunikatzearen kontu hori zer den aurkitu defendatzen dut. Ez dakite zer den gizarte komunikazioa komunikazio estilo instrumental eta merkatupekoaren eraginpean dagoelako, eta horrek komunikazio praktika guztiak etekinaren eta ospearen ingurukoak izatea dakar. Nire ustez hortxe dago erronkarik handiena: abiapuntua birplanteatu, galdetu zergatik eta zertarako komunikatu nahi duten GGKEek, eta horrela merkatuaren menpeko komunikazio estilotik gizarte komunikazioaren estiloa sortzera igarotzeko.

## 2.1. Merkatupeko komunikazioa ala gizarte komunikazioa?

Itxura batean GGKEek gero eta argiago ikusten dute komunikabideetan maiztasunez agertzeak daukan garrantzia. Marketingaren garrantziaz ere ohartzen ari dira. Baina, orokorrean, etekinak eta ospea lortzeko promozioez gainera, ez dituzte ikusten komunikatzen dugunean aktibatu edo desaktibatzen diren gizarte prozesuak. Oraindik ez dute aurkitu zer den komunikatzearen kontu hori.

Merkatuaren menpeko komunikazio ereduaren arabera jokatzen dute, eta komunikazioaz ari direnean etekinak lortzean pentsatzen ari dira. Komunikazioaren fenomenoa agortzen duen ikuspegia da hori, izan ere, teknika mediatiko eta merkantilistak erabiltzen dituzte helburu bakar honekin: etekin ekonomikoak, teknikoak, kulturalak eta giza etekinak eskuratzea. Víctor Sampedrok ideia bat ematen du begirada horren atzean dagoen jarrera laburbiltzeko. GGKE askoren ustez, komunikazio politika perfektua da kazetariak bertan izaten direnean deitzen zaienean, erakundeen ahotsa jasotzen dutenean eta herritarren artean hitzez hitz zabaltzen dutenean informazioa. Ala ez da hori GGKEetan komu-

nikazioko arlo eta profesionalei eskatzen zaiena? Bada, berak dioenez, horrelako pentsaera baten atzean komunikazio estilo autoritarioa dago. Eta hauxe da ematen duen arrazoia: *esklusibitatea eta norabide bakarra eskatzen du, ez ditu eztabaidak eta atzeraelikadurak onartzen (audientziaren erantzunak); eta horrezaz gainera komunikazioari irabazia eskatzen bazaio (bazkideak eta baliabideak lortzeko propaganda) edo eraginkorra izatea eskatzen bazaio politikoen mesedeak lortzeko, kritikatzen omen dugun diskurtso mediatikoaren ezaugarrietan erori gara* (2002:4).

Eta susmo hori konfirmatu egiten dela dirudi GGKEen barruan estereotipo bi daudela egiaztatzen dugunean:

- Komunikazio mediatikoarekin itsututa eta kezkatuta komunikabideetan maiztasunez agertzeko, aldez aurretik zergatik eta zertarako pentsatu gabe.
- Komunikazioaren garapen falta giza baliabideen eta baliabide ekonomiko eta teknikoen eskasian oinarritzea, beste askorik sakondu gabe[8].

### 2.1.1. Zenbat eta baliabide gehiago promoziorako komunikazio gehiago eta lehiakortasun handiagoa GGKEen artean?

Komunikazioaren arazoaren errua baliabide eskasiak duela defendatzen duen teoria bertan behera geratzen da ikerketa enpirikoek adierazitakoa aztertzean. Hona hemen datu bat: GGKEetan baliabide gehiago daudenean komunikazioaren arloa garatzeko (prentsa arlo profesionalak, kanpoko komunikazio taldeen aholkularitza, etab.), argi dago sarriago agertzen direla komunikabideetan, baina ez Iparraldea-Hegoaldea harremanaren benetako arrazoiak azaltzeko, edo botere politiko eta ekonomikoen aurrean harreman hori salatzeko, ezpada ze mezu gero eta adostuagoak zabaltzeko eta erakundearen promozioa egiteko izaten dira[9].

Asko izan daitezke egoera horren arrazoiak. Esate baterako, komunikazio baliabide gehien dituzten GGKEak erreibindikazio maila txikiko erakundeekin daude lotuta (elizak, enpresak, alderdi politikoak, unibertsitateak, etab.), zuzenean edo zeharka (Sampedro 2002:2). Dena dela, hori da Espainiako GGKEen eboluzioa: promozio gehiago eta komunikazio kritiko gutxiago[10]. Baliabideak izateak ez du, beraz, ez kalitatezko komunikazioa bermatzen, ez gizartea sentsibilizatzen Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko aldeen sustrai sakonei buruz.

Era berean, GGKEen komunikazio ahaleginak gaitasun teknikoa hobetzera zuzentzeak ere ez du berez ziurtatzen gizarteak hobeto ulertuko duela garapenerako kooperazioaren errealitatea. Baliabide tekniko eta mediatikoak hobetzea nahitaezkoa da, baina ez da nahikoa arazo askoz sakon eta konplexuago hau konpontzeko. Izan ere, gerta daiteke emaitza kaltegarriak izatea horrek.

Merkatuaren menpeko komunikazioan murgilduta, prestakuntza eta espezializazio teknikoa honetarako balio lezake:

- Lehiakortasuna areagotzeko (gaur egun dagoeneko GGKEek borrokatu egiten dute eskura dagoen espazio mediatiko apurrean lekua egiteko: komunikazio pastelaren banaketa).

[8] Baliabideen gabezia ukaezina da, baina ez da gaindiezina; ikusi bestela detaile hau: ahalegin ekonomiko txikia eginez, GGKEek komunikazio zerbitzuak ezar ditzakete amankomunean, eta sarritan beste erakunde batzuenak baino eraginkorragoak. Aukera honi berriro ekingo diogu komunikazio politikak, estrategiak eta egiturak nola diseinatu planteatzen dugunean.

[9] Sampedro, Jerez y López Rey (2002).

[10] Sampedro, Jerez y López Rey (2002: 279).

- GGKE handi gutxi batzuen (*statu quo* pribilegiatua) eta erakunde txiki eta ertain gehienen arteko (sistemak gero eta gehiago mehatxatzen ditu) alde gero eta handiagoa areagotzeko[11].
- GGKE askok herritarrengan eta gizartearen aldaketan baino gehiago audientzietan eta fondo ekonomikoetan pentsatzen duen komunikazio ereduan jarraitzeko.

Laburbilduz, komunikazioa orduan erakundeen arteko topaleku bilakatu beharrean, lehiakortasunerako eta gatazkarako eremu bilakatzen da, dauden komunikazio baliabide apurrak lortzeko.

### 2.1.2. Nahasmena merkataritza-komunikazioaren formen inguruan: *marketinga* konpondu gabeko arazo gisa

Masa komunikabideen gaineko eztabaidari dagokionez, marketingak (abizenduna edo abizenik gabekoa) GGKEen komunikazio jardueren zati handi bat hartzen du. Dirudienez, gai hau argi samar eta konponduta dagoela ere sinesteko joera dago, GGKEen koordinaziorako erakundeen bitartez erabakitako printzipio eta gomendio batzuei esker[12]. Baina datuek ez dute halakorik erakusten. Ikus dezagun:

- Kausadun marketinga sartzeak oraindik konpondu gabe dagoen arazoa ekarri die GGKEei. Itzelezko zalantzak daude erakundeetan marketinga erabiltzearen komenientziaz[13].
- Orokorrean -argi dago oso errespetagarriak diren salbuespenak daudela-, GGKEetan komunikazioa publizitate estrategia gisa edo informazio zerbitzu eta komunikabideekiko harreman legez ulertzen da, eta kasu bietan etekinak lortzearekin lotuta dago. Arazo hori larriagotu egin da *kausadun marketinga* sartu denean. Dagoeneko erakundeek eurek ere ez dute euren publizitaterik egiten, irudi errukiorrak pasatzen dituzte eta kanpainen argudio eta mezuak enpresetako irudi adituen esku uzten dituzte[14].
- Oraindik ez daukagu azterketa enpiriko nahikorik jakiteko Espainiako GGKE handiek zein jarreratan oinarrituta eta zein emaitzarekin (ez bakarrik ekonomikoak, baita elkartasunerako hezkuntza eta garapenaren arloan ere) erabiltzen ari diren kausadun marketinga. Zalantzazkoa da GGKE hauek gaitasun kulturala eta materiala izango ote duten egunean-egunean enpresa gero eta globalizatuago, boteretsuago eta ilunago hauek ikertzeko eta berauen jarraipena egiteko. Batez ere, estatuek eurek edo baita nazioz gaindiko erakundeek ere eskura dituzten mekanismo guztiekin zailtasunak dituztela ikusten dugunean[15].
- Diruari begiratuz gero ere, gaur egun arte behintzat, ez dirudi enpresa mundura hurbiltzeak hainbeste bilatutako independentzia ekonomikoa ekarri duenik, hau da, Estatuaren menpekotasunetik irtetea lortu denik.

[11] Gaur egunera arte egindako ikerketen arabera (Martínez Sánchez, 1998; Rey, 2001; Sampedro, Jerez y Rey, 2002; Erro y Ventura, 2002), GGKEak ez dira oraindik oso ezagunak jende gehienarentzat, eta erakunde handiak baino ez dira ezagutzen, izan ere, horiek dira komunikabideetan gehien agertzen direnak eta kausadun marketinga gehien erabiltzen dutenak. Hamar GGKEk guztira egiten diren kausadun marketing kanpainen %67 egiten dute; besteak %33rekin konformatu behar dira (1999ko datuak, Ballesteros 2001:51). Gainera, Partido Popularreko gobernuak Espainian gaur egun ezarritako kofinantziazio sistema berriak baztertu egiten ditu GGKE txikiak erakunde gutxi batzuen mesedetarako, izan ere, horiek lortzen dute garapenerako kooperaziorako programen finantziazioa. Dena dela, erakunde kopuruari erreparatuz gero, GGKE handiak gutxiengoa dira, eta GGKE txiki eta ertainak dira gehiengoa.

[12] Estatu espainoleko GGKEen Koordinakundea (CONGDE), eta Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEen Koordinakundea: Garapenerako GGKEen Koordinakundearen GGKE - Enpresak harremanetarako Lantaldearen ondorioen agiria (Ikusi 1. eranskina); Enpresak - GGKEak Harremanei buruzko 2. jardunaldia: Koordinakundeko GGKEen artean sinatzeko Kode Etikoa osatuko duten oinarrizko printzipio utziezinen proposamena garapenerako kooperazioaren arloan enpresekin harremanak ezartzeko (Ikusi 2. eranskina).

[13] Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten GGKEen artean ez dago akordiorik gai honen inguruan. GGKE gehienek susmakor begiratzen diote kausadun marketingari. Dena dela, orokorrean, GGKEak bat datoz erabili egin behar dela adieraztean. Era berean, GGKEen iritziz, arazoak sortzen dira enpresek adostutako baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertzea planteatzen denean. Gai honetan ez dago adostasunik eta GGKEek eurek diotenez, eztabaidatzen jarraitu beha0r da. Beraz, egunen batean enpresekin harremanak ezartzeko Kode Etikoa osatuko duten oinarrizko pirintzipio utziezinen proposamenak, Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEen Koordinakundean ezarri zenak, ez du gatazka behin betiko konpondu (Ikusi 1. eranskina).

[14] Miguel Romero, *ComunicAcción: Comunicación para la solidaridad y la acción colectiva.* 2002ko azaroa. Hegoa. Bilbao.

[15] Gutxi dira benetako ikerketa egiten duten GGKEak, esate baterako, Greenpeace edo Intermonek bezala. Eta, hala eta guztiz ere, ikerketarako dituzten giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, teknikoak eta kulturalak hutsaren hurrengoak dira merkataritza multinazional handienekin alderatuz gero. Multinazional hauek, ikusten ari garenez, nahi dutena egin dezakete: jarduerak eta emaitzak itxuraldatu, borondate zientifiko, politiko eta juridikoak erosi, etab.

Espainiako GGKEek kausadun marketinga erabiltzeari buruz dauden ikerketa apurretariko baten arabera, erabilera horrek *ez du baliorik sortzen aktore nagusientzat, hau da, herri txiroentzat, izan ere, gehienetan diru transferentzietan, karitatezko emaitzetan geratzen da dena. Hori nahikoa den eta komenigarria den planteatu behar da, edo, aldiz, herri horientzat kaltegarria den* (Ballesteros, 2001:57). Hona hemen emandako arrazoiak:

- Enpresek merkatuan lehiakorrak izan behar dutelako sortu da eta horrexegatik dauka zentzua.
- Balioa ematen dio kontsumitzaileari, elkartasunez jokatzen duela eta mundua aldatzen laguntzen duela sinistarazten diolako.
- Proiektuetarako dirua eta ospea ematen du.
- Ez du garapenerako hezten, kontsumo kontzientearen kontrakoa delako: helburua ez da herritarrak arrazoiei buruz galdetzea, baizik eta ekintzak baino ez ditu bilatzen.
- Bultzatzen duen garapen eredua hauxe da: laguntzetan oinarritutakoa, ez jasangarria, eta erosketetan oinarritutakoa.
- GGKE batzuen independentzia bertan behera utz lezake.

(Ballesteros, 2001:58-59)

Era berean, komenigarri ikusten da ondoko gaiak aztertzen jarraitzea: kanpainen jarraipena, kontsumitzaileen erreferentzia taldeen eragina eta moden eragina, eta beste eragile batzuen inplikazioa (enpresetako akziodunak eta langileak).

Laburbilduz, gaur egun GGKEak helburu ekonomikoekin bakarrik hurbildu dira marketingaren filosofiara eta merkataritza-komunikazioaren baliabideetara. Enpresak baliabide iturri gisa ikusten dira eta ordean ez zaie benetako gizarte ardurarik eskatzen[16]. Hortik atera dezakegu *nagusitzen ari dela kontzientzia txarrak garbitu eta enpresa handien zerga ebasioa zuritzen duen gizarte-marketinga* (Sampedro, 2002:2), eta aitzakia hauxe da -berriro ere-: denak balio duela, baldin eta Hegoaldeko programetarako eta kooperazio proiektuetarako bada[17].

## 2.2. Komunikazioa nola ikusi eta landu GGKEetan eta GGKEen ikuspegitik?

GGKEen komunikazio egoera labur-labur adierazten saiatuko naiz gaur egun arte egindako ikerketa nagusienetan oinarrituta[18]. Hona hemen ezaugarri nabarmenenak:

[16] Onerako edo txarrerako, kausadun marketingaren gaia, GGKEak hainbeste kezkatzen dituena, beste eremu zabalago eta gatazkatsu baten (hau ere bai) nahasten ari da: gizarte marketing korporatiboa eta enpresen gizarte erantzukizuna. Gai honi buruz Ballesteros Garcíaren lana ikus daiteke (2001).

[17] GGKEek gizarte arloan egindako zenbait ekintza kontraesankorren adibideak eman daitezke. Hona hemen beste bat: diruaren portzentaje bat GGKE bati zuzentzea erakunde finantzario baten visa txartela erabiltzen den bakoitzean. Kontraesana zenbat eta gehiago kontsumitu gehiago "laguntzen" diezu Hegoaldeko herriei, nahiz eta gero GGKEaren diskurtsoan esan gure kontsumo eredu basatia dela herrialde horien garapena eragozten duena.

[18] Hegoaren ikerketarako eta beste batzuetarako balio du. Estatu espainoleko GGKEek gutxi komunikatzen dute eta, gainera, txarto, Martínez Sánchezen arabera (1998). Gainera, gero eta promozio mezu gehiago zabaltzen dituzte (beren buruari buruz eta beren proiektuei buruz). Mezuok ez dute Administrazioaren papera kolokan jartzen, hau da, ez dira gatazkatsuak izaten (konpondu nahi dituzten arazoen arrazoiei buruzkoak) (Sampedro, Jerez y López Rey, 2002).

- Komunikazio gatazka bat dago: erakunde gehienek ez dute ondo eta eraginkortasunez komunikatzen.
- Gorantz doa GGKEen profesionalizazioa komunikazioaren arloan, baina oraindik oso eskasa da eta erakunde gutxi eta handietan baino ez da gertatzen. Bestetik, profesionalizazioa gaitasun tekniko hobeak izatea eta ezagutza mediatiko handia izatea dela ulertzen da.
- Ez dirudi gatazka hau konpon daitekeenik arazo teknikotzat bakarrik hartzen bada, izan ere, izaera kulturala dauka.
- Irtenbideak bilatzeko, lehenengo eta behin, komunikaziotzat zer ulertzen den definitu beharko da eta komunikazioarekin zer nahi den, gero baliabideen urritasunari eta optimizazioari aurre egiteko.

Ze datu daukagu GGKEek ez dutela eraginkortasunez komunikatzen esateko?

Hauxe da dakiguna:

- Gizarteak ez daki zeintzuk diren GGKEen ekintzen helburu diren Hegoaldeko herriek dituzten arazoak, ez eta erakunde horien izaera eta eginkizunak ere.
- GGKEek gizartean duten irudi ona txarrera doa eta erakunde hauen eraginkortasunari buruzko eszeptizismoa ere gorantz doa.
- GGKE gutxi eta pribilegiatu batzuek baliabide gehienak dituzte, masa komunikabideetan agertzen dira eta gizartean ezagunak izaten hasi dira, baina GGKE gehienek (ertainak eta txikiak) ez dute modurik aurkitzen jendaurrean agertzeko. Eta GGKE mota bi horien arteko aldea gero eta handiagoa da.
- Komunikazioaren arazoa estrukturala da, hau da, GGKE guztiei eragiten die. Dena dela, GGKEen gutxiengo pribilegiatuak eta gehiengo isilaraziak desberdin bizi dute arazo hau.
- GGKE gutxi batzuek baino ez dute komunikazio egitura egonkorra (komunikazio arloak, informazio edo prentsa kabineteak): GGKE handiak edo ertainak dira.
- Komunikazioa profesionalizatzen hasi berri-berria da (GGKE handietan eta ertainetan zein txikietan): orokorrean inprobisatu egiten da.
- Orokorrean, GGKEek komunikazioaren interpretazio instrumentala (promozioan oinarritutakoa), mediatikoa (masa komunikabideen ingurukoa) eta finantziazio baliabideetan oinarritutakoa (hezkuntza proiekziorik gabekoa) egiten dute.
- GGKE gehienek gutxi erabiltzen dituzte eta, gainera, txarto, masa komunikabideak. Telebista GGKE pribilegiatuen eskura baino ez dago.
- GGKEek euren barruan eta euren artean ere ez dute eraginkortasunez komunikatzen.

- Hutsune handia nabari da GGKEen eta beste gizarte mugimendu batzuen artean, esate batereako, gaurko globalizazio ereduaren aurkako erresistentzia mugimenduen artean.
- Gutxi dira komunikazio politika eta estrategia definituak.

Arazoa kulturala dela diot arrazoi hauengatik:

- Orokorrean ez da ikusten komunikazio politika baten alde egitea erabaki politiko eta kulturala dela.
- Pentsatzen gelditu beharra dago komunikazioa zer den eta zertarako balio duen garapenerako kooperazioaren eremuan eta GGKEen arloan.
- Nahasmena eta deskoordinazioa nagusi dira komunikazio, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza arloen arteko harreman teoriko eta praktikoei dagokienez.
- Oraindik ez da aurkitu komunikazioaren izaera soziala, hezkuntzazkoa, pedagogikoa eta transbertsala.
- GGKEek aukera inplizitua egin dute (gehienetan inertziaren eta lan dinamika ikaragarriaren ondorioz) komunikazio instrumental eta merkatupekoaren alde.

Eta are larriagoa dena, komunikazio estilo instrumentala aukeratzeak komunikazio arazoa blokeatu eta betikotu egiten du.

Ondorioz:

- Oraindik urrun geratzen zaigun arren, komunikazioa gogoeta prozesu global batean sartu behar dugu, hau da, erakunde gisa gaurko gizartean daukagun paperari buruzko gogoeta horretan sartu behar dugu komunikazioa eta ez norberaren promozio eta iragarpen baliabide gisa bakarrik ikusi.
- Komunikazioaren arazoa konpondu nahi badugu, beste modu baten ikusi behar dugu eta beste harreman mota bat ezerri behar dugu beronekin.
- Komunikazioaren gaira beste jarrera batekin hurbiltzea konplexua da gauzarik zailena egin behar dugulako: ibilitako bidearen zati baten atzera egin, eta norberarentzat ez hartzen ikasi.

## 2.3. GGKE guztiei dagokien arazoa

Nabarmentzekoa da GGKEak, alde kuantitatiboari begiratuta, handi, ertain edo txiki legez edo, alde koalitatiboari erreparatuz gero, gestioko (izaera integratzailea), edo gatazkatsu (bokazio transformatzailea eta anbizio espresiboa), ideologiko, konfesional, independente, gremioetako, azken belaunaldiko, etab. legez sailkatu genitzakeen arren, dendenek dutela komunikazio arazoa, intentsitate desberdinarekin bada ere.

Bestetik, komunikazio ekintza batzuk oso kaltegarriak dira eta autoerregulaziorako kodeen letra eta espiritua urratu egiten dute argi eta garbi, eta hori benetan da kaltegarria GGKE guztiek gizartean duten irudiarentzat.[19] Kaltetu egiten dituzte GGKEak gizarte erakunde gisa, bai eta euren jarduera eremua ere. Azalpena argi dago: jendeak ez ditu argi desberdintzen GGKE legez aurkeztutako erakunde desberdinak; izenak irakurri edo markei erreparatu baino gehiago, jarrerak, keinuak, inkoherentzia globalak jasotzen ditu[20].

Gainera, laguntzaren nekea deritzon horrek erakunde guztiei eragiten die, nahiz eta GGKE *handiek* baliabide gehiago izan aurre egiteko. Ez da baliabideak (baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak batez ere) emateko neke gisa bakarrik ulertu behar, baizik eta baita sinplizitatean, anbiguotasunean eta laguntzan oinarritutako neke gisa ere. Kudeaketa bokazioa oso argi duten GGKEak ere edo gizartearen transformazio estrukturalari uko egin diotenak ere derrigorrez baliatu behar dira diskurtso antisistema horretaz. Ezin diote kontraesan honi ihes egin: itxura baten apurtzailea den lengoaia horri uko egiten badiote, galdu egingo dute euren izateko arrazoia: sistemak ondo funtzionatzen duela badiote, zein da GGKEen papera? Baina aldaketaren erretorikari ekiten badiote, ageriago jartzen dituzte hitzen eta gizarte-praktiken arteko kontraesanak. Oreka zaila da, eta gero eta zailagoa da horri eustea[21].

## 2.4. Gizarte komunikazioa aurkitzeko bidea

Gizarte komunikazio izendatutako horrek nahitaez galdera deseroso bat ekarriko du, hau da, komunikatu nahi dute GGKEek?; baina horren aurretik honako hau aztertu behar da: GGKEetan komunikatzaileak eta komunikazio zerbitzu eta arloak sartzeak zergatik ez du balio izan GGKEek komunikatzea zer den aurkitu dezaten?

### 2.4.1. Prestatzaileen prestakuntza: ikustarazi edo ikusten ikasi?

Sarritan esaten da komunikatzaileek dutela ardurarik handiena GGKEei komunikazio prozesuen garrantzia, zentzua eta balio estrategikoa ikustarazteko. Erakutsi egin behar diete erakunde hauek komunikazioaren arloan zenbat daukaten jokoan. Komunikazioaren arloa garrantzitsuegia dela esan behar diete profesionalen esku bakarrik uzteko[22]; ezin dute pentsatu baliabideak eta mezuak teknikoki hobetuz nahikoa dela komunikazioa orokorrean hobetzeko.

Arazoa: oso zaila da besteei erakustea norberak ez dakiena. Kontraesanen kontraesana: komunikazio aditu legez erakundeei komunikazio prozesuen neurrigabeko aberastasuna erakutsi behar diegu, guk geuk deskubritzen ditugun bitartean. Izan ere, ez dakigu ondo zertan dautzan. Ez gure ikasketetan ezta gure esperientzia profesionalean ere ez gaituzte prestatu komunikatzeko[23]. Beharbada asko jakingo dugu konbentzitzeaz, informazio proiektuak egiteaz eta martxan jartzeaz, baina oso gutxi dakigu begiratzeko moduari, espazioak deskubritzeari, komunikazio asmoz irakurtzeari[24], errealitateari, diseinatzeari eta komunikazio proiektu eta praktika horiek martxan jartzeari buruz. Beharbada gai izango gara emititzen duenaren sekretuak azaleratzeko, baina ez dakigu zer egiten duten gure mezuekin mezuak hartzen dituztenek. Kasurik onenean komunikabideen logikak men-

[19] Kontuan hartzekoa: ia gehienok gaitzetsi egiten dugu GGKE batzuen publizitatean Hegoaldeko pertsonen irudiaren erabilera ez duina. Horrek urratu egiten ditu jokabide kodeak hitzez hitz. Baina zenbat GGKEk urratzen dituzte ia inor konturatu barik? Zergatik jartzen zaio irakurleari edo ikusleari emakume edo ume baten irudia eta ez gizon heldu batena, adibidez? Gakoa sakonago dago: herritar txiroak beste produktu bat balira legez saltzen dituzte eta hori onartezina da. Enrique Alarcón: "La manipulación de la solidaridad en la publicidad", Hitzaldia. Hospital San Juan de Dios, Iruña, 2002ko urriaren 25a.

[20] Erro y Ventura, 2002.

[21] GGKEen diskurtsoaren anbiguotasunari buruz eta erakunde hauek besteengandik desberdintzeko duten beldurrari buruz, ikusi López Rey (2002: 35. orrialdetik 39ra). Sampedro, Jerez eta López Reyk ere (2002) adierazten dute GGKEen kontraesan hau.

[22] Geroago komunikazioaren ardurakidetasunaren gaia gizarteratzearen, komunikazioaren eta komunikazio gaitasunaren ikuspegitik jorratuko dugu.

[23] Gure prestakuntza akademikoa mediatikoa da, bai eta gure esperientzia ere. Espezialistak gara kazetaritzan (komunikabideen bitartez mezuak zabaldu informatzeko), publizitatean (mezu mediatikoak zabaldu saltzeko), irudian eta marketingean (aurrezdik egindako ideiarekin begiratu: ikusi nahi duguna ikusi). Euskal Autonomia Erkidegoan aztertutako GGKE guztietako komunikazio arduradunetatik batek bakarrik definitu zuen bere burua gizarte komunikatzaile gisa, besteek kazetari legez egin zuten (Erro y Ventura, 2002).

[24] Beste lan batzuetan Daniel Prieto Castilloren komunikazio begirada garatu dugu. Kontzeptu horren esanahia, batez ere, espazioak eta egoerak irakurtzen jakitea da, baina sinboloetatik irakurtzea, ia inoiz bistakoak ez diren sinboloetatik: giza jardueren zentzuak deskubritzen ikastea. (Erro, 2001).

peratzen ditugu eta ondo moldatzen gara teknologia berriekin, baina ez dakigu ia ezer pertsonak mugitzen dituzten kultur arloei buruz, hau da, gizarteen eraikuntza erabakitzen duten kultur eremuei buruz. Eginbeharra oso konplexua da; gogoeta beharrezkoa da: deskubritzea geure burua deskubritzen dugun bitartean.

### 2.4.2. Zer da gizarte komunikazioaren kontu hori eta zertan behartzen gaitu?

Gizarte industrialaren historia komunikazio hitzaren jatorrizko zentzuaren galera baino ez dela esan daiteke, eta haren ordez informazio kontzeptua sartu zen. Komunikazio prozesuak informazio prozesu bilakatuz joan diren heinean, baliabideak (masa komunikabideak, esate baterako) pertsonen gainetik jarri dira[25]. Hori dela eta, gaur, noraezean galdera zaharrak bilatzen ditugun honetan, bidezkoa da galdetzea masa komunikabideak komunikabide ote diren benetan. Komunikabide Independenteen Zentroa, Indymedia Euskal Herriako kide Patxi Gaztelumendik pasadizo bat kontatzen du: *Kazetaritza ikasten ibili nintzenean sekula ez nuen ulertu zer zen hainbestetan aipatutako feed-back hori. Egunkariei begiratuta ere ez nuen ulertzen: zuzendariari gutunak atala izango ote da, irakurleen telefono deiak izango ote ziren?, galdetzen nion neure buruari. Azkenean ulertu dut Indymedian, bertan edozeinek komunikatzen duelako inolako zentsurarik gabe eta gainera beste batzuekin komunikatzen da komunikatu nahi duen horretaz. Denok komunikatzen gara. Horixe izango da feed-back ospetsua*[26]*.*

Informazioaz ari naizenean, informazio transmisio soila baino askozaz gehiago den prozesu multzoaz ari naiz. Gehiegi sakontzeko asmorik gabe, *komunikazio azpigaratuaz*[27] hitz egin dezakegu, ondoko informazio eta komunikazio prozesuak aipatzeko: komunikazio ez arrazoizkoa, eta errealitateak interpretatu eta zabaltzeko modu sinple, manikeo eta monolitikoan oinarritzen dena. *Komunikazio ez hedatua da*, alperrik galduta egoteagatik eraginkortasun txikikoa, instrumentala eta autoritarioa, komunikatzea konbentzitzearekin nahasten duena. Zenbat GGKEk ikusten du bere burua horretan islatuta?

Praktikara joz, gizarte komunikazioa diogunean honetaz ari gara: Estatua, merkatua eta boteretsu handiak seinalatu eta interpelatzen dituzten gizarte eragileek komunikazio produktuak produzituz, emitituz, zabalduz, jasoz eta erabiliz martxan jartzen dituzten prozesuez. Arazoa da horrela ikusita gizarte komunikazioa komunikabideetan informazioak zabaltzea baino askozaz konplexuagaoa dela, eta gainera galdera deseroso bi planteatzen dizkigu zuzen-zuzenean: komunikatu nahi al dute GGKEek?, zertarako?

Komunikatzen dutenentzako lehenengo erronka: gure GGKEak komunikatzeko gurariririk daukan. Hau da, komunikazioa gizarteratu nahi duen, gizarte eragile guztien artean komunikazio gaitasunak bultzatzeko lan egin nahi duen, harremanak eta topaketak bilatzeko eta bultzatzeko gai den konbentzitzeko obsesioarekin edo konbentzitua izateko jarrerarekin. Beharbada, beste batzuek legez, ez da eztabaida publikorako prest egongo, ez izatea gustukoa eztabaida[28]. Kontua da gizarte eztabaidan sartzeko grina izatea, arlo publikora zabalduko den gizarte komunikazioa sortzea, ahalik eta bazterketa, isilarazte eta monopolio gutxien izanik (Sampedro 2002, 5). Komunikatzeko pasioa

[25] Gai honi buruz ikusi Erro 2002.

[26] Jardunaldia: *ComunicAcción. Comunicación para la solidaridad y la acción colectiva.* 2002ko azaroaren 28a. Hegoa. Bilbao.

[27] Pablo Navarra (1994).

[28] Sampedro. Jardunaldia *ComunicAcción. Comunicación para la solidaridad y la acción colectiva.* 2002ko azaroaren 28a. Hegoa. Bilbao.

deskubritu behar da[29], plazerra sentitu behar da besteekiko harremanetik desberdin, aberatsago, anitzago, ulerkorrago irteteko.

Orain arte, GGKEek beren komunikazio alderdietariko bat baino ez dute agertu, instrumentala eta konbentzitzeko itsututa egotean[30] eta entzuteko gaitasuna ez lantzean, harreman ekonomikoetan murgilduta amaitzen duena. Aurpegi adierazkorra, gatazkarekin mintzatzen den aurpegia, aurkitzetik urrun daude, eta aurpegi horrek gizabanakoak prozesu batean bildu beharko lituzke sormen kolektiboa pizteraino, horrela gizarteratu egingo litzateke aintzatespena, autoorganizazioa eta gizarte aldaketarako moduak sortuz. Beste hitz batzuekin esanda: GGKEek elkartasun, laguntza eta garapenerako kooperazio prozesuetan ezereztu egiten dute komunikazioaren balioa, eta horrela bertan behera geratzen dira erakunde horien hezkuntza altxorrak. Geure esku dago GGKEen komunikazio gaitasunak mahaigaineratzea, baina erabilgarritasun eta eraginkortasunaren lengoaia erabiliz.

### 2.4.3. Zer da gizarte komunikazioa profesionalizatzearen kontu hori?

Komunikabideak behin eta berriro ahalegintzen dira erresistentzia globaleko mugimenduei bozeramale ofizialak izendatzen: José Bové, Susan George, Noemi Klein, John Zerzan, Ralph Nader, Ignacio Ramonet, Bernard Cassen, Noam Chomsky, Marcos, orain Lula, etab.[31] Ahalegin hori kultura profesionaleko arrazoiengatik (komunikabideak gizartera beti bitartekari ofizialen bitartez hurbiltzen dira) eta kultura politikoko arrazoiengatik egiten dute (bozeramaleak onartuz gizarte mugimenduak mantsotu egiten dira). Izan ere, horren atzean dagoena zera da, barne eta kanpo hierarkiak ezarriz gizarte komunikazioa pribatizatzeko ahalegina.

GGKEen barruan ere itxura baten onartuta dago ideia hori. Komunikazioa profesionalizatzea erakundearen oinarritik aldenduta dagoen talde tekniko bat izatea dela ulertzen da. Horrek azaltzen du zergatik GGKEetako komunikazio arloek, batez ere, komunikatuak, deialdiak eta prentsaurrekoak egiteari ekiten dioten. Ondorioa:

- Komunikatzen dutenengan frustrazioa sortzen da, izan ere, eman dezaketena baino gehiago eskatzen zaie[32].
- Txarto interpretatzen da *komunikazio erantzukidetasunaren* ideia.

Adibide bat emango dut. GGKEetan komunikazioa lantzeko mintegi batean *komunikazioaren erantzukidetasunaren* ideia atera zenean, erakunde hauetako komunikazio langileek beren kexak agertu zituzten. Nola ikustarazi GGKEetako lantaldeko beste kideei komunikazioaren arloan duten erantzukizuna?, nola ebitatu komunikabideek deitzen dietenean erakundea kontraesanean ez jartzea? Bertaratutako batek arau zorrotzen katalogo bat ematea proposatu zuen, idatziz jasotzeko eta betearazteko. Baina, pertsona hori berori desanimatu egin zen gogoratu zuenean bere erakundean bertan nolako automatismoz edo utzikeriaz har-

[29] Prieto Castilloren kontzeptua.

[30] Konbentzitzeak hasi aurretik galduta egotea esan nahi du. Garailea hitz egiten duena eta entzuna dena da, galtzailea, ostera, isildu eta entzuten duena da. Indarrez galdu duena aukeraren zain dago: etorriko zaio bere aukera egunen baten. Inoiz ez hitzen liluraz konbentzitutakoa: hilda dago dagoeneko (Ibáñez, 1985).

[31] Ahalegin hori erakusten duten hainbat kazertaritza lan dago. Batzuk aipatuko ditugu: *"El apostol de la contracultura"* (Zerzan), El País, 19-12-1999, 40; *"José Bové: El último revolucionario"*, El País Semanal, 8-10-200, 16tik 24ra; edo *"Queremos cambiar el mundo. Retrato de 18 españoles que luchan por una sociedad más justa"*, El País Semanal, 19-05-2002, 52tik 66ra. Baina zalantzarik gabe, diogunaren adibiderik argiena hau da: *"Antiglobalización en España. ¿Quién está detrás?"*, El Semanal, 2002ko ekainaren 23a, 34-40. Denak datoz bat helburuan: mugimendu bat azaldu baino gehiago izendatu egin nahi dute (izena jarri) eta ezagutu (aurpegia jarri), horrela kontrolpean egon dadin (pertsonak presionatu, erosi, etab. egin daitezke, baina mugimendu dinamiko eta autogestionatuekin hori egitea askoz zailagoa da).

[32] Gai honen gainean ikusi: Erro y Ventura, 2002. Oso adierazgarria da ikustea nola GGKEetan lan egiten duten komunikatzaileek barneratu duten egoera hau. GGKE baterako komunikatzailerik egokiena deskribatzeko eskatzen zaienean hainbeste gairi buruzko ezagutza (kazetaritza, publizitatea, gizarte komunikazioa, nazioarteko harremanak, antropologia, etab.) eta gaitasun (komunikatzailea ona, argia, langilea, altruista, etab.) eta esperientzia (komunikabideetan, publizitatean, kooperazioan, langunean bertan, etab.) aipatzen dituzte, ezen egunkari onenaren edo Europako GGKE boteretsuenaren zuzendariak ere ez dituen.

tzen den telefonoa edo zabaltzen zaien atea bisitariei. Pasadizo erakusgarria deritzot konturatu gaitezen nola begiratzen diogun errealitateari ikuspegi instrumentaletik. Era berean, nire ustez, GGKE gehienei aplikatu ahal zaie hori. Horrela ulerturik, komunikazioaren erantzukidetasuna erakundearen kontrol tresna bat baino ez da eta horrela ikusten dute denek.

Gaia beste bat da: komunikazio gaitasunaz eta komunikazioaren gizarteratzeaz hitz egin behar dugu, kontzeptu askoz exigenteagoak eta zabalagoak direlako, eta zerikusi handia dute sormenarekin eta produkzio kolektiboarekin[33].

Nire ustez, Jesús Martín Barbero da komunikazio gaitasunaren inguruan gehien hausnartu duenetariko bat. Bere azken liburuetako batean[34] gaitasuna ideia chomskyar gisa aurkezten digu. Chomskyren arabera, gizakiok inoiz sortu gabeko mezuak produzitzeko gaitasuna daukagu, eta ideia hori bat dator *performance* ideiarekin (ekintza, egitea, praktika). Horrela, bada, sormen indibidual eta kolektiboaren inguruko eztabaida baten aurrean gaude. Baina kontua da enpresa munduan jarrera intelektual eta sortzaile gisa ulertutako gaitasunaren ordez lehiakortasuna gailendu dela. Martín Barberoren arabera, lehiakortasuna da hain justu elkartasunaren kontrakoa, sormen kolektiboaren aurrean errentagarritasun pribatua kontrajartzen duelako[35]. Lehiakortasun komertziala edo sormena eta elkartasun soziala? GGKEek seriotasunez ekin behar diote dilema hau argitzeari. Ondoko hauek izan beharko dituzte kontuan:

- Lehiakortasun komertzialean finkatutako ikuspegitik, komunikazioaren profesionalizazioari ekitean, batetik, teknikari adituak (GGKEen arduradunak eta komunikazio langileak) eta, bestetik, erakundeko gainontzeko kideak eta gizartea bera jartzen dira. Jarrera honetan audientzia hartzen da erreferentziatzat[36] (presentzien kopurua, tirada edo pantaila kuotak telebistan, irratian edo prentsan), berehala etekinak lortzeko asmoz. Horrelako ikuspegitik hartuta, gainontzeko kideei komunikazio erantzukidetasuna eskatzea kontraesana da.

- Parte-hartzean eta autogestio sozialean oinarritutako elkartasunaren ikuspuntutik, ez dauka zentzurik komunikabideetan agertzeaz eta komunikazio pastelaren banaketaz kezkatuta egoteak, izan ere, zentzuzkoagoa da komunikazioaren gizarteratzearekin kezkatuta egotea. Hemen profesionalizaziotzat beste gauza bat ulertzen da, kontua jendearengana heltzea delako, eta ez audientziak lortzea. Azkenik, subjektu sozial aktiboa, nortasunduna eta gaitasunduna ulertzen dugu hemen[37]. Jendea orokorrean da herritar autonomoak lortzeko hazia. *Benetako gizarte komunikazioaren helburua da horiek mobilizatzea garrantzitsuagoak eta nabarmenagoak izan daitezen, hau da, ez zaie ahotsa lapurtzen –politika ofizialak hainbestetan egiten duen legez-, euren kontzientzia gaiztoak isiltzen –laguntzazko ikuspegiak egiten duen legez- edo ez da euren ekimena diru-ekarpenak egitera mugatzen -publizitateak egiten duen legez–. Horretarako jendearen edo herritarren sektorerik aktiboenekin*

[33] Geroago ikusiko dugunez, arazo hau berriro agertzen da GGKEek Interneti dagokionez duten jarrera aztertzen dugunean.

[34] Martín Barbero, 2002.

[35] Martín Barberok gogorarazten digu nola Latinoamerikan nekazaritza eremuetako umeek, eskolara doazenean eta gero unibertsitatera, galdu egiten duten euren narrazio gaitasun itzela, izan ere, ikasketa akademikoetan idatziaren logika lehenesten dugu ahozko logikaren gainetik. Geratzen zitzaion sormen bakarra, istorioak kontatzekoa, galdu egiten du eta, beharbada, horrela bere bizitza osoan sormena izatea eragotziko diogu, hau da, herritar izatea eragotziko diogu. Egile honek gogoeta egitera bultzatzen gaituen alderdi bat nabarmendu du: ahozko kultura, nekazariena, idatzizkoa baino askoz transbertsalagoa da eta, beraz, aukera gehiago ditu eraiki dugun gizarte ez-seguru eta zatitura egokitzeko. Bere izaera hibridoa dela-eta *gaituago dago gauzen hondakinei, zatiei, etekina ateratzeko, gauzak lehenengoan botatzen ditugun gizarte eralgitzaile honetan. Pobreek badakite aparatu zaharrak birziklatzen aparatu berriak egiteko* (2002).

Nik neuk izandako esperientzia batek berretsi egiten du susmo hori: Ertamerikako unibertsitate batean, kazetaritza karrerako nire lehen lan urteetan deigarria egiten zitzaigun ikasleak ze burugogorrak ziren prentsa-berri bat egitean oinarrizko lau arauak betetzeko orduan. Azkenean, beti hausten zituzten arauak, iritziak emanez, alderdi tangentzialak adieraziz eta kolorea jarriz, kazetaritza modernoaren hizkuntza hotz, aseptikoa eta makinala hartu beharrean. Beste irakasle batzuek legez, hasieran nire ahalegin guztiekin euren gaitasun narratiboa apurtzen saiatu nintzen, harik eta azkenean, zorionez, errealitateak garaitu egin ninduen arte. Gaur, kazetaritza modernoa zabor bilakatzen ari zaigun honetan, eta jakinik sormena behar duela premiaz, eskertu egiten diet euren sormen burugogortasuna eta norbere nortasuna izateko gurari bizi eta erosi ezinekoa.

Gai honi buruz, ikusi baita ere: Bourdieu -1997- (soziologo frantsesak kapital sinbolikoa bizitzako ibilbidearekin identifikatzen du, ez *kultura kultoarekin*), eta De Certeau -1994- (eguneroko bizitza eta biziraupena egiten jakiteko modu gisa eta gehiengoen eguneroko kultura gisa interpretatzen ditu).

[36] Audientziak zerikusi handia dauka jendearen infantilizazioarekin: jendeak ulertuko ez dituelako ustean mezu sinpleak, umeentzako modukoak, erreferentziarik gabekoak eta kalitate estetiko eskasekoak zabaltzen ditugunean, azken baten audientzia kontzeptuarekin ari gara lanean.

[37] Sampedro, 2002.

*egin behar da lan, komunikazio horizontaleko fluxu berriak sortzeko (...) eta mezuen kontsumitzaile huts izatetik mezuen sortzaile eta dekodifikadore kritiko izatera pasa daitezen*[38]*.*

Kontua hauxe da:

- Batetik, eskari eta ekimenak ahal denik eta gizarte eragile eta erakunde gehienen ahotan jarri.
- Bestetik, desberdina dena espazio publikoan sartzeko borrokatu; gure garai hauetan informazioaren teknologia berriei esker badirudi hartueman eta elkar truke soziokulturala dagoela, baina argi dago justu kontrakoa gertatzen ari dela: gero eta alde handiagoa dago ahotsen produkzioa dominatzen dutenen eta *besteen aginduak entzuteko eskubidea* baino ez dutenen artean[39].

Eta hori guztiori erakundeen barruan eta kanpoan, izan ere, azken helburuak gizarte komunikazio ahalik eta zabalena lortzea izan behar duelako, hau da, jendeari zabaldua eta monopoliorik eta bazterketarik gabekoa.

[38] Sampedro, 2002.

[39] Sobre este tema puede verse Rossana Reguillo (1997).

3. Zein GGKEk har lezake gaur bere gain gizarte komunikazioko proposamen bat?

Atal honetan honako galdera hauek planteatzen ditut: batetik, nola bereizi GGKE bakoitzak komunikazioari eskatzen diona, denek antzeko diskurtso zehazgabe eta erreferentzialitate gutxikoa badute? Eta, bestetik, ze jarrera eta egitura behar dira merkatupeko komunikazio moduekiko lankidetza-gatazkaren tentsioa mantentzen jakiteko erakunde gisa bakoitzak bere benetako izaera galdu gabe?

Hona hemen gaiaren egitura:

- GGKEen diskurtsoaren azterketa.
- GGKE motak eta komunikazio arloko sentiberatasunak.
- Transformazio-integrazio dialektika.
- Komunikazio sozial eta hezitzailearen beharrizana estrategia eta adierazkortasuna uztartzeko.

Gure komunikazio lana hasi baino lehen agertzen den oztopo handienetariko bat GGKE bakoitzak komunikazioaren arloan dituen sentiberatasun eta gurariak zehaztean datza. Ez da arrazoizkoa GGKE izendapenaren azpian sartzen diren erakunde desberdin guztiek herritarrekiko prozesu eta elkarrizketa mota berberak ezarri nahi dituztela pentsatzea.

### 3.1. GGKEen diskurtso iluna

Beharbada hurbil izango da diskurtsoek gertakariak ezkutatzen dituzten sasoi honen amaiera, baina gaur egun ez da erraza GGKEak euren hitzetatik ezagutzea. Esana dugu lehenago ere, GGKE guztien diskurtsoaren ezaugarri bat aipa-

[40] Ikusi Erro eta Ventura (2002).

tu behar izanez gero, anbiguotasuna, iluntasuna eta elkarrengandik desberdintzeko beldurra aipatu beharko genituzkeela. Grasa (1999) eta López Rey (2001) bat datoz Espainian ari diren GGKEen zehazgabetasuna nabarmentzean. Euretariko gehienak gehiago identifikatzen dira zer ez diren nabarmenduz, benetan zer diren definituz baino. *GGKEek zehazgabetasunez eta modu erredundantean definitzen dute beren burua. Badirudi aukera ideologiko baten alde egiteak jendea, merkatua edo irudia murriztea ekar dezakeela; beraz, nahiago dute multzo nahasi eta zehazgabe batean geratzea, eta han zaila da batzuk besteengandik bereiztea. Horrek indartu egiten du GGKEen artean zenbait beldur badaudelako ideia.* (López Rey, 2001:37). Horrexegatik errepikatzen dute behin eta berriro “laikoak” eta “independenteak” direla, eta hori hain da orokorra ezen ezer gutxi esaten duen eurei buruz. Gero kexatu egiten dira jendeak ez dakielako euren artean bereizten eta denak zaku berean sartzen dituztelako.

Jendearen nahasmena areagotzeaz gain *(Denak gauza bera esan eta nahi badute zergatik dago hainbeste?*, esaten du jendeak), anbiguotasun horrek handiagotu egiten du ezkutuaren (diskurtso publikoan agertzen ez dena) eta agindutakoaren artean (egintzat edo egiazkotzat jotzen dena). Hau da, barrutik baino ez dira ezagutzen (eta onartzen) GGKE askok beste erakunde batzuekin, ideologia batzuekin, etab. dituzten lotura, harreman handi edo txikiak edo hurbiltasuna.

Zergatik da garrantzitsua datu hau komunikazioa lantzeko? Diskurtso horren anbiguotasunak bete-betean harrapatzen du gure lana. Ez da erraza asmatzea zergatik nahi duten benetan komunikatu GGKEek, edo errealitatea transformatzeko edo elkartasunaren merkatuan hobeto finkatzeko. Esandakoei erreparatuz gero ere, GGKE guztiek garrantzi handia ematen diote komunikazioari beren lanean, baina ahaleginak egiterakoan edo baliabideak bilatzerakoan, gehienek beste gai batzuen alde egiten dute[40]. Datuak mahai gainean jarrita planteatu beharra dago GGKEek ez ote duten dagoeneko, nahiz eta onartu ez, merkatupeko komunikazio estiloaren alde egin; eta badirudi gainera ez daudela prest horri uko egiteko. Kasu bakoitza aztertu beharko da, baina badirudi GGKE handiak euren egituretan atrapatuta daudela, eta gero eta zailtasun gehiago topatzen dituzte dinamika sozialak eskatzen dituen etengabeko komunikazio aldaketetara egokitzeko. Egoera honetan zaila da gizarte komunikazioko politika, estrategia eta egiturak eratzeko proposamen bat bete-betean onartzea erakunde horiek.

Era berean, ezin da ahaztu GGKEen presentzia merkatupeko komunikazioaren eta publizitate agresiboaren inguruan gauzatzen dela. GGKE gehienek komunikazioa bideratzeko jokabide kodeak (ikusi 3 eta 4 eranskinak) sinatu dituzten arren (ez dira derrigorrez betetzekoak), eta orokorrean bestearen irudia hobetzen ari den arren, badugu oraindik miserablekeria eta pornomiserien berri.

Beraz, nori ari gatzaizkio zuzentzen? Printzipioz, estatu espainoleko GGKE gehienei:

- Lehenengo eta behin, GGKE handiak gutxi direlako, nahiz eta baliabiderik gehienak eskuratu Iparra-Hegoa dinamika sozialaren erreprodukzioan.
- Bigarrenik, miserablekeriaren bitartez aurrera egin dutenak ere ez direlako asko, nahiz eta nahikoa ezagunak izan.

## 3.2. GGKE motak eta komunikazio arloko sentiberatasunak

Sailkapenen kontuan sartuko gara orain. Ze motatako GGKEak bereiz ditzakegu? Eztabaida polemikoa da, izan ere, GGKEek borrokatzen omen duten sistemari dagokionez daukaten menpekotasuna edo funtzionalitatea mahaigaineratzen du. Lan honetan normalean egiten den GGKE prosistema eta GGKE antisistema banaketa erradikala gainditu nahi dut, izan ere, nire ustez, horrek ez du atzean dagoen konplexutasun guztia islatzen. Datu enpirikoek erakusten dutenez, GGKEetan era batera izaten dira ikuspegi desberdinak eta kontraesankorrak ere, komunikazio diskurtso eta praktika instrumentalak eta adierazkorrak, eta horiek guztiak bultzatu edo isilarazten dira, premia edo joeren ondorioz erabaki konszienteen ondorioz baino.

Bai, halaxe da, GGKEak erakunde *eskizofrenikoak* direla ondorioztatu dezakegu, beren baitan izaera eta kultura bikoitza dutelako eta ezin diotelako horri ihes egin. Fenomeno kontraesankorra osatzen dute horrela:

a) Garapenerako Nazioarteko Laguntza eta Kooperazio Sistemaren zati bat dira.

Kooperazio sistema hau gerraosteko gizartearen emaitza da eta oinarrizko pieza bat dugu krisiak jotako kapitalismoaren globalizazioan. GGKEak funtzionalak dira sistema honetarako, baliabide geoestrategiko eta ekonomiko gisa jokatzen dutelako (nazio eta nazioz gaindiko atzerri politiken inguruan mugitzen dira)[41]; haien baloreak zabaltzen dituztelako (haien unibertsalizazioa ezar dadin lagunduz)[42]; eta elkartasun diskurtsoari esker diskurtso emantzipatzailearen eta proiektu modernoko praktika sozial autoritarioen arteko kontraesana ezkutatzen dutelako (gizarte solidarioetan bizi garela pentsatzen dugu, azken baten *solidaritate ezaren kultura* bultzatzen ari garenean)[43].

b) Era berean, kapitalismo globalaren erresistentzia indarren taldean daude sartuta; beste globalizazio bat sortzeko borrokatzen ari dira: humanoagoa, solidarioagoa, behetik eraikia.

Bokazio antisistema nabarmena duen mugimendua da (*statu quo*-aren oposizio erradikala), eta GGKEak oso garrantzitsuak dira beste globalizazio baterako laboratorio gisa, izan ere, elkartasun harremanak eratzen dituzte aurrez aurreko topaketen bitartez eta arazo eta proiektu zehatzetarako irtenbideak bilatuz.

Baina eskema honek ez garamatza oso urrun, baldin eta ez badugu bat egiten kritika erradikal eta antzuenekin, hau da, GGKEak sistemarentzako benetan kaltegarriak diren elementutzat hartzen dituztenekin[44].

### 3.2.1. Kultura instrumentalak eta adierazkorrak

Irabazi asmorik gabeko erakundeak bereizteko, autore batzuek *harreman instrumentalak* eta *harreman substantzialak* (Angulo, 1998) aipatzen dituzte, edo bereizi egiten dituzte *kultura* edo *arrazionalitate instrumentala* eta *adierazkorra* (López Rey, 2001).

[41] *Harreman zuzena dago eredu neoliberalari aurre egiten dioten gizarte mugimenduen gorakadaren eta GKEen bitartez gizarte ekintza alternatiboak sortuz mugimendu horiek irauli nahi dituzten ahaleginen artean.* J.Petras, "El postmarxismo rampante: Una crítica a los intelectuales y a las ONG", *Monthly Review,* 2000ko ekaina.

[42] Gai honi buruz lan hauek ikus daitezke: S. Latouche, A. Estevan eta M.Olivella in *FMI, Banco Mundial y GATT. 50 años bastan. El libro del Foro Alternativo. Las otras voces del plantea.* Talasa. Madrid. 1995. Baita Gimeno eta Monreal (1999).

[43] Díaz-Salazarrek (1996) kontrajarri egiten ditu *elkartasun ezaren kultura* eta *elkartasunaren kontrakultura.*

[44] Petras, op. cit.

- *Kultura* edo *arrazionalitate instrumentalak* jatorri ekonomikoa dauka eta GGKEak sektore pribatuak dituen ikuspegi eta egiteko moduetara bideratzen ditu, baliabideen arrazoizko gestioan oinarritzen da eta batez ere erreserba ekonomikoak handitzea bilatzen du.
- *Kultura* edo *arrazionalitate adierazkorrak* giza alderdiak alderdi ekonomikoen gainetik jartzen ditu eta herritarren parte-hartzean oinarritzen da jarrerak aldatzeko eta Iparra-Hegoa harremanetan aldaketa estrukturalak eragiteko.

Zalantzarik gabe, sailkapen honi onartu egin behar zaio gaur egun GGKEek mahai gainean duten dilemarik handiena seinalatzearen meritua:

- Edo oso-osorik gestiorako baliabide bilakatu (administrazioen eta merkatuaren zerbitzura).
- Edo gizarte mugimendu gisa beren izaeran sakondu benetako aldaketak eta transformazio estrukturalak bultzatuz.

López Reyri jarraituz (2001), kultura instrumentalaz baliatzen diren GGKEek honetara jotzen dutela esan dezakegu:

- *Elkartasunaren merkatuan* leku bat bilatzea, giza baliabide eta baliabide ekonomiko gehiago lortzeko.
- Merkatuaren menpeko komunikazio estiloa praktikatzea, baliabide ekonomikoak bilatzeko eta erakunde legez promozionatzeko.
- Onuradunen ahots eta irudia instrumentalizatzea.
- Parte-hartzearen eta kultura demokratikoaren gaia manipulatzea saihestea (fundazioen egitura juridikoa hartzen dute; dena dela, GGKE batzuk elkarte dira, baina bazkideen parte-hartzea fundazioetan bezain txikia da).
- Oinarri sozial ekonomikora zuzentzea (laguntzaile eta diru-emaileak, GGKEaren helburuari eta egiturari buruz erabaki ahalmenik gabekoak).
- Aurretik teknikari profesionalizatuak jartzea, boluntarioen eta jendearen indarra aukeratu beharrean.
- Antolakuntza prozesuak zentralizatzea (egoitza nagusi oso sendoa eta ordezkaritza ahulak).
- Lurraldez lurralde ezarpen eskasa izatea (administrazio zentralen baliabide ekonomikoez baliatzen dira orokorrean).
- Hegoaldeko organizazioekin ekonomia eta kontratu izaeradun lotura eta harremanak izatea, baina ez dira harreman oso sendoak (Espainiatik kanpora hainbat lagun dituzte proiektuen kudeaketa zuzendu eta kontrolatzeko).
- Esku-hartzeak lehenestea (garapenerako kooperazioaren edo larraialdiko laguntzaren arloan) garapenerako sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren gainetik.
- Sentsibilizazioa eta garapenerako laguntza baliabide ekonomikoak eskuratzera zuzentzea.

Alderantziz, kultura adierazkorra bizi duten irabazi asmorik gabeko erakundeek honetara jotzen dute:

- Gehiago bilatzen dute dagoen errealitatea transformatzea elkartasunaren merkatuan sartzea baino. Garrantzitsuagoak dira jarrerak baliabide ekonomikoak baino.
- Bitartekari bilakatzea onuradunen ahots eta irudia ahalik eta sendo eta zabalen hel daitezen espazio publiko globalera.
- Nazioarteko kooperazioan herritarren parte-hartzea modu berezian baloratzea. Baina ez bakarrik helburu konkretuak lortzeko bide legez (proiektu eta programen betearazpena), baizik eta jarrerak aldatzeko eta horrela transformazio estrukturalak bultzatzeko Iparra-Hegoa harreman desorekatuetan. Helburu nagusia elkartasunaren kultura, kultura demokratikoa eratzea da.
- Bazkidea (Biltzar Nagusiaren eta beste bide batzuen bitartez elkartearen benetako kontrola izan dezake) diruemailearen gainetik dagoen oinarri soziala izan nahi dute. Horrexegatik izan ohi dute elkartearen forma juridikoa.
- Boluntarioen indarra GGKEaren eta gizartearen arteko bitartekaritza gisa ulertzen dute.
- Ez dira oso zentralizatuak eta harreman sendoak dituzte Hegoaldeko elkarteekin, hau da, ez dira kontratuzko harreman hutsak (ez dute zertan jende asko bidali bertara).
- Lurraldez lurralde ezarpen handiagoa izaten dute instrumentalak baino, eta diru-iturriei dagokienez, baliabide ekonomiko gehiago jasotzen dituzte toki administrazioetatik adminstrazio zentraletatik baino.
- Batetik, garapenerako kooperazio edo larrialdiko laguntzako esku-hartzeen eta, bestetik, sentsibilizazio jarduera eta garapenerako hezkuntzako esku-hartzeen ahaleginak orekatzea planteatzen dute.
- Konturatzen hasi dira ikuspegi pedagogiko berria behar dela, eta gizarteari, ondorioez gainera, arrazoiez hitz egiten hasiak zaizkie, eta elkartasun mota lasai eta gogoetatsuan sentsibilizatzea dute helburu.

Hortik ezin da ondorioztatu GGKEak erakunde sendoak eta kulturalki uniformeak direnik, izan ere, nagusi den nahasmenak justu kontrakoa adierazten du. Modu asko daude garapenerako laguntza eta kooperazioa ulertzeko eta era askotako GGKEak daude, baina horrezaz gainera GGKE asko ikus daiteke GGKE bakoitzaren barnean. GGKE askotan gizarte eta komunikazio praktika instrumental eta adierazkorrak biak batera ikusten dira, nahiz eta onartu beharra dagoen instrumentalak nagusi direla.

Ondorioz, lan honen helbururako ez da nahikoa *gestioko GGKEen* (kontserbadoreak edo funtzionalak) eta *GGKE adierazkorren edo gatazkatsuen* artean (estrukturalki transformatzaileak) bereiztea. Bilatzen dudana zera da, zein baldintza dagoen *nortasun instrumentala* gailendu dadin *adierazkorraren* gainetik, harik eta erabat ezereztu arte, edo krisian sartu eta aukerak sor daitezke benetako prozesuak bizitzeko. Izan ere, horren arabera dago gizarte komunikazioko proposamenak aurrera egitea edo ezerezean geratzea.

### 3.2.2. Irtenbideak transformazioaren eta/edo integrazioaren arteko tentsioarentzat

Zentzu honetan, oso erakargarria egiten zait boluntario taldeei buruz Luis Aranguren Gonzalok egindako analisia (2000). Nire ustez, argitasun batzuk ematen ditu GGKEen lanerako.

Integrazio (GGKEak erakunde zerbitzu-emailetan geratzea) eta transformazioaren arteko (gizarte mugimendu gisa birsortzea) tentsioan ere oinarritzen da, baina nortasun kategoriatik begiratuta. Subjektu bakoitzean (indibidual eta kolektiboa) sortzen den dialektika gisa ulertzen du, eta irtenbide bakarra etengabe negoziatzea da. GGKEak eta inguruan dabiltzanak nortasun krisian *–taldeko sinesmenak, baloreak eta erreferentziak, subjektu soziala orientatzeko moduko marko koherentea osatzen dutenak* (2002:26)– murgilduta daude, asko direlako kontuan hartu behar dituzten erreferentzia markoak. Dei desberdin gehiegi hitz berberekin, mezu kontraesankor asko, nortasun desberdinak GGKEen barruan: nahasmen gero eta handiagoa. Norantz jo?, zenbat modu dago gobernuz kanpoko kooperazioa egiteko?, zenbat GGKE mota?, zeri deritzogu elkartasuna, garapena edo azpigarapena? Jatorrizko marko eta kontzeptuak –gu kokatzeko balio beharko lukete– gaur egun arazo bilakatu dira[45].

Hainbat marko egonda, GGKEak oreka zailean daude. Erreferente desberdinei erantzun beharra daukate, eta hierarkiak ezarri behar dituzte marko horiek bateraezinak direnean. Baina garrantzitsuena da aukeratu egin behar dutela nola erabiliko dituzten beren baliabide urriak (giza baliabideak, ekonomikoak, teknikoak eta kulturalak), nortasun desberdinak kontuan izanda eta testuinguruaren arabera. Kontrakotasuna gertatzen da *momentu berean baliabide berberak helburu desberdinetarako erabili beharra dakartzaten nortasun markoak defendatzen direnean* (2002:26). Esate baterako, garapenerako hezkuntzaren arloko didaktika bat egitea eta horri erabat kontrajartzen zaion komunikazio kanpaina mediatikoa egitea aldi berean. Lehenengoaren bidez helburua da eskola-ume batzuek ikas dezaten komunikabideak modu kritikoan irakurtzen eta erabiltzen diren estereotipoak desegiten eta, aldi berean, bigarrenaren bidez modu masiboan ari dira zabaltzen. Lehenengoan hezkuntza nortasundun markoa defendatzen da (GGKEak transformazio estrukturalerako heziketaz arduratzen garen eragileak gara) eta bigarrenean, berriz, kontrakoa egiten da (edozein modutan konbentzitu behar dugu baliabideak eta ospea lortzeko).

Diskurtsoak baino askozaz argigarriagoa da GGKE bakoitzak nola erabiltzen dituen baliabide eskasak administrazioarekin, enpresekin, politikoekin, profesionalekin, boluntarioekin, bazkide-laguntzaileekin, GGKEak koordinatzeko erakundeekin, komunikabideekin, Hegoaldeko langile bazkideekin, herritar onuradunekin, hezkuntza sektorearekin edo erresistentzia globaleko erakundeekin egiten duen lanari dagokionez. Zentzu honetan, GGKEetan itxura baten elkarbizitza ona dagoen arren[46], inertziaz aukera ia-ia modu automatiko eta oportunistan egiten denez, bereizi gabe, epe ertainera erakunde horrekin dabiltzan pertsonak norabide falta, proiektu orokor baten falta eta lanari buruzko gogoeta falta somatzen hasten dira, eta horrela, nahasmena eta gogoeza gailentzen hasten dira.

Beraz, gaiaren sustraia ez datza oinarrizko eskema bat aukeratzean erakundeak ulertzeko. Gizarte mugimendu integrazionistez hitz egiteak zentzua izan arren (boluntarioen erakundeetan zerbitzuak eskaintzearen alde dauden eta

[45] Morínek (1995) ere paradoxa hau azaltzen du: garapena ekarri behar diguten (arrazoia, teknika, aurrerapena, ekonomia, etab.) proiektu berriaren kategoriak *irrazionaltasun fabrika* bilakatzen dira, bai eta mehatxu larria ere sistema eta planeta osoarentzat.

[46] Dena dela, gero eta tirabira gehiago ikusten da, esate baterako garapenerako hezkuntzako arloaren eta komunikazio eta gestio arloaren artean. Ikusi Erro eta Ventura, 2002.

egungo ordenaren barruan baztertutako herritarrak integratzeko bideak topatu nahi dituzten estatu eta alderdi politiko-ek lagunduta), bai eta gizarte mugimendu eraldatzaileez ere (baztertutako herritarrekiko gizarte elkartasuna bilatzen dute, bazterketa hori sortzen duten desberdinkeria egiturak aldatzeko)[47], azken baten hauxe da gertatzen dena:

- Ekintza marko zehatzik ez duten GGKE gehienek marko integrazionistetara jotzen dute gehiago eraldatzaileetara baino.
- Marko eraldatzailea diskurtsoan eta helburuen adierazpenetan bukatu ohi da, baina ez da orokorrean praktika sozialetan gauzatzen.
- Diskurtsoaren eta praktika sozialen arteko aldea handitu egiten da.
- Jarrera integrazionista erradikalenaren garaipena ikusten ari gara (diskurtsoaren ezkutuan).

## 3.3. Dramaturgia eta estrategiaren bidez komunikatzea

Kontua da ideiak oso argi izatea eta hierarkizatzen jakitea. Marko eraldatzailearen nagusitasuna (GGKEen itun berria *beste mundu bat egin liteke* leloaren alde), baina marko integratzailea agortu gabe. Izan ere, bermea horretan datza: bi mugimenduen kontrastean[48].

Marko transformatzaileak nagusi direnean, baina marko integratzaileak deslegitimatu barik, GGKEen arteko harremanak elkarrizketan, negoziazioan eta elkarlanean oinarritzera jotzen dute. Baina horretarako oso argi nabarmendu behar dira Iparra-Hegoa tragediaren eta gizarte bazterkeriaren arrazoi estrukturalak. Lehenengo eta behin salatu egiten da, eta gero negoziatu. Prisma horretatik GGKE bakoitzak bere nortasuna aurki dezake (lan egiten duen eremua, taldea, sektorea) eta, era berean, GGKEen nortasun kolektiboa sortzen parte hartu salaketa komunaren bidez.

Baina marko transformatzaileak integrazionista irensten badu, aurrez aurreko harremana, giza berotasuna, galdu egiten da eta abstrakzio politikoak ezabatu egiten du pertsonen errealitatea. Kontrakoa gertatuz gero (hain zuzen ere horixe ari da gertatzen), ez gara sekula joango laguntza baino haratago, hau da, arazoaren arrazoiek eta estruktura edo egiturak bere horretan jarraituko dute.

Aranguren Gonzaloren ideia ondo ulertzen badut, marko transformatzaile edo eraldatzaileak zerikusi gehiago izan dezake erresistentzia globaleko mugimenduen oinarri den makro-eremuarekin (garapen faltaren arazoaren ikuspegi politiko eta soziokulturala); eta marko integratzaileak, ostera, mikro-eremuarekin (kooperazio proiektuaren gauzatzea bera edo gizarte laguntza), hau da, GGKEak eta beste gizarte mugimendu batzuk mugitzen diren eremua. Ikuspegi horretatik, GGKEak eta erresistentzia globaleko mugimenduek elkarren beharra daukate: espazio osagarriak betetzen dituzte eta derrigorrez elkar ulertu eta elkarri lagundu beharko diote.

Ideia hori oso erabilgarria iruditzen zait komunikazioaren arloa aztertzeko orduan. Irtenbideak ematen ditu GGKEak eztabaida antzuetan trabatzen direnerako, esate baterako: erabili behar dira komunikabideak?, edo erabiliko dugu kau-

[47] Lana laburra denez ezin dut arlo honetan askorik sakondu. Boluntario taldeen gainean marko integrazionistak eta marko eraldatzaileak egiten duten interpretazioei buruz ikusi Aranguren Gonzalo, op. cit., 33 eta 37. orrialdeak.

[48] Aranguren Gonzalo, op.cit. 49. orrialdea.

[49] GGKE bateko pertsona baten erantzuna. Erro eta Ventura 2002.

sadun marketinga? Hasierako galderetara garamatza horrek –Zergatik eta zertarako komunikatu?–, eta bitartekoak eta helburuak ez nahasteko balio digu. Beste hitz batzuekin esanda: merkatupeko komunikazioa egiten bada, arrazoia da edo ez dela argi ikusten GGKEaren helburu eraldatzailea, edo marko integrazionistaren alde egin dela, nahiz eta idatzizko erabaki baten bidez egin ez hori. Izan ere, horrek arazo estrukturalak adierazteaz gain (GGKEak beti egongo dira tentsioan komunikabideekin, kausadun marketingarekin eta enpresekin, erakunde eta filosofia horien izaera merkantilagatik), gatazkaren gunea GGKEetan euretan dagoela esaten digu.

Halaxe da, marko eraldatzailearen nagusitasuna barneratuta ez dutenez, GGKEen barruan dabiltzan lagunak noraezean egoten dira negoziazio prozesuetan (komunikabideekin, enpresekin, administrazioekin, politikoekin, gizarte mugimenduekin eurekin), ez dituzte aukera guztiak behar bezala erabiltzen eta azkenean galdu egiten dira. Orduan itsu-itsuan aurrera egiten dute denari *bai* esanez (ohikoena) edo *ez* esanez, eta errealitate hori deskurtso anbiguo eta hutsalarekin ezkutatzen saiatzen dira, eta horrek gero eta gehiago nekatzen ditu herritarrak.

Nolabaiteko erradikaltasun eta apaltasunez pentsatzen hasita, komunikabideak edo gizarte marketinga erabiltzeak ez die zertan inolako buruko minik eragin GGKEei. Eginbeharra zein den ondo jakinda, eta garapena, herritarrak, parte-hartzea eta gizarte autonomia nola eratzen diren ezagututa, beti agertzen dira mundu guztiarekin hitz egiteko erreferenteak eta *bai edo ez kasu zehatz bakoitzaren arabera* esaten jakiten da. Dena dela, gai honetaz arduratzea ondo dago, izan ere, lengoia, oinarrizko kontzeptuak, praktika sozialen azken zentzua ez da nahikoa gizarteratzen eta lantzen GGKEen barruan. *Orain bertan GGKE honetan lanean dihardugun zazpi lagunoi bakoitza elkartasunaz, kooperazioaz, garapenaz, komunikazioaz, edo garapenerako hezkuntzaz zer ulertzen duen galdetuz gero, ziurrenik zazpi erantzun desberdin hartuko dituzu, oinarrizko elementu desberdinekin. Eta kontua da dena idatzita daukagula, teorian ederto baten zehaztuta: eginbeharra, printzipioak, etab. Baina, nork, noiz eta nola idatzi zuen hori guztiori, nola izan dugu horren berri, zenbat bider eztabaidatu dugu behar bezala, nola geureganatu ditugu? Beharbada, inork ez du jakingo horri erantzuten*[49].

Laburbilduz: Komunikazioaren gaia GGKEetan ezin da modu isolatuan pentsatu (laborategi batean legez), baizik eta XXI. mendean GGKEen, kooperazioaren eta elkartasunaren gaineko gogoeta orokor gisa. Izan ere, GGKEek orduantxe, hau da, GGKE bakoitzak argi duenean ze leku duen eraldaketa estrukturalak bere agendan, ezarri ahal izango dute beren komunikazio markoa (GGKEaren lanean komunikazioaren papera zein den argituko duena) eta erreferentziak eskainiko ditu horrek komunikazio politikak, estrategiak eta praktikak diseinatzeko.

Dena dela, aztertu beharreko funtsezko alderdi batzuk geratzen dira oraindik: estrategia eta adierazkortasunaren arteko dialektika, eta komunikazio prozesuaren hezkuntza izaera. Hona hemen eurotariko bakoitzaren azalpen laburra.

### 3.3.1. Komunikazio ekintza: estrategia eta adierazpena

GGKEetan komunikazio instrumentala eta estrategikoa sartu zen erakunde horien laguntzazko izaeraren osagarri gisa.

Dakigunez -Habermas (1989)-, ekintza estrategiko edo instrumentala arrakastaren inguruan mamitzen da eta den-dena emaitza jakin batzuk lortzeko helburuarekin egiten da. Komunikazio estrategikoaren politikan, bai karga sinboliko guztia bai

eta prozesuak eta nortasunak helburuen menpe geratzen dira. Ez du askorik ardura adierazpenak sakrifikatzeak edo subjektuak objektu bilakatzeak. Irudi miserableak zabaltzea, bestearen infantilizazioa, zirrara eragitea edozein preziotan... azken batean baliabideak eta mesedeak lortzeko ordaindu behar den prezioa baino ez dira. Horrelako ikuspegi batekin azkenean nahitaez nahastuko dira helburuak eta bitartekoak, ez dira aprobetxatuko aukera sinbolikoak eta epe laburrera jokatuko da.

Baina ekintza dramaturgiko edo adierazkorra ere badago, hau da, kode desberdinak aktibatzen dituena -somatzen eta kontrolatzen zailagoa ekintza instrumentala baino-, subjektibotasunen adierazkortasunari eragiten diolako bete-betean. Komunikazio adierazkorra egiten denean alderdi sinbolikoak erdialderantz mugitzen dira; adierazpen eta esanen aniztasunean jartzen da indarra; eta azalpen adierazkor horiek ahalbidetuko dituzten espazioak, denborak eta prozesuak sortzea bilatzen da. Ezin da ezer sakrifikatu: nortasunak indar guztiarekin azaleratu nahi baditugu, sinboloak aurre-aurrean agertu behar dira, izan ere, nortasun horiek zentzua bera ordezkatzen dute. Beraz, hau ez da pazientzia gutxiko komunikazioa, keinuak erabiltzen ditu eta giza erritmoak birsortu, badakielako eraldaketak itxura hutsa ez izateko estrukturalak izan behar direna, eta badakitelako aldaketak ez datozela gauetik goizera. Komunikazio mota honetan asko zaintzen da helburuak eta bitartekoak ez banatzea.

### 3.3.2. Ez adierazkortasunik gabeko estrategiarik, ezta alderantziz ere

GGKEetan eta gizarte mugimenduetan, komunikazioaren arazoaren jatorria merkatuan dago; alderdi politikoek eta gizarte mugimenduek utzitako hutsunearen aurrean, ekintza dramaturgikoa nagusitu eta *birsemantizatu* egin da. Eta lotsarik gabe orain berriro saltzen zaigu –bigarren eskuko eta ikaragarrizko prezioan–, formato merkantil eta akastunean[50]. Hauxe da esaten zaiguna: adierazkorrak izan nahi baduzue, produzitu publizitatea, saldu elkartasuna, eta ahaztu gizarte komunikazioa eta erreferente etikoak. Eta itxura batean konbentzitu egin gaituzte, izan ere, edo komunikazio proiektu ilunak (*pedagogistak*, ez pedagogikoak) eta itxura estetiko eskasekoak produzitzen ditugu uko eginez masen kultura herrikoian dagoen benetakotasun eta alderdi urratzaileari; edo zirraraten publizitate miserablearen arloan murgiltzen gara (ez oso kritiko eta etikoa).

Hona hemen arazoaren gakoa: *urteetan zehar diskurtso lau, ñabardurarik gabeko eta irudimenik gabekoaren menpe jarri izan da sinbolikotasunaren indarra eta horrek intersubjektibitatea eratzeko duen aukera, praktika sozialen legitimaziorako funtsezko baldintza gisa. Eta, alderantziz, proiektu bat sakrifikatu izana, nortasunaren alderdi adierazkorra defendatzeko* (Reguillo, 1997:100). Hortik dator ezbaia: edo arlo instrumentala gainditu eta komunikazio estrategia sinbolikoak aplikatzen ditugu, edo gero eta ahulagoak izango gara. Izan ere, gaur egun dagoeneko ezin da estrategietan pentsatu ekintza dramaturgikorik gabe eta adierazkortasunik gabe, baina helburu eta emaitza zehatzak ere bilatuz. Hemen ere gakoa kontrastean eta sinbiosi negoziatuan dago: transformazio edo eraldatzea (adierazkortasun sinbolikotik abiatuta), baina integrazioa alde batera utzi barik (estrategiak martxan jarriz). GGKEen erronka ez da *buruarentzat* edo *bihotzarentzat* komunikatzea, baizik eta *gorputz osoarekin* komunikatzea, ahal dela bere adierazkortasun guztia eta Hegoaldeko eta Iparraldeko kide guztien adierazkortasuna azalduz, baina seinalamendu eta helburu zehatzekin. Horri buruz ari naiz *gizarte komunikazioaz* hitz egiten dudanean (hemendik aurrera *hezkuntza komunikazioa* ere deituko diot)[51].

[50] Gai honi buruz ikusi Bourdieu, 1999 eta 2001.

[51] Gizarte komunikazioari hezkuntza komunikazio ere deitzen zaio Latino Amerikan, baina gai hau oso luzea izango litzateke eta gainditu egingo lituzke lan honen aukerak. Sarreratxo bat nahi izanez gero, ikusi Erro (2002). Sakontasunez aztertu nahi izanez gero, ikusi Prieto Castilloren lanak eta Parra Alvarracínen testua (2000).

### 3.3.3. Komunikatzean hezi egiten dugu

Ze zentzu dauka komunikazioaren hezkuntza izaeraz hitz egiteak eta nola ulertzen da hori GGKEetatik? Gai hau gainetik baino ez dut azalduko. Baina arlo hau kontuan izan gabe, oso zaila da gizarte komunikazioko politikarik egitea. Bi ideia adierazi nahi ditut:

- Ez dugu erabat onartzen komunikazio prozesu guztiek hezi egiten dutela (ondo edo txarto).
- Ezin da komunikazio politika koherente eta eraginkorrik ezarri GGKEen barruan komunikazioko, sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako arloen artean dagoen nahasketa argitu gabe.

Halaxe da. Komunikazioaren eta hezkuntzaren arteko harremana ez da behar besteko argitasunez ikusten GGKEetan. Zaila da GGKEentzat onartzea komunikatzean ezin direla bitartekoak eta helburuak bereizi –bitartekoek helburuek beste esan eta hezten dute–, batzuetan eta besteetan agertzen direlako GGKE bakoitzaren bihotzetik ateratzen diren elkartasun, gizaki eta gizarte ideiak. Komunikazioak agerian uzten ditu gure eragile diren baloreak eta, berez, beti hezten du. Baten batek erakutsi egin beharko die –komunikatzen dugunok izan beharko dugu– GGKEei komunikazio prozesuak ez direla kooperazioa egiteko baliabideak bakarrik, baizik eta berez, *bestea* subjektu edo objektu legez tratatzean, badabiltzala zuzenean garapena edo azpigarapena eratzen.

Komunikazio produktu horien hezkuntza balioa (erakundeen helburuak zabaltzeko ahalmena, euren ekintzen helburu diren fenomenoen sakoneko arrazoi konplexuak, Hegoaldeko gizarte eragileen kultur ezaugarriak) bigarren mailan uzteko joera dago. Praktikan komunikazioa, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza arlo desberdin gisa daude GGKEetan eta harreman gatazkatsua dute boterea eskuratzeko borrokan. Garapenerako hezkuntza bigarren mailako jarduera gisa geratu da, baina, bien bitartean, komunikazioa (erakundearen promoziorako eta baliabideak eskuratzeko jarduera gisa) lehentasunezko jardueratzat hartzen da[52].

Laburbilduz: GGKEak ez dira guztiz jabetu komunikazio prozesuek duten hezkuntza eta pedagogi balioaz. Komunikazioari beste arlo batzuetako lan pedagogikoak hedatzeko eginbeharra eman zaio (baliabide soil bat). Sentsibilizazioak edo garapenerako hezkuntzak herritartasuna komunikatzen dute, baina komunikazioak utzitako edukiak baino ez ditu komunikatzen. Itxura denez, erabat onartu da komunikazioak berez ez dituela herritartasuna, elkartasuna eta garapena eratzen edo suntsitzen. Beraz, ez da komunikazioaren hezkuntza izaera ikusten, ezta beronen izaera transbertsala ere. GGKEetan komunikazioa, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza bakoitza bere aldetik doazen arloak dira gaur egun.

[52] GGKEek ez dute komunikazio, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzaren arteko aldea zehatz mugatzen. Bat datoz honako hau esatean: komunikazioa erakundea ikustarazteaz arduratzen da eta irudiarekin eta komunikabideekin lotzen da; sentsibilizazioa garapenari, kooperazioari eta herritar aktiboak, kritikoak eta solidarioak sortzeari lotzen zaio; eta garapenerako hezkuntzaren eginbeharra hezkuntza formalean eta ez formalean dago (dena dela, arlo ez formalean gutxi egiten dela azpimarratzen dute). Erro eta Ventura, 2002.

# 4. Komunikazioa kulturaren ikuspegitik: nortasunak eratzea

Izenburua handinahikoa da, baina azken batean erakutsi nahi dena da gizarte komunikazioa kulturatik -arazo kultural gisa- aztertzeko ahalegina egiten denean eszenatoki desberdina agertzen zaigula. Zer esan nahi du GGKEen lanarentzat komunikazioa kultura eta nortasunen eremuetan erabakitzen dela? Horrek esan nahi du laguntza teknikoak eskuratu behar direla munduan gertatu diren aldaketei buruz hausnartzeko: gaur egun ziurgabetasunean murgildutako gizartea daukagu, eta pertsona, berriz, ahula, hauskorra, nortasun desberdin asko eta aldakorrak dituena da. Baina, era berean, baliabide praktikoak eskuratu behar dituzte GGKEek gizarte eta pertsona berri horrekin komunikatzeko aukera izan dezaten, esate baterako, gazteengana heldu ahal izateko.

GGKEetan komunikazioa kulturaren ikuspuntutik –arazo kultural gisa– planteatuz gero, komunikazio prozesuei zentzu antropologiko sakonetik begiratu beharko zaie[53]. Hau da, gizarte eragileen nortasuna jarri behar da eztabaidagai. Gaur egun, komunikatzeak norbere irudi eta ahotsa konkistatzea dakar, beste ahots eta irudi batzuekiko interakzio eta negoziazio prozesu dinamikoan, izan ere, prozesu horretan izateko modu dinamikoak, nortasun indibidualak eta kolektiboak eratuko dira. Zer esan nahi du horrek? Nola ikustarazi errealitate konplexu hori GGKEei?

Gaia garatzeko hiru galdera botako ditut:

- Nola aldatu da gizartea eta zer esan nahi du?
- Nolako subjektu soziala daukagu aurrean?
- Igarri eta *metabolizatu* dituzte GGKEek aldaketa hauek?

[53] Martín Barbero, 1995.

## 4.1. Gizarte ezezagun bat aurkitzea

Gaur egungo erakundeek ez dakite oso ondo nola komunikatu herritarrekin. Nola ikustarazi eta entzunarari jendeari norbere irudi eta ahotsa, sinbolo eta dei kontraesankorren oihana den errealitate honetan? Gutxitan lortzen da nahi dena, baliabide tekniko eta ekonomiko garrantzitsuak izan ezean eta kezka etiko handirik gabeko publizitatea egin ezik. Eta orduan ere arrakasta iheskorra izaten da.

Zer ari da gertatzen? Orokorrean onartu egiten da hau:

- Gizabanakoen eta gizabanakoentzako gizartean bizi gara, eta gizarte horretan, zenbait balore, esate baterako, kuriositatea, auzokoari buruzko interesa, publikoaren gaineko motibazioa eta elkartasuna itzaltzen ari dira edo, beste barik, ahaztu egin dira[54].
- Gehienek interes falta, eskuzabaltasun gutxi eta mobilizatzeko jarrera eskasa erakusten dute.

Orduan, gizartea berez insolidarioa bada, ze erru dute GGKEek ez badute herritarrak mobilizatzea lortzen? Hortik azaldu nahi dira erakunde hauek gizarteari garapenerako kooperazioa bezalako fenomenoen errealitatea transmititzeko dituzten arazoak, edo baita euren bazkide, kide edo laguntzaileak elkartasunerantz bideratzeko dituzten arazoak ere. GGKEetan gaur egun gogoeza eta eszeptizismoa dira nagusi, hain zuzen ere, ez dutelako lortzen pobrezia eta gizarte bazterkeriaren drama kontatzeko modu egokia.

Eta zer gertatzen da gazteriarekin? Betiko joan al dira gazteak GGKEetara hurbildu eta GGKEak mundua aldatzeko gurari bizi, amets eta sormenez betetzen zituzteneko urteak? Hil egin al da itxaropena? Egiten dutenean sinisteari uzteko arriskua al dute GGKEek? Zer aldatu da? Arazoa konpondu nahi badugu, utzi egin beharko diogu norbere burua zuritzeari eta beti bestearen errua dela esateari, eta kontuan hartu beharko dugu beharbada errealitatea aldatu egin dela eta guk (hain lanpetuta unean uneko premietan) ez dugula errealitate horrekin batera joaten jakin.

### 4.1.1. Lur mugikorretan komunikatzea

Orain ez daukagu ideia edo erreferentzia nagusi bat gauzak ulertzeko, arautzeko eta adierazteko, zer egin behar dugun eta zer egin behar ez dugun eta nola adierazi behar dugun esateko. Gaur egun nortasunak (indibidualak eta kolektiboak) hari hauskor eta ezegonkor baten menpe daude. Dena dela, ez gara oraindik konturatu, gizartea asko eta errotik aldatu dela oso denbora gutxian. Oraindik ere hortik zehar badabiltza absolutuaren jarraitzaileak, begi-bistakoa ukatzen saiatzen direnak: hil da dagoeneko ziurtasuna bizitzarako jarrera gisa. Orain beste paisaia bat dago eta aniztasun eta multikulturalitatez jantzita dago.

Gizartea gaur aldibereko prozesu oso konplexuen multzo gisa agertzen zaigu, eta ez ditugu erabat menperatzen prozesu horien sakonean dauden mekanismoak (arinegi mugitzen dira behar den bezala ulertzeko) eta asko kostatuko zaigu horiek kontrolatzea. Benetako lurrikara batek astintzen gaitu: lurra dar-dar dago eta lurrarekin batera gure nortasunaren bermatzaile diren zutabeak. Zer gara? Galdera hori erantzuten laguntzen ziguten oinarrizko kategoriak -espa-

[54] Vitoria Campsek (1999) indibidualtasunaren papera aztertu du gizarte eta bizi proiektuaren falta ezkutatzeko koartada gisa. Tourainek (1999) *"kontrapentsamendu bakarra"* deritzon ideia berezia aipatzen du; horren arabera, ezkerreko alderdiek disimulatu egiten dituzte euren gabeziak, hau da, ez dute gizarte proiektu berritzailerik, ezta irudimenik ere sortzeko, eta hori zuritzeko beti esaten dute gaur eguneko globalizazazioak ez duela konponbiderik.

zioa eta denbora: hemen eta orain- nahastu egin dira erabat. Espazioak, lurraldetasunak, galdu egiten du indarra egunean-egunean, distantziak laburtzen doazen heinean. Denbora, orain berehalako oraina baino ez da. Espazioa eta denbora makinen eta produzkio prozesuen neurrira daude diseinatuta, baina ez daude gizakiaren neurrirako eginda. Beldurrik gabe hitz egin genezake ziurgabetasun egoeraz eta nortasun krisiaz. Zer esan nahi du eraldaketa estrukturalak, eta nola berenganatu eta erabil dezakete GGKEek hori?

### 4.1.2. Komunikatzeko moduen eta komunikazioa jaso nahi den moduaren arteko desfasea

Orokorrean GGKEek komunikazioa egiten dute gizarte sendo eta ziur batean eta pertsona ondo orientatu batean pentsaturik, baina kontuan izan behar da dagoeneko ez dagoela ez bata ez bestea[55]. Horretan datza desfasea, eta horrexegatik beharbada komunikazioak eragingo du hainbeste frustrazio.

Sarriegi entzuten da beti batzuengana baino ez garela heltzen, hau da, dagoeneko konbentzituta daudenengana. Horretan datza arrisku handienetarikoa. Dagoeneko agortuta dagoen lengoaia eta diskurtsoa erabiltzea, norbere burua berresteko eta barrurako bakarrik erabiltzen delako, eta kanpora “Domundeko itsulapikoarekin” bakarrik irtetea, hau da, GGKEen ontasunak aldarrikatzeko bakarrik (jardueren helburu diren egoeren arrazoiak azaldu gabe), eta donazioak egiteko eta elkartasuna kontsumitzeko deia egiteko bakarrik.

Gaur egungo herritarrek aintzatespen beharrizan ikaragarria dute eta GGKEak antzinako ikuspegi instrumentalaren bitartez komunikatu nahi dira herritar horiekin, eta horrek, jakina, eragotzi egiten du gazteek GGKEetara jotea. Dagoeneko heldu da sasoia benetan planteatzeko gizarte ezegonkor eta desorientatu honetako gazteak nola bizi duen errealitatea.

Jesús Martín Barberok (2002) salatzen duenez, gaurko hezkuntza sistema kontraesanez betea dago. *Ikasleak subjektu cartesiartzat hartzen ditugu oraindik ere. Gaur gure eskola eta unibertsitateetan dagoen benetako subjektuak ez dauka zerikusirik subjektu honekin. Subjektu honek ez dauka inolaz ere subjektu cartesiarraren egonkortasuna (...). Subjektu honen auto-kontzientzia oso arazotsua da, bere nortasunaren erreferentzia ez delako bakarra, anitza baizik, eta, beraz, subjektu hau eremu, espazio, lanbide eta jokabide desberdinetatik identifikatzen delako.* Egoera honetan, nola identifikatuko da gazteria, eskola, institutu, unibertsitate... eta GGKE hauekin?

Gaur egun komunikazioaren alorrean GGKEen eta gizartearen artean dagoen desfasea saihesteko derrigorrezkoa da:

- Komunikazioa nortasunen birsortze gisa planteatzea.
- Gaur egun nortasunaz hitz egiteak nortasun gainjarri, dinamiko eta irekiez hitz egitea dakar; hau da, ez dira, antzina legez, nortasun sendo eta uniformeak.
- Arrazoirako komunikaziotik (cartesiarra eta garbia: pedagogismoa), eta *bihotzerako komunikaziotik* (sentsiblekeria eta miserablea), gizarte komunikaziora pasatzea, hau da, gorputzetik bizi den komunikaziora (zintzoa eta adierazkorra).

[55] Oraintsu egindako ikerketa batzuen arabera, Estatu Batuetako herritarren %10ek uste du Amstrongen irudiak Ilargia zapaltzen produktu zinematografikoa direla; hain zuzen ere, zientzilari batzuek zalantza piztu dute gertakariaren argazki eta filmazioak disekzionatuz.

## 4.2. Zertaz ari gara gaur nortasuna diogunean?

Zer da gaur nortasuna deritzon hori? Zerbait konplexu eta zatitua. Lehen pertsonak ziurtasunez lokalizatzeko balio zuten nortasun-ezaugarriak (maila soziala, etnia, nazioa, generoa), gaur egun denboran eta espazioan gainjarri egiten dira, eraldatu eta konplexuago bihurtzen dira. Gaur egun gizabanakoak ez daki zehaztasunez nor den, mugako eremu eta espazio asko bizi dituelako, *hibridazio* asko[56], eta den-denak oso dinamikoak. Beste era batera esanda: gaur gizabanakoek –gazteriak, bazkideak, diru-emaileak, edo dena batera diren horiek– ez dakite oso ondo nortzuk diren eta gurekin batera bilatzen hasteko gogoa dute. Baina hauxe da sortzen den galdera: eskaintzen diete GGKEek komunikazio esparru egokia hori egiteko?

### 4.2.1. Komunikazio denbora, espazio eta estilo gizatiarrak bilatzea

Arazoa hauxe da: gertatzen ari dena onartzea eta ulertzea eragozten digun *denboraren tiraniaren*[57] aurrean, aintzatespen beharrizan horren aurrean, GGKEek zer eskaintzen dute?, komunikazio estilo, denbora eta espazio gizatiarrak edo, alderantziz, bat egiten dute edozein preziotan lortu beharreko eraginkortasunarekin?:

- Zertaz hitz egiten dute GGKEek, gizakiez edo giza baliabideez?;
- GGKEek benetan gizaki egin eta askatzen gaituzten espazio eta denborak erabiltzen dituzte?[58];
- GGKEek kontuan hartzen dute pertsona eta prozesuen aintzatespena?, besteari lagun egiteko denbora eta espazioak eratzen dituzte?, edo printzipio horiek diskurtsoan bakarrik sartu dituzte?

GGKEek komunikazioaren ikuspegitik neurtu behar dute presentziaren berotasuna lantzen ari diren, hau da, behar den lekuan dauden, gizakiaren neurrira pentsatutako espazio eta erritmoak sortzen dituzten (bilatzen duten garapenarekin), edo giza presentzia konkretua, aurrez aurrekoa, bestearekiko topaketa baloratuak izan ez daitezen bultzatzen ari diren. Izan ere, gure neurrira diseinatutako espazio eta denboretan eratzen ditugu gure nortasunak, eta hori funtsezkoa da gaur egun, gure ezaugarriak inoiz baino nahasiago dauden sasoi honetan. Beti prozesuan dagoen nortasuna da (subjektuak legez), etengabe eratzen ari den, amaitu gabekoa, eta aldi berean nortasun askoz osatua (Hegoaldeko herritarra, etnia batekoa, emakumea, ama, nekazaria, etab.) eta arlo askori atxikia (gizona, gaztea, Hegoaldekoa, etnia batekoa, nekazari jatorrikoa, ikaslea, masa kulturaren partaidea, elite globalizatuekin eta teknologia berriekin harremana izan dezakeena, etab.).

Komunikazio estiloen (instrumentalak), antolaketa estiloen eta gestio estiloen (baliabideen homogeneotasunarekin, esate baterako marko logikoarena) uniformetasuna nagusitu egiten denean, GGKEek planteatu egin beharko lukete espazio administratibo (hau da, *ez leku*[59] horiek) bihurtzetik hurbilago dauden, edo topaketa espazio (*leku antropologikoak*[60]) bihurtzetik hurbilago dauden. Eta planteatu egin behar dute gizarte harremanak ulertzeko modu horrek ez ote duen izango zerikusirik GGKEek gizartearekin komunikatzeko dituzten zailtasunekin eta, batez ere, gazteria eta boluntarioak erakartzeko zailtasunekin.

[56] Honi buruz ikusi García Canclini (1990 eta 1999), Ortiz (1998) eta De Certeau (1999).

[57] Aranguren Gonzalo 2002:13.

[58] Aranguren Gonzalo, 2002:23.

[59] *Ez leku* horiek, Augéren arabera (1997), desberdintasunekin zer egin ez dakien eta desberdintasunok menperatu nahi dituen gizarte globalean uniformizatzen gaituzten espazioak dira. Esate baterako, merkataritza gune handiak, janari-denda kateak, etab. Gizarte globalaren erritmo produktibo eta komertzialetarako sortu diren espazioak dira, eta berauotan oso ondo moldatzen dira Iparraldeko edo Hegoaldeko elite globalizatuak. Hain zuzen ere, oso zabalduta dago *aireportuko elkarrizketa* terminoa topaketa azkar, azaleko eta *eraginkorra* adierazteko: bi exekutiboren artean aireportuko itxarongelan adostutako topaketari deritzo; topaketa, gainera, beti bukatzen da honela: *ados, egongo gara,* eta, jakina, elkarri eskua ematen diote.

[60] Aranguren Gonzaloren (2002) terminoa *ez leku* terminoari kontrajartzeko.

Bi esperientzia aipatu nahi ditut. Lehenengoa GGKE batean lan egiten duen gizarte komunikatzaile batek esandako esaldi xume baina paradoxikoa da: *pentsatu eta landu dezagun komunikazioa hemendik kanpora, izan ere, GGKEetan hainbeste gauza daukagu egiteko ze, ezin da lanik egin*. Etengabeko ihes egite horren (premiazkoak irentsi egiten du garrantzizkoa) arrazoia beharbada bigarren esperientzia honek argituko digu. Duela ez hainbeste, garapenerako komunikazio eta kooperazio ikastaro batean, ikasleei euren jatorriari buruzko berezitasunez galdetu nien. Topaketa horien gaia aipatutako hori izan arren, 17 lagunetik 2 baino ez ziren garapenerako GKEetakoak; besteak (oso gazteak gehienak), gizarte organizazioetakoak, unibertsitate mugimenduetakoak, RCADEkoak, etab. ziren[61]. Garapenerako kooperazio eta laguntza erakundeak nola ikusten zituzten galdetu nienean, erantzunak oso antzekoak izan ziren: arrazakeria, pobrezia, kanpo zorra edo auzoko arazoei aurre egiteko erakundeetan gazteek askoz identifikatuago ikusten dute beren burua prozesu administratiboetan murgildutako GGKEetan baino. *Zertarako joango naiz GGKE batera, nagoen mugimenduan askoz gehiago ikasten badut eta osoago hazten banaiz pertsona gisa?*, galdetzen diote beren buruari eta galdetzen digute.

GGKEek oztopo asko aurkitzen dituzte boluntarioei laguntzeko (entzuteko eta atzeraelikatzeko -euren bitartez hitz egiten du gizarteak-, hazten laguntzeko eta gai hauetan prestatzeko euren berezko erritmoan, benetako parte hartzean inplikatzeko), edo kooperanteak prestatzeko (denek jotzen dute hori funtsezkotzat), hain zuzen ere, dinamika batzuetan sartu direlako eta ez dakitelako zelan irten eta dinamika horiek lan egiteko erritmo ez gizatiarrak ezartzen dituztelako. Aranguren Gonzalok gogorarazten digunez, gaur egun nortasunak eratzeko beharrezkoa da *erromesaren abiadura: hau da, gizabanakoak bilatu egiten du, ingurua aztertu, gelditu, lasai begiratu eta isildu* (2002:14). Beharbada horretan datza Donejakue Bidearen garrantzia. Bide hori egitearen esperientzia mugarri bilakatzen da pertsona baten bizitzan, eta ez ditu gauzak berdin ikusten esperientzia horren aurretik eta esperientzia horren ondoren, izan ere, nortasuna eratzen du horrek: gizakiaren neurrira egindako bidaian geure burua ezagutuz goaz. Zergatik ez da gauza bera gertatzen kooperanteekin?, izan ere, kooperante batzuk Hegoaldeko herrietatik *pasatzen dira*, baina Hegoaldeko herriak ez dira *eurengandik pasatzen*[62].

### 4.2.2. Ez dago gizartearen transformaziorik benetako inplikazio barik: komunikatzea elkartasuna transmititzeko

Duela gutxira arte Maslow-ren (1970) sailkapen ospetsuaz hitz egiten genuen (gizabanakoak elkarrekin harremanak izatera bultzatzen dituzten beharrizanak hierarkizatzen ditu sailkapen horretan). Azaltzen digunez, jendea beharrizanak asetzeko elkartzen da; esate baterako beharrizan fisikoak (emigranteak elikatzeko, babesa bilatzeko eta bizirik irauteko irteten du bere herrialdetik), sozialak (seme-alabek ikasteko aukerak izan dezaten), komunitarioak (kolektibitate bateko partaide sentitzeko) edo espiritualak (sinismen askatasunaz gozatzeko). Baina Maslow-ren sailkapenak ez dauka dagoeneko mundu guztiaren onarpena. Gaur egun badakigu beharrizan horiek aldatu egiten direla gizabanako bakoitzaren abiapuntuko kulturaren arabera. Orain ez da erraza lehen bezala jakitea zergatik pertsonek jotzen duten GGKEetara. Beharbada horrexegatik aztertu beharko dugu gaia berriro. Ikuspegi psikosozialetik Carlos Marín Beristainek (1999:136) argibide batzuk ematen dizkigu. Ondoko arrazoiak aipatzen ditu:

[61] Ikastaroa *Instituto de Promoción de Estudios Sociales*-en (IPES), Iruña, 2002ko azaroa.

[62] Kooperanteek dituzten egokitzapen arazorik gehienek GGKEetan nagusi diren erritmoekin dute zerikusia. Beste errealitate batzuetara lekualdatutako pertsonek ez dute denbora nahikorik prozesuak eratu eta berenganatzeko, ez direlako berezko erritmoekin eratzen. Hori dela eta, sarritan errealitate gogorrari egin behar izaten diote aurre, edo itzultzean beti erantzun bat ematen dute: *hangoa ikusi egin behar da, ez nuen uste halakoa izango zenik*. Baina hori bezain arazo larria ere badago, GGKEetako bizitza erritmoekin zerikusia duena hau ere: gero eta sarriago agertzen ari dira estres kasuak eta famili desegituraketa kasuak GGKEetan lan egiten dutenen artean, batez ere, erantzukizun handiko postuetan daudenen artean. Errepikatu egiten al dira merkataritza enpresetako eskemak?, zer diosku horrek?, GGKEetan ere, teorian aurre egiten dieten baloreak bultzatzen al dira, horrela, estresa duten 40 milioi europarren kopurua mantentzen lagunduz (2002ko datuak)?

| Iparraldeko GGKEetako boluntarioen arrazoiak |
|---|
| • **Idealismoa.** Erakundearen balore eta sinismenekin bat egitea.<br>• **Taldera lotzea.** Gizartean onartua izatea edo erreferentzia talde bat izatea.<br>• **Esperientzia bat izatea.** Kezka intelektuala, ikasteko interesa.<br>• **Etekin profesionala.** Lana lortzeko aukera edo promozio profesionala egiteko.<br>• **Oreka.** Egoera pertsonal zailak edo errudun sentitzea.<br>• **Ihesa.** Mehatxuzko errealitatetik ihes egitea.<br>• **Konpromiso politikoa.** Bizitzeko baldintza sozialak aldatzeko borroka politikoa.<br>• **Bizitza zentzua edo norbere irudia hobetzea.** Bizi espazioa betetzea (dena utzi eta beste leku batera emigratzea). |

Luis Aranguren Gonzalok (1998:61) desberdindu egiten ditu, batetik, bokaziozko boluntarioak, *posmodernoak,* non autoerrealizazio pertsonala nagusi den, eta, bestetik, boluntario *disidenteak,* helburutzat transformazio soziala dutenak.

| Elkartasun posmodernoaren kultura | Elkartasun disidentearen kultura |
|---|---|
| Erlijio zibila | Balio etiko eskuragarria |
| Inmediatista | Epe luzera |
| Ongizatearen etika | Gizarte justiziaren etika |
| Indibidualismoa | Gizarte zibilaren mobilizazioa |
| Desmoralizazioa | Moral altua |
| Arrazoi zatikatua | Arrazoi behartua |
| **Boluntario posmodernoak** | **Boluntario disidenteak** |
| Akritikoa | Kritikoa |
| Interes orokorra | Gizarte ekintza |
| Lanaldiaren zati bateko dedikazioa | Lanaldiaren zati bateko dedikazioa, oso-osoan inplikatua |
| Helburutzat autoerrealizazioa | Helburutzat transformazio soziala |
| Estetizista | Eraginkorra |

Kategoria horiek gorabehera, GGKE guztiek kontuan izan behar dutena hauxe da: pertsonak, batez ere gazteria, ez dela lehengo arrazoiengatik hurbiltzen GGKEetara, arrazoiak asko aldatu direla. Eta hori kontuan izan behar da. Orain beste gauza batzuk dira erabakigarriak, esate baterako: aintzat hartzeko adierazpen desberdinak, aurrez aurreko harre-

manak bilatzea, pertsona gisa aurkitzeko eta hazteko aukera emango duen komunikazioa, etab. Gero eta sarriago entzuten dira honelakoak: *ni ez naiz GGKE batera fabrika baten legez lan egiteko etorri*, eta benetan ere kontuan hartzekoa da hori. Beti izan dira garrantzitsuak aintzatespen faktoreak, baina gaur egun, beharbada, garrantzitsuagoak izango dira. Elkartasunaren kultura posmodernotik gizarte praktika disidenteetara jo nahi izanez gero, zatikatze horretatik abiatuta nortasunak eratzeari eman behar zaio garrantzia. Horrela baino ezin izango da oso-osorik inplikatu eta, beraz, sakoneko gizarte transformazioari ekin.

## 4.3. Kultura herrikoi eta masiboan alderdi gizatiarrak aztertzea

Martín Barberok (2002) haserrez azaltzen digu zein modu kontraesankorrean jokatzen dugun gazteriarekin. Norberekoiak direla, gogogabeziak jota daudela eta ez dutela gizartearekiko interesik esaten dugu. Beren buruei kargu hartzeko eskatzen diegu, eta hori guztiori norantz doan ez dakien gizarte batean eta, gainera, etorkizun laboral, profesional eta morala ukatzen dien gizartean -geuk egindakoa-. Eta galdera hau egiten du: ba al du gizarteak eskubiderik gazteriari egonkortasuna eskatzeko, kontuan izanda, erakunde moderno handietarik, esate baterako, politikak, lanak edo eskolak, batek ere ez duenean egonkortasunik?

Aipatutako hiru erakundeoi *gorputzak enbarazu egiten die eta emozioek arazoak sortarazten dizkie*, eta erakundeok ez dira gai gorpuzdun subjektua, oso emozionala, hau da, gaztea den bezalakoa, onartzeko. Hori dela eta, subjektu hori ez da eskolan garatzen, ezpada lagun taldean, *ghettoan*, sektan edo drogan; edo, beharbada, gazteak zalantzak izan ditzake GGKEetara jotzeko, batez ere, gizarte eragile biziago eta sentiberagoak topatzen baditu, esate baterako, beste globalizazio baten aldeko gizarte mugimenduak. Gauzak kontatzen diren moduan ez direlako susmoa dauka gazteriak, eta nolabait *uko egiten dio gizarteari eta babesa bilatzen du tribuan. Milioika gazte batzen da mundu osoan, hitz egin gabe, musika entzuteko, batera egoteko. Gorputzen bitartez hitz eginez*. Hau da, komunikatuz[63].

### 4.3.1. Komunikazio prozesu adierazkor, alai eta atseginak dituzten erakundeak

GGKEetan lan erritmo zoroak egoteaz gain, GGKEak espazio aspergarriak al dira?, hau da, kultura administratiboak adierazkortasuna itzali eta baztertu egiten duen espazioak al dira? Esperientzietara joko dut berriro ere.

Deigarriak egin zaizkit beti GGKEek sarritan zabaltzen dituzten Hegoaldeko herrietako umeen irudiak, begirada triste eta galduekin, beti serio. Horiek al dira gure auzokoen seme-alaben aurpegiak, Hegoaldeko herrietako kaleetatik gabiltzanean ikusten ditugun begiak? Hegoaldeko herrietako lagunak datozenean, beti galdetzen diet zer iruditzen zaien hasiera baten gure errealitatea. Erantzunak antzekoak izaten dira: *oso barre gutxi egiten duzue, ze serioak zareten, ze ume tristeak ikusten diren kaleetatik!* Badirudi gure etika puritanoak (edozein gozamenen aurrean susmoa erro-errotik sartu diguna), eta nola edo hala eraginkortasuna deritzoguna bilatzen ibiltze horrek ezabatu egin digu irribarrea aurpegitik, eta, beharbada, arimatik ere bai.

Duela gutxi berretsi dut ideia hori. Ikasle talde bat giza laguntzaren egoerari buruz ari zen eztabaidatzen eta partaideetako batek gogoeta hau egin zuen: *Gozatu egin behar da ekintza humanitarioarekin. Gozatzea hemen zertarako gauden galdetzea delako*. Jatorri apaleko pertsona batek esan zuen hori, eta, jakina, Hegoaldeko herri batekoa zen[64].

[63] Kultura masiboaren gaiari, eta ikus-entzunezkoen eta telebistaren fikzioari buruz ikusi Martín-Barbero eta Rey (1999).

[64] Yeny Villaba. Maestría de Ayuda Humanitaria. Módulo de antropología y comunicación aplicada a las intervenciones. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao.

Komunikatzaile gisa, nire ustez badaukagu zer pentsatu (modu positiboan) zenbait telebista programaren arrakastari buruz: programa horietan gazteek eta ez hain gazteek -herritar arruntaren ordezkariak beti ere- naturaltasun osoz kontatzen dituzte beren eguneroko ohiturak edo ohitura sexualak. Eguneroko lengoaia erabiltzen dute, kalekoa, janzkeraz ere baliatzen dira eta, batez ere, mugimenduaz eta dantzaz. Gorputz guztiarekin hitz egiten dute eta batez ere entzunak eta aintzat hartuak izatea bilatzen dute. Martín Barberok denbora asko eskaini dio melodrama aztertzeari Latinoamerikako berezko adierazpide herrikoi gisa. Beste autore ospetsu batek, Monsivaisek, gai berari ekiten dio. Eta beste komunikatzaile batek -mexikarra hau ere- kezka hori adierazpide komunikatibo eta politiko bilakatzen jakin izan du. EZLNko Markos Subkomandante ospetsuaz ari naiz[65].

Zer esan nahi du gorputz osoarekin komunikatzeak? GGKEetan diseinatu eta garatu beharreko komunikazio politika, estrategia eta egiturek ondoko ideia nagusi hau hartu beharko luketela:

- Gizarte komunikazioa egitea, hau da, topaketa eta aintzatespen denbora eta espazioak sortzea, bertara hurbiltzen diren ahots guztiek, adierazpide guztiek, azalpen guztiek eta begirada guztiek izan dezaten lekua.

Errealitatea estrukturalki eraldatu nahi duten GGKEek badirudi derrigorrez bete behar dutela hau:

- Albo batera uztea bihotzari begira bakarrik egindako komunikazioa (sensiblekeriaz betea eta miserablea), izan ere, sarriegi egiten da; eta horren ordez gizarte komunikazio zintzo eta adierazkorra egiten hastea, gorputzari mintzatzen utziko diona eta sormenarekin eta gizarte partaidetzarekin zaletuko dena.
- Ez erortzea antzinako pedagogismoan, izan ere, sermoiaren zentzu zantarrarekin dago lotuta, eta beharbada baita isolamenduarekin, megalomaniarekin edo erresumin sozialarekin.

Ahalegin hori eginez gero, kultura herrikoi masiboari beste ikuspuntu batetik begiratu behar zaio (gustatu edo ez gustatu bertan daudelako jendearen eta, batez ere, gazteriaren topalekuak), eta *birpolitizatu* egin behar da, beronen sustrai ekonomiko eta politikoak seinalatuz[66]. Sampedroren hitzak erabiliz, *sozializatu egin behar da politika instituzionala eta politizatu ez bakarrik informazioa, ezpada baita kultura herrikoi mediatikoa ere (...). Irudimen handia, inteligentzia kolektiboa eta gozatzeko gogoa izan beharko dira kontra-kultura herrikoi berria eratzeko eta dekodifikazio kritiko sozializatzaileari ekiteko* (2002).

---

[65] Martín Barbero (1987), Monsivais (1988). Dagoeneko EZLNren komunikazio modua mugarri bilakatu da arlo honetan. Kultura herrikoiaren gaiari buruz, ikusi Zubieta (2000).

[66] Proiektu moderno baten oinordeko gisa, GGKEek hemen dute erronka nagusia. Gure kulturak beti izan ditu arazoak bestea onartzeko, bizitza ziurtasunik gabekoa dela onartzeko. Mendebaldeko pentsamenduak eta proiektu modernoak *arrazoi garbiaren* aldeko apustua egin zuten eta albo batera uzten dute enbarazu egiten duen guztia edo baztertu egiten dituzte ñabardura *arraroak.* Gure nortasunak (indibidualak eta kolektiboak) estatikoak zirela pentsatu genuen, eta ideia-mundu bat eratu genuen, bertan errealitatea sartzeko asmoz. Nortasun esentzialista hori itsututa dago aniztasuna unitatean sartu nahian, eta arazo asko ditu bestea onartzeko. Hortik sortu ziren bi oztopo handi: errealitatearen dinamismoaren eta ziurgabetasuna jasateko gaitasun faltaren arteko tentsioa (horrexegatik tematzen gara dena planifikatuta izateko eta arazoak ditugu prozesuak, ibilbideak, erritmo naturalak eta mugako espazioetan bizitzea onartzeko) eta bestea onartzeko ditugun arazoak (bestea *ni*-an oinarrituta eratzen dugu edo baztertu egiten dugu kanpokoa edo arrotza balitz legez). Baina ideien mundu horrek zerikusi gutxi dauka gaur errealitatearekin.

Gaia oso garrantzitsua da, izan ere, Lechnerrek adierazi duenez, etorkizuna gaur egun besteari diogun beldurrean erabakitzen da. *Beldurren norbereganatze autoritarioa* gertatzeko arriskuak (1999:94) gogorarazten digunez, etorkizuneko proiektu politikoan (demokrazia suntsitzea edo birrasmatzea), onartu egin beharko dugu ziurtasunak galtzen ari diren testuinguru honetan bestearekiko beldurrak itzelezko aukera politikoak eskaintzen dituela. Antzinako beldurrek (orain berrizturik) *kapital politiko* garrantzitsua osatzen dute. *Autoritarismoak beldurrei aurre egiteko bereganatu egiten ditu beldurrok... gizarteak boterearengandik datorkion beldurra hartzen duenean, dagoeneko ez da beharrezkoa inor engainatzea... nahikoa du beldurrak landu eta erabiltzearekin. Hau da, somatutako beldurrak demonizatu egiten dira horrela aseezinak izan daitezen* (Lechner, 1999: 95). Nor ari da beldurra bereganatzen, proiektu politiko eraldatzaile eta gizatiarra edo Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desoreka defendatzen duen proiektua eta behar duenean gerrara joteko zalantzarik ez duena? *Segurtasuna* elkartasunaren aurretik dago gaur, eta *arrotza susmagarri bilakatu da* (A.Gonzalo 2002:15), elkartasuna atzean utziz.

# 5. Gizarte komunikazioa proiektu politiko gisa: hiritar kritiko, arduratsu eta autonomoak sortzen

Atal honetan, komunikatzaileei eskaini nahi diet orientazioa, GGKEetan bertan arlo politikoaren eta komunikatzeko lanaren artean dauden loturak bideratzeko orduan. Benetako gizarte komunikazioa lortzeko, GGKEek euren jarrera aldatu eta proiektu politikoa izan behar dutela adierazi nahi diet. Hori dela eta, *litekeen beste mundu baten* eraikuntza kolektiboaren aldeko apustua egin behar dute inolako zalantzarik gabe. Era berean, politika bera asmatu behar dute berriro, eta horretarako, kritikoak, autonomiadunak eta arduratsuak diren hiritarrak sortu behar dituzte. Hori lortzeko, zenbait mito utzi beharko dituzte alde batera; esate baterako, apolitizismoa. Lobbyingetik eta erakundeen politikatik haratago joan beharko dira, eta GGKEen eta gizarte mugimenduen artean dagoen hutsunea bete beharko dute.

Gaiak hiru zutabe ditu oinarri:

- Politika interpretatzeko orduan, GGKEek erabiltzen duten ohiko ikuspegia: apolitismoa.
- Politikara hurbiltzeko, erabiltzen hasi diren moduak: erakundeen politika.
- Erresistentzia globaleko mugimenduen adibidea, arlo politikoa gainditu eta berreraikitzen dutelako, eta sareko komunikazioa eta lana modu berritzailean erabiltzen dituztelako.

### 5.1. Apolitikoak?: mito baten errentagarritasuna eta morrontzak

Erakunde horiek independenteak izateko orduan, GGKEen garapenerako laguntza eta lankidetzako gizarte jarduerei zentzua ematen dien proiektu politikorik ez egotea ote da lehenengo mehatxua? Kontraesana badirudi ere, erreferen-

tzia esparru makrorik ez badute, GGKEek zenbait arrisku izan ahal dituzte, finantziazio iturriei men egin beharko dietelako (publikoei edo pribatuei), nora ezean ibiliko direlako mugimenduen zurrunbiloan murgilduta edo mikroaren giza berotasunean desitxuratu eta kontsumituko direlako bidegabeak diren gizarte egiturak ukitu gabe.

Jakin badakigu GGKEek ahalmen handia dutena, proiektu politiko kolektiboaren eraikuntza bete-betean sustatzeko orduan. Izan ere, elkartasun laborategiak[67] dira (errealitate eta premia zehatzak dituzte abiaburu, behetik gora mugitzen dira eta aurrez aurre jarduten dute). Horrez gain, gizarte mugimenduen bokazioa daramate euren izaeran (gaur egun, lotan badago ere). Dena dela, proiektu hori sortzeko bidean, oztopo ezin handiagoa agertzen da: GGKEen euren jarrera, oraindik ere epe laburrera errentagarriak eta epe ertainera hilgarriak diren topikoak dituztela elikagai; esate baterako, *apolitizismoa, neutraltasuna, independentzia…*[68]

Ikusi dugunez, GGKEek hizkuntza zalantzagarria, orokorra eta partitua erabiltzen dute, euren ezaugarriak agerian ez uzteko. Gizarteak ezagutuko ote dituen beldur dira, euren mesedeak galdu ahal dituztelako, ekonomikoak, batez ere. Hona hemen galdera: zergatik da hain zalantzagarria euren diskurtsoa? Hiritarren adin nagusitasunak mesfidantza sortzen dietelako, agian?

Beharbada, maila politikoaren ikuspegiak GGKEak kutsatu ditu. Izan ere, aspaldidanik, maila politikoak ez du sinesten ez hiritarretan ez hezkuntzan eta, orduz geroztik, azaleko limurkeriaren alde egiten du irudiaren bidez[69]. Dena dela, oso erabaki arriskutsua da, hiritarrei adingabeak balira bezala hitz egiten badiete, erakundeek eurek ospea galtzen dutelako.

Hala ere, badago beste aukerarik: zintzoak izan jendaurrean. Ikuspegia berritu, gizarte osoari, hiritarrei, gatazkei beste modu batera, baikortasunez begiratzen hasi. Pertsonen konfiantza berreskuratu behar dute, jendearen senaren alde egin behar dute, hedabideetan[70] zehar hedatutako hutsalkeriaren eragin kutsagarri bezain iragankorraren alde egin beharrean. Horra hor merkatuaren araberako komunikazio instrumentalaren alde edo gizarte komunikazio ireki bezain hezgarriaren alde egitearen oinarria eta emaitza.

### 5.1.1. Zeri deitzen diote GGKEek politika?

Oro har, GGKEek berehala egiten diote muzin politikari (*apolitizismoaren, neutraltasunaren eta independentziaren* izenean), egia esan, politikatik bertatik bizi direnean. *Politikaren* (hiritarren jarduera, gizalegezkoagoa den gizartearen bila) eta *alderdikeriaren* (alderdi politiko baten ingurune ideologikoan murgildu) artean nahita bilatutako nahasmenaren ondorioz, legezkotasun osoa dute gizartearen aurrean, neutraltasunaren mitoari esker. Nolanahi ere, arazo larria ere sortzen da: *berriro politizatzeko* beharrezko prozesuari ixten dizkiote ateak. Politikan sartzen ez badira, sistemak berak GGKEak irentsiko ditu eta hondar-eragile bihurtuko dira, merkatuak edo gobernuek agintzen dieten lekura baino ez dituztelako baliabideak eramango eta zerbitzu teknikoak emango. Horrez gain, erakunde eskizofrenikoak izango dira, eta euren diskurtsoa askatzailea bada ere, jarduerak ez dira ezertxo ere aldatuko.

[67] Gai honi buruz ikusi García Roca (1998) (2001).

[68] *Nola komunikatzen dira gizarte mugimenduak gizartearekin?* izenburupean, *Komunikaziorako eta garapenerako kooperaziorako baliabideak* proiektuaren bigarren lan mintegian, (Hegoa, 2002ko urriaren 14a), irabazi asmorik gabeko erakundeen kexa bat azaldu zen: komunikabideek zergatik ez dituzte GGKEen informazioak politika edo nazioarteko ataletan ateratzen, gizarteko atalean edo orri orokorretan atera beharrean? Orduan frogatu zen GGKEen jarrera kontraesankorra: egiten duten lana politikotzat onartzea eskatzen dute, baina euren diskurtsoaren arabera *apolitikoak* edota *antipolitikoak* dira.

[69] Esate baterako, politikoek dagoeneko ez dituzte soziologoak behar errealitatea ezagutzeko (ez zaie askorik interesatzen). Orain irudi aholkulariak dituzte, badakitelako telebistaren bitartez irabazten direla hauteskundeak (gizartearen zati gero eta handiago bat kanpoan geratzen bada ere, ez dira kezkatzen, boterea baino ez dutelako bilatzen). Soziologoei hauteskunde inkestak baino ez dizkiete eskatzen (irudia eta diskurtsoa aldatu eta egokitzeko).

[70] Gai honi buruz ikusi J.Erro: *"¿Comunicarse para qué? La comunicación como desarrollo: una mirada desde la cultura"*. Udako ikastaroa "La publicidad y su función social: las campañas de sensibilización", Universidad Jaume I. Benicasim, Castelló, 2002-7-3.

Politikara itzuli, politika krisian dagoenean, politika administrazio bihurtu denean eta maila politikoak merezita lortu duenean guztion apatia edo arbuioa? Politikaren edo sistema politikoaren amaiera bizi dugu? Sistema politikoak gizartearen eta gobernuaren artean ezartzen diren harreman guztiak ditu osagai (ordezkatzeko, parte hartzeko eta arduratzeko erakunde loturak). Hori dela eta, arlo politikoa (egiturak, erakundeak eta botere-tresnak) eta politika bera (zabalagoa da: erabakiak hartzeko orduan zeresana duten hiritarren eta taldeen jarduerak) bereiztu behar dira. Gogoko izan nahiz ez izan, GGKEek berez parte hartzen dute arlo politikoan, tresna politikoak direlako (nazioarteko oso sistema zehatzaren alabak). Era berean, politikan bertan ere parte hartzen dute, funtsean politikoak diren helburuen atzetik doazelako.

Sortzeko, hazteko eta legezko izateko orduan, GGKEak garapenerako lankidetza sistemara egon dira lotuta, eta garapenerako lankidetza hori mendebaldeko sistemaren giltzarri politikoa zen. Gaur egun, gerra hotzik ez dagoenean eta garapenerako lankidetza krisian dagoenean, GGKEak txandako gobernuen edo nazioarteko agentzien interesek kontrolatutako eta interes horietara egokitutako finantziazio publikoaren menpe daude, arlo ekonomikoari begira. Oro har, GGKEek euren finantziazio iturrien kultura, politika eta ekonomia arloko joerei egiten diete men, eta egia esan, kontrol ekonomikoa dutenez, iturri horiek erabakitzen dute zein eremutan jardun, nolako proiektuak garatu eta nolako metodoak erabili -esparru logikoaren familia-.

Euren independentzia kolokan dago, batez ere, garapenerako lankidetzako egitasmoak eta proiektuak finantzatzeko etekinen eta ospearen bilaketa euren arlo guztietan nagusi denean (garapenerako komunikazio eta hezkuntza politikak barne). Hau da, GGKEek ez dituzte nahi dituzten proiektuak betearazten, ahal dituztenak baino. Horrez gain, beste batzuek esaten dieten moduan betearazi behar dituzte, negoziatzeko aukera oso eskasa delako. Hortik aurrera, sortutako harreman prozesu guztian (esate baterako, emailearen eta hartzailearen arteko loturak), izaera politiko argia duten osagaien, arauen era subjektibotasunen lasta astuna da nagusi. Izan ere, politikoak dira (makroekonomikoak, geoestrategikoak) nazioarteko agentziek eta gobernuek gero eta modu zorrotzagoan inposatzen dituzten irizpideak. Nazioarteko agentziek eta gobernuek laguntza eta lankidetza jasotzen duten herrialdeei eta sektoreei eskatzen dizkieten *baldintza* ospetsuak bete-betean daude murgilduta arlo politikoan, giza eskubideak, demokrazia eta gobernu egokia errespetatzeko eskatzen zaie eta. Hori dela eta, gaur egun, garapenari berari barik, txirotasunari ematen zaio lehentasuna; eta garapenerako lankidetzari barik, laguntza humanitariorako premiazko ekintzei; eta orain, terrorismoaren aurkako borroka orokorrari.

Izan ere, gero eta zailagoa da bereiztea -Kosovoko gerratik bertatik egiaztatu denez- zer den laguntza humanitarioa eta ekintza militarra[71]. Gurutze Gorriak Hondamendiei buruz Urtero egiten duen Txostenean (2001), irtenbide tekniko moduan aurkeztutako laguntza humanitarioaren neutraltasuna, independentzia eta inpartzialtasuna mitoak baino ez direla argi eta garbi azaldu bazen ere, oraintxe bertan egin du eztanda, AEBek terrorismoaren aurkako gerra berezian Afganistanen eta Iraken erakutsi duten jarreraren ondorioz. Munduko Gaietarako Estatu Batuetako Estatu idazkariordea den Dobrianskyren esanetan, laguntza humanitarioa eta terrorismoaren aurkako borroka esku-eskutik doaz, *errukia bera Bush presidentearen kanpoko politikaren osagaia delako. Izan ere, AEBek betidanik jakin izan dute munduan ongia izan behar dela nagusi, mundua gaizkitik askatzekotan*[72]. Egia esan, Estatu Batuetako administrazioa aurrekaririk gabeko politika hori hasi da ezartzen, 6,6 milioi dolarreko aurrekontua eskaini dielako GGKEei. Diru hori lortzeko, -

[71] Kosovoko gerran, NATO gerra-egilea zen eta, horretaz gainera, errefuxiatuen kanpamenduen koordinazioan zegoen. *Aurka egin behar zaio ekintza militarraren eta laguntza humanitarioaren arteko nahasmenari*, esan zuen R.Vila-San Juan Mugarik Gabeko Medikuak elkartearen idazkariak, El País, 23-12-2001,36. Bestetik, Espainiako ejerzitoaren propaganda laguntza humanitarioan oinarritzen da. Ikertzeko dago ze garrantzia izan duen publizitate mota horrek ejerzitoen legitimazioan, kontuan hartuta aurreko hamarkadetan piztu zen bake kultura eta kontzientzia eragozpenaren aldeko mugimendua.

[72] P.Dobriansky, *"La ayuda humanitaria y la lucha contra el terrorismo van de la mano"*, El País, 2001-11-7, 12.

adi- Estatu Batuetako gudarosteek Iraki erasotzen diotenean, sortuko den krisi humanitarioari aurre egiteko eta kudeatzeko proiektu ezin hobea aurkeztu beharko dute[73].

Historiara jo behar dugu, GGKEek *apolitizitatea* zergatik gurtzen duten azaltzeko:

- Euren ibilbidean zehar, GGKEek egiaztatu egin dute gizartea aldatu egin dela eta antzinako ikuspegi ideologikoak auzitan jarri dituela. Era berean, gizarteak alde batera utzi ditu sinesmen erlijioso konfesionalak eta kidetza politikoak. Beraz, gizartearen onespena izaten jarraitzeko, GGKEek euren jatorrizko aztarnak ezkutatu edo ezabatu dituzte. Nola egin dute? Oso-oso hizkuntza zalantzagarria erabilita. Horri esker, *statu quo*-arekin eta sistemaren aurkako ahotsekin jokatu ahal dute aldi berean, eta ahots horiek euren kontraesanetatik babesten dituzte GGKEak. Nolanahi ere, hizkuntzaren pantailak -politika hitzaren anbibalentziarekin jokatzen du, elkartasunarekin, garapenarekin edo lankidetzarekin egiten duen bezala- oztopoak jartzen dizkio gizarteari, GGKEak irmotasunez ezagutu eta bereizteko orduan.

- Gizarteak heroi berritzat hartu zituenean (elkartasunaren eztanda, 80ko eta 90eko hamarkadetan), politikaren eta alderdi politikoen irudia oso hondatuta zegoen gizartean. Aurkezteko orduan, heroi berriek jendearen gogokoa zen *politikaren aurkako* jarrera izan zuten babes, euren errealitatearekin bat ez bazetorren ere. Hori dela eta, maila politikoak GGKEei aurpegiratzen die *legezkotasuna eskuratu nahi dutela politikaren aurkako jarreratik*. Izan ere, *oso bestelakoa da GGKEak erakunde politikoak eta alderdikariak ez direla esatea eta politikaren aurka daudela adieraztea. Arriskutsua da erabat*[74].

### 5.1.2. Politikoak, beti; alderdikariak, batzuetan

GGKE guztiak politikoak eta alderdikariak ez direla esan dezakegu? Bitxia bada ere, jendeari helarazitako eta, seguruenik, GGKEek eurek barneratutako *apolitizitatearen* ilusioak berak ere babesten omen ditu beste erakunde ideologiko edo politiko batzuekin ageriko loturak eta lotura ezagunak edo ez hain ezagunak dituzten erakundeak. Gainera, uste baino gehiago dira.

GGKE batzuk alderdi politiko baten edo bilbadura ideologikoa edo erlijiosoa duten beste erakunde batzuen ekintza ideologikoaren inguruan dihardute (esate baterako, GGKE batzuek zerikusi handia dute sindikatuekin, enpresarien erakundeekin edo gizartean zeresan handia duten konfesio edo aukera erlijiosokoak diren erakundeekin). Ezaugarriei eta kopuruari begira, estatu espainoleko GGKEak zenbatzen baditugu (esate baterako, garapenerako lankidetzako diru publikoa nola banatzen den hartu ahal dugu kontuan), egiaztatu egingo dugu GGKE batzuek lotura ideologiko estuak edo ez hain estuak dituztela beste erakunde batzuekin, tamaina handiena eta baliabide gehien dituztenek, batez ere. Ez dugu inor iraintzeko asmorik, baina GGKE horietara joan beharko gara, barruko demokratizazioaren maila nolakoa den eta lotura horiek erabakiak hartzeko orduan nolako zeresana duten jakiteko. Ez dugu inor seinalatu nahi, apolitizitatearen mitoa eraitsi baizik, inori baino kalte handiagoa egiten dielako GGKEei eurei. Izan ere, oztopo ikaragarria da, hausnarketa zorrotzari eta errealistari ekin eta lantzeko orduan.

[73] Financial Times, 2002-8-15. E.Gonzalez, *"La Casa Blanca dice que no puede permitirse el lujo de no atacar a Irak"*, El País, 2002-8-16, 5.

[74] J.M.Mendilucek Greenpeaceren nazioarteko lehendakaritza utzi behar izan eta gero esan zituen hitz horiek, izan ere, GKE honen estatutuen arabera politiko profesional bat (Mendiluce PSOEko eurodiputatua da) ezin da kargu horretan egon. Diario de Noticias, 2000-2-3, 69. Iruña.

## 5.2. Politikara hurbiltzeko moduak

Zergatik eta zertarako hurbildu politikara? Politikara hurbiltzeko moduak eta moduak daude. Oro har, GGKEen jarrera kontrajarria da oso:

- Diskurtsoan, politikaren gainetik daude erabat.
- Praktikan, ordea, lobby politiko moduan egiten duten lana sendotzen dute, eta gero eta ahalegin handiagoa egiten dute zeregin horretan -jakin badakitelako horren araberakoak izango direla euren baliabideak-.

Hau da, politikara eta maila politikora hurbiltzen ari dira, baliabideak bildu eta mesedeak lortzeko begirada berbera dutelako, hedabideetan (sustapen bila) edo gizartean bertan (bazkide-emaile bila) agertzen direnean.

### 5.2.1. Politikaren gainetik, diskurtsoaren arabera

Dirudienez, GGKEen diskurtsoan, politikaren gainetik dauden jarrera da nagusi. Zenbait erakundek argi eta garbi adierazten dute diruaren gainetik, boterearen gainetik, politikaren gainetik[75] bizi eta lan egiten dutela. Hori dela eta, teknikoa besterik ez den esparru abstraktuan kokatzen dira. Bestetik, egoera halakoxea bada ere, GGKEek aldarrikatu egiten dute giza mundu hautemangarria aldatzeko eta hobetzeko lan egiten dutela eta horretarako eskatzen dizkiotela gizarteari dohainak edo laguntza.

Oro har, bestelako baloreak eta izenak erabili ohi diren arren, parekatu egiten dira, esanahia berbera izango balitz bezala:

- apolitizismoa;
- objektibotasuna;
- neutraltasuna;
- inpartzialtasuna;
- independentzia.

Sarritan, apolitizismoaren mitoa zurigarri moduan erabiltzen da (hitz egiteko orduan, diskurtsoan), nagusi den eta egituren erabateko aldaketa saihesten duen gizartearen alde sortutako elkartasun eta GGKE eredu teknikoaren babesa estaltzeko edo legeztatzeko (egiteko orduan, ekintzan). Gogoan izan behar dugu arrazoi instrumentalerako –eta bere enpirismo zaharkiturako– naturaren aurkakoa dela gizarte ekintza guztien izaera politikoa onartzea. Idealismo teknologiko horretatik, funtsezkoena saihesten da: laguntza humanitarioko eta garapenerako lankidetzako esku-hartzeak ez dira laborategietan gertatzen, gizarte (giza) eremuetan baizik, hau da, botere egituren barruan. Hori dela eta, botere harreman ilunak aurresuposatu eta sortzen direnez, antzeman, arakatu, kontuan hartu eta orekatu egin behar dira, plangintzak egin eta esku hartzeko orduan. Era berean, elkartasuna bera ere ez da mundu ukiezinean gauzatzen: ekintzetan gorpuzten denean, asimetria bera du abiaburu nagusi, eta bertan, jasotzen duena beti dago ematen duenaren azpitik. Argi eta garbi dago idealismo teknologikoak eragin handia izan duela GGKEen kulturan, bileretan sarritan en-

[75] Mugarik Gabeko Medikuak erakundearen publizitatea: *Zure laguntza behar dugu. Zuk ere ekintza humanitario baten alde egiten baduzu, politikaren gainetik, interes ekonomikoen gainetik eta boteraren gainetik, egin zaitez Mugarik Gabeko Medikuen bazkide. Zatoz arin, asko dago egiteko eta.* Eslogan horrek kontrastatu egiten du testu bereko beste baieztapen batzuekin: *Testigantza eta salaketa kanpainak ere bultzatzen ditugu (...) Gure lana dela-eta hainbat bidegabekeriaren lekuko izaten gara, eta isilduz gero, gu ere konplizeak izango ginateke* (Eric Stobbaerts MSF-Eren zuzendari nagusia, 2000ko abendua; gutunetik azpimarratua).

tzuten direlako honelako arrazoibideak: gure lana teknikoa baino ez da. Era berean, boluntarioen eta bertan lan egiten duten lagun guztien prestakuntzaren joera teknologikoa ere hartu behar da kontuan.

Bitxia bada ere, GGKEen jarrera horrek zerikusia du erresistentzia globaleko mugimenduetako sektore ez hain errealistek dute jarrerarekin, dimentsio politikoaren gainetik daudela esaten dutelako eta kultura arlora eta politikatik kanpo dagoen arlora mugatzen dutelako elkartasuna. Mugimendu horiek politikoak ez diren edo politikaren aurka dauden eremuetan kokatzen dute elkartasuna. Euren ekarpen nagusia kontuan hartuta, errealitatea aldatzeko zeregina, batez ere, kultura arlokoa dela esaten dute. Dena dela, ulertu egiten dute solidarioak badira politikoak ez diren esparruetan mugitu behar direla[76]. Erakunde formalek gizartean duten zeresana alde batera uzteko idealismoan erortzean, zailtasun handiak dituzte protestalditik proposamenera igarotzeko eta gizarte legezkotasuna lortzeko. Era horretako idealismo kulturalista bere baitan agortzen da, ezin duelako kexatzeko eskubidea gainditu.

### 5.2.2. GGKEen eta politika instituzionalaren arteko topaketa

GGKEen eta politikaren arteko topaketa ez da gertatzen arlo politikoak gaur egungo gizartean duen krisiari eta *berriro asmatzeko orduan*[77] elkartasunari eta GGKEei dagokien zereginari buruzko galderak egiten dituen ikuspegi oso batetik. Oro har, helburua ez da gauzen gaur egungo egoera aldatzea, politikaren eta erakundeen arlora egokitzea baizik, euren barruan edo inguruan daudelako baliabide ekonomikoak[78].

GGKEek politikaren ideia zabala agortzen jarraitzen dute, politika eta administrazio arloko erakundeekin dituzten harremanetan. Inolako zalantzarik gabe, GGKE gehienek ahalegin handiak egiten dituzte jarduera politiko formalarekin harremanetan jartzeko (erakundeekin eta alderdi politikoekin). Horrela, bada, euren lan arloarekin zerikusia duten alderdiak sustatzen dituzte. Jakin badakite arlo horietan bertan (politika, gobernu edo administrazio arloko erakundeak: tokian tokikoak, eskualdekoak, nazionalak eta nazioz gaindikoak) hartzen direla euren jardueren finantziazioari buruzko erabaki handiak. Beraz, politikari muzin egiten badiote ere, inolako arazorik gabe onartzen dute harremanak izan behar dituztela maila eta erakunde politikoekin. Arriskua agerikoa da oso: politika bera erakundeen jarduera politikora murrizteko tentaldian erori, bilbadura politiko aberatsaren adierazpen osagabea dela konturatu barik (kultura politikoa). Politizitatea gartsu arbuiatu eta euren neutraltasuna ukiezina dela adierazten duten GGKEek kontraesan arriskutsuari erreparatu beharko liokete: instituzionalizatzeko modu horretatik sortzen da GGKEak politizatzeko arrisku nagusia (isilka-misilka). Izan ere, zuzenean edo zeharka, politika, ekonomia eta administrazio arloko azpisistemaren menpe (nazionala, eskualdekoa eta orokorra) geratu ahal dira harrapatuta. Gainera, gero eta urrunago egon ahal dira gizarte zibiletik eta menpekotasun ekonomikoaren gurpil zoroan murgildu ahal dira.

### 5.2.3. Benetako politizazio arriskua finantziazio iturrietatik dator

Halaxe da. Gaur egun, demokrazia modernoetan alderdikeriak zentzu politikoa galtzen duenean (alderdien arteko aldeak gero eta ahulagoak dira, irudi kontua baino ez dira), politizatzeko arriskuak beste itxura baten bidez eta beste ikuspuntu batzuetatik agertzen da:

[76] Gai honi buruz ikusi Zubero (1998).

[77] Ramoneda, 1999, Mouffe, 1999. GGKEak itxura batean boterera hurbildu nahi badute ere, gaurko globalizazioaren erresistentzia mugimenduek ez dute boterea bilatzen, ezpada *demokrazia birrasmatu* eta botere alternatibo bilakatu. Hori izango litzateke nobedaderik handiena. *Mugimendu tradizionalek boterea hartu nahi zuten, baina azkenean sisteman sartzen dira pasteletik dagokien zatia hartzeko, sindikatuak bezala. Guk ez. Sare paraleloak eratzen ditugu.* N.Klein, El País, 2002-5-15, 7.

[78] Ignacio Carreras, *Las ONG y la política*, El País, 2000-3-11, 14.

- Nazioz gaindiko talde ekonomiko nagusiekiko menpekotasunetik;
- eta GGKEetatik hurbil dauden hiru arloren bizi ohiturak (politika, kudeaketa eta hedabideak) kutsatzeko arriskutik -Bourdieuk egiaztatzen duen bezala-, inoiz baino lotuago daudelako gaur egun[79].

Badago arazoa konpontzerik, jarduera politikoa (erakunde politikoen garapen profesionaltzat hartuta) arlo zabalago eta korapilotsuagoaren beste adierazpen bat (garrantzitsua eta hautemangarria, baina ez bakarra) baino ez dela onartzen ez badugu?

## 5.3. Gizarte arduragabea edo erresistentzia modu berriak?: erresistentzia globaleko mugimenduen irakaspenak

Irudi aholkulariek alderdi politikoetako buruzagiei sartu diete buruan gizarteari ez zaiola politika interesatzen. Hori dela eta, garrantzi handiagoa ematen diote euren orrazkerari euren proposamenei baino. Era berean, badirudi norbaitek edo zerbaitek -beharbada, hain boteretsua den ohikeriak- GGKEetako buruzagiei sartu diela buruan jendeak, oro har, politikarekin egindako edozein identifikazio gaitzesten duela. Horren ondorioz, alderdi politikoek eta GGKEek jendea behar dutenez, edukirik ez duen diskurtsoaren edo diskurtso amarrutsu bezain anbibalentearen alde egiten dute, eta ilustratu beharrean, nahastu egiten du. Egokia da gizartea oso arduragabea dela, sentsibilitaterik ez duela eta mugitzeko gogorik ez duela aurresuposatzen duen azterketa hori? Gure gizarteak kontsumitu eta lasaitasunez bizi besterik ez du nahi edo zalantzazko etorkizunari buruzko gaitasun kritikoa eta hausnarketa eskatzen ditu? Zer datu ditugu?

Zantzuen arabera, beharbada, gizartea ez da hasieran uste bezain malgua. Izan ere, alderdi politikoei ez doakie iraganean bezain ondo. Gero eta kide gutxiago dituzte eta, abstentzio mailek adierazten dutenez, gero eta hautesle gutxiago motibatzen dituzte. GGKEek eurek ere ezagutu dituzte garai hobeak: gizartean hainbesteko legezkotasuna[80] eman dien heroi berrien gizarte irudia hondatzen ari da, eta besteak beste, laguntzaren nekearen gaitza jasaten ari dira (baliabide ekonomikoak biltzeko, boluntarioak erakartzeko eta bazkideak zein laguntzaileak mugitzeko arazo handiak dituzte).

Hala ere, horrez gain, batzuek eta besteek -alderdiek eta GGKEek- euren jarduera eremua partitu behar dute beste gizarte eragile batzuekin: erresistentzia globaleko mugimenduekin, batez ere. Hona hemen galdera nagusia: Zergatik eta nola sartu dira bat-batean eta hartu dituzte adierazpide jendetsuak bezain globalak mugimendu horiek, gure gizartea arduragabea eta egonkorra omen bada?

### 5.3.1. Dagoeneko aginduen menpe ez dagoen gizartea, bere mugimenduen ardura izan nahi duelako

Badirudi ñabardurak egiteko garaia iritsi dela. Galderak berreskuratu eta geure buruari galdetu behar diogu politikak arduragabekeria sortzen duen edo politika egiteko modu batzuk eta politikari zehatz batzuk arbuiat-

[79] Bourdieu, 1997. Berriro pizten dira horrela kultura solidarioaren (transformazio estrukturalaren papera berenganatzen du) eta kultura teknikoaren (neutraltasun politiko-soziala aldarrikatzen jarraitzen du) arteko, eta burokratizazioaren eta jardute demokratikoaren arteko ohiko tentsioak. Ikertzeko dago ze marka uzten ari den elkartasun kulturaren eta GGKEen barruan eremu instituzionalizatu horiekiko harreman estu eta jarraia. Baina erreferentzia adierazgarriak daude. GGKEetan, aparatu politiko-ekonomiko-administratiboarekiko harremanez zuzendaritza edo administrazio organoetakoak arduratzen dira, orokorrean euren erakundeek egiten duten eguneroko lanetik eta errealitatetik nahikoa urrunduak daudenak. Era berean, ezin da ahaztu ez alderdi politikoak, ez arlo ekonomiko edo mediatikoak ere ez direla nabarmentzen barne demokrazia lantzeagatik; kultura instrumental bera konpartitzen dute (eraginkortasun kontzeptu oso bereziarekin eta epe laburreko logikekin), eta hori argi ikusten da erabiltzen duten lengoaia funtzionalean: lengoaia horrek adierazkortasun gutxi dauka eta ez da gai gizartearen aniztasuna, konplexutasuna eta aberastasuna adierazteko (Grijelmo, 1998). Azkenik, kontraesan handi bat nabarmendu nahi dut: aukera teknikotik lan egiten duten GGKEak dira (ustezko apolitikotasunaren defendatzaile sutsuak), hain zuzen ere, aparatu politiko-ekonomiko-administratiboaren menpekotasunik handiena dutenak. Egoera hori logikoa da, kontuan hartuz gero GGKE horiek, orokorrean, oinarri sozial eskasa, kultura eta mobilizazio gaitasun gutxi eta laguntza asmo osagarriak dituztela. Hori dela eta, apolitikotasunaren eta neutraltasunaren gaineko eztabaida planteatu behar da GGKEek arlo politiko, administratibo eta ekonomikoari dagokienez duten menpekotasun edo independentzia mailaren eta gizarte zibileko sektore ugariekiko duten lotura mailaren arabera.

[80] GGKEen euren iritziak. Erro eta Ventura (2002).

zen diren. Era berean, geure buruari galdetu beharko diogu gizartea benetan mugitzen ez den (zer da mugitzea?)[81] edo beste norabide batzuetan edo bere irizpideen arabera mugitzen den lantzean behin, eta ez, behar dugunean[82].

Ona edo txarra izan daiteke jendeak baldintzarik gabe ez onartzea den-dena azaldu nahi duen ikuspegia, gure gizarteak nagitsuak izatea eta oso esanekoak ez izatea gure eskaeren aurrean:

- Entzun beharrean, erabakiak hartu nahi dituen ikuspegi instrumentala kontuan hartuta, oztopoa da ezinbestean. Inolako zalantzarik gabe, gure bizimodua indibidualista denez, zeharkatzerik ez dagoen horma da: elkartasuna ezin da gizarte proiektua balitz bezala garatu eta elkartasunezko jarrerak isolatutako edo baztertutako ekintzak balira bezala ikusten dira, errealitateak aldatzea barik, gizarte eragileak lasaitzea dutelako helburu.

- Ikuspegi irekiagotik, dialogikotik, objektuek eta subjektuek manipulazioaren aurrean duten erresistentzia (agerian baino ez da pasiboa) da gobernatzeko ezintasuna. Inerarityren esanetan, apaltasunez eta zuhurtziaz jokatu behar da, aginduak egiteko orduan. *Gauzak oso erraz manipulatzen ez direnez, argi eta garbi dago gauzak aldatzeko botereak berak mugak dituela eta ez dugula mugimendua handitu behar. Era berean, beharbada, gobernatzeko ezintasunaren balio egokia onartzen duen sistema besterik ez da demokrazia* (2002: 23).

Diskurtso menperatzaileen fio ez denak (eta kontraesana badirudi ere, solidarioak izateko deia menperatzailea da solidarioa ez den gizartearen gaur egungo unibertso diskurtsiboan) mugimendu autonomiaduna sortzen du, fisikoki lekuz aldatzen ez bada ere. Zalantzak ditu. Bere buruari egiten dizkio galderak. Bere burua ez du dagoeneko adingabetzat hartzen. Ageriko arduragabekeria eta gelditasuna itxaronaldia baino ez dira, subertsio aurreko ahalmen berritzaileak dakartzate eta ikusten jakin beharra dago. Horren ondorioz, ezustekoak gertatzen dira gaur egungo gizarteko bizi politikoan. Inork ezin izan zuen iragarri sistema komunisten erorketa, ez eta gizarte globalaren gaur egungo ereduari indarberrituta aurre egiten dioten gizarte mugimenduen agerpen berria ere.

### 5.3.2. Dilema: umeak balira bezalako hiritarrak sortzen laguntzea edo hiritar arduratsu eta autonomoa sortzen laguntzea

Komunikazioari begira, zer da interesgarriena? GGKEek, erresistentzia globaleko mugimenduek eta alderdi politikoek dilema berbera dute:

- Umeak balira bezalako kontsumitzaileak, adingabeak prestatzen laguntzea.
- Hiritar kritikoak, arduratsuak eta autonomoak prestatzen laguntzea.

Gogoan izan behar dugu neska-mutikoei goitik hitz egiten zaiela (aginte hizkuntzaren bidez), modu irrigarrian errazten zaizkiela gertakari konplexuenak (irentsi ahal izateko) eta inoiz ez ditugula bakarrik uzten (gehien jota, hurbil-hurbiletik zaintzen ditugu). Horixe da GGKEek hiritarrei buruz duten irudia?

[81] Mobilizazioa gaur egun ezin daiteke modu masibo eta unilateralean ulertu, langile mugimenduen garaian bezala. Gaur mugimenduek izaera kulturala dute eta euren adierazpideak askoz anitzagoak dira, eta ezin lezake inork gizarte osoa mobilizatu gura izan tribuen gizarte honetan. Gai honi buruz ikusi Zubero (1994, 1998), Maffesoli (1990) eta De Certau (1994).

[82] Gizartea mobilizatu egiten dela eta, gainera, politikoki egiten duela ez dago zalantzarik: erresistentzia globaleko mugimenduek ehunka mila lagun batu zituzten Bartzelona, Erroma edo Florentzian; haserreak 150.000 lagunetik gora atera zituen kalera "Prestige" petrolio-ontziak eragindako hondamendi ekologikoaren aurka *"Contra la marea negra, marea humana"* lemapean. Bernard Cassenek (ATTAC) gogorarazten digu: *"Jendea kokoteraino dago eta gero eta gehiago mobilizatuko da"* (El Semanal, 2002-4-7, 42tik 45era). Garrantzitsuena da mobilizazio modu berriak direla: behe-behetik sortutako mobilizazioak, helburu oso zehatzekin, etengabeko filiaziorik gabekoak, interklasistak; eta mobilizatu direnek ez diote protagonismorik utzi nahi ezein erakunde, lider edo mugimenduri. Mobilizatzeko modu hauek askoz inteligente eta exigenteagoak dira eta haiekin konektatzen jakin behar da.

Hiritarrak sortzeko orduan, subjektuek (hegoaldeko eta iparraldeko gizabanakoak eta taldeak) euren kabuz antolatzeko duten gaitasunari eman behar zaio lehentasuna. Izan ere, horixe bera da gizarte komunikazioaren helburua. Gizabanako eta talde ezjakinak, ahulak eta zaurgarriak (gaur egun, zaurgarritasuna ez da hegoaldeko arazoa bakarrik)[83] prestatzen lagundu nahi dugun edo irtenbideak emateko gai diren hiritar autonomoak, kritikoak eta arduratsuak prestatzen lagundu nahi dugun dago mahai gainean.

Kultura eta elkartasuna oinarri, politika berriro asmatzeko erronkari aurre egitea da helburua. Gizarteari eta politikari kulturaren arlotik begiratu behar badiegu, argi eta garbi dago gaur egun *ezin dela inolaz ere abian jarri burujabetzeko jarduera adierazgarririk, aldez aurretik kultura bera aldatzen ez bada*[84]. Dena dela, zeregin hori ez da politika ostekoa, politika aurrekoa baino. Kultura eta komunikazioa borroka politikoaren oinarrizko arloak badira ere -gaur egun, dimentsio sinbolikoetan, irudizkoetan erabakitzen dira boterea sortzeko prozesuak-, ez da politika alde batera utzi behar, berriro asmatzeko konpromisoa hartu baizik. *Errealitatea kulturatik bertatik aldatzeko, bestela begiratu behar diogu gizartearen errealitateari eta, giltzarri berri horiek oinarri, borroka kulturalari, legeztapenen borrokari ekin behar diogu*[85].

Hori dela eta, premia zuzen-zuzena sortzen da: elkartasunak eta GGKEek politikaren berreraikuntzan duten zeresana berriro pentsatu beharra. Horretarako, proiektuak bestelakoak izan behar dira (gauzatu egin daitezkeen utopietatik birsortu behar dira), gizarte zibilarentzat izan behar dira, eta bizi behar dugun errealitatearen konplexutasuna eta aniztasuna egituratu eta adierazteko gai izan behar dira.

### 5.3.3. Gizarte komunikazioa eta erresistentzia globaleko mugimenduak

Nola aurre egin sistema politikoaren krisiari? Politika egiteko beste modu batzuk bilatuta eta sortuta. Hiritarren eskari aberats bezain anitzei erantzuteko gai diren erakunde malguak nahi ditu gizarteak. Bestelako mugimenduak ditugu hizpide, hau da, *hiritarrak erakarri eta egituratzen dituzten mugimenduak. Ezin dira izan hauteskundeetako edo kargu politikoen emaitzen gozamendun hutsak*[86]. Izan ere, modu eta eragile berritzaileak agertu dira politikan; esate baterako, erresistentzia globaleko mugimenduak -euren helburua ez da boterea lortzeko lehian murgiltzea, gizartetik bertatik politika egitea baizik-. Gero eta indartsuagoa den gizarteak bultzatu ditu, erabakiak hartzeko sisteman dauden gizarte eragile gehienak ezagutu nahi dituzte eta.

Erresistentzia globaleko mugimenduak heterogeneoak eta kontrajarriak dira erabat. Hau guztia nahasten da bertan: horizontaltasuna eta larderiazko hondakinak, aniztasun teorikoa (batzuetan, idealismoa) eta erredukzionismo praktikoa (batzuetan, nola edo hala emaitzak bilatu beharra, ondorioak kontuan hartu gabe), norberaren kudeaketa eta menpekotasun handiak. Dena dela, *gizarte saiakuntzak egiteko eta etorkizuna eraikitzeko laborategiak* dira[87]. Aukerako proiektu mugatua eta globala ez dutela aurpegiratzen bazaie ere, *adierazteko boterean* (mito progresistak bete ez dituen aginduak adierazten dituzte) eta sormen handiko proposamenak eta esperientziak[88] sortzeko gaitasunean datza euren aberastasuna. Euren erronka nagusia ez da gizarteak parte hartzeko ekintzak eta salaketak biderkatzea (bere baitan iraungitzen dira eta), *estatukoak ez diren esparru publikoak* (publikoa ez da estatukoa) eta *merkataritzakoak ez diren esparru pribatuak* (pribatua ez da merkataritzakoa)[89] egituratzea baizik. Horretarako, ezinbestekoa izango litzateke *gizarte, politika eta erakunde arloko*

[83] Zaurgarritasun edo ahultasun kontzeptuak gauza asko alda ditzake aurrerantzean: hasi larrialdiko laguntzatik eta garapenerako kooperazioraino. Iparraldeari bere pentsamendua aldaraziko dio: Iparraldeak ere laguntasuna behar du.

[84] Zubero, 1998.

[85] Zubero, 1998.

[86] Ramírez Sáiz, 1999:164.

[87] Gómez de Souza, 1995.

[88] De Certeau, 1999; Gómez de Souza, 1995; Reguillo, 1999.

[89] Sonntag, 1993.

*bitartekaritza berriak sortzea eta esparru publikoa handitzea, ordezkaritza bidezko demokraziaren eta demokraziaren artean eta arlo politikoaren eta politikaren beraren artean zubiak eraikiko direla bermatzeko*[90].

[90] Ramírez Sáiz, 1999: 164.

Nolanahi ere, oso interesgarria da nabarmentzea erresistentzia globaleko mugimenduek, politika bera kulturaren ikuspegitik bertatik berriro asmatzen dutenean, gizarte komunikaziorako moduak sortzen dituztela. Hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, bi eratara egiten dute funtsean:

- Onartu egiten dute gizarte komunikazioa ardatza dela harremanak izateko eta bete-beteko partaidetzan, ahotsen aniztasunean eta sareko lanean (gizatiarrean) oinarritutako gizartea antolatzeko beste modu bat egituratzeko orduan.
- Antzeman egiten dute komunikatzeko beste eredu hori sortzeko Internet eta informazioaren teknologia berriak erabili behar dituztela, elkartzeko eta elkarrekin bizitzeko beste modu bat direlako (sare teknologikoa).

| Gizartea | Internet / Teknologia berriak |
|---|---|
| Gizartearekin komunikatzeko beste modu batzuk bilatu. | Internet, elkarrekin egoteko eta gizartea aldatzeko modu berria.<br>Internetez eta taldeko erabilera berritzaileez jabetu. |

**Balizko emaitzak**

- Gizartea antolatzeko, jarduteko eta aldatzeko modu berriak.
- Komunikatzeko politika, estrategia eta egitura berritzaileak eta eraginkorrak.
- Erakundeen beste harreman batzuk gizartearekin berarekin.

Ahalegin horretan, gizarte komunikazioa berriro asmatzeko orduan -*beste komunikazio bat, beste elkartasun baterako; beste komunikazio bat, beste garapen baterako*- eta Internet behar bezala ulertu eta jabetzeko orduan, GGKEak baino aurrerago joan dira erresistentzia globaleko mugimenduak. Bestela esanda, komunikazioaren arloan, mugimendu horien laguntza handia eta, batez ere, orientazio handia behar dute GGKEek. GGKE guztiak euren kartzela instrumentaletik irten daitezen (komunikazioaren ikuspegitik hitz eginda), mugimendu horien esperientzian oinarritu behar dira ahalik eta arinen. Nola egin? Badirudi horixe bera dela erronka nagusietako bat, batez ere kontuan hartzen badugu erresistentzia globaleko mugimenduekin duten harremana dela GGKEetan antzemandako hutsune handietako bat.

## GGKEen eta gizarteko eta erresistentzia globaleko mugimenduen arteko harremana

Zenbait GGKEri galdetu ondoren, batek ere ez du erantzun harremana ona denik. GGKE gehienen ustez, harreman hori egon ez dago edo ez da nahikoa. Gutxi batzuk, ordea, zalantzan daude.

| Gaurko egoera | GGKE | Erresistentzia globaleko mugimenduak | Hurbiltzeko arrazoiak |
|---|---|---|---|
| Egon ez dagoen edo nahikoa ez den harremana.<br>Ez dago euren arteko elkarrizketarik.<br>Mesfidantza eta elkar ez ezagutzea da nagusi. | Globalizazioa oso gai korapilotsua da.<br>GGKEetan, tentsio handia sortu da globalizazioaren ondorioz.<br>Ez dute gaiari buruz hausnartu.<br>Ez dago denborarik, baliabiderik eta interesik.<br>GGKEen lan dinamikak harremanak eragozten ditu.<br>GGKEetan, aldeak eta gatazkak daude gai horren ondorioz. | Lupaz begiratzen diete GGKEei.<br>Mugimendu korapilotsuak dira.<br>GGKEetatik kanpo dauden mugimenduak dira (bestelako jendea da).<br>Euren ustez, gobernukoak dira GGKEak. | Mugimendu horiekin bat egin behar da.<br>Globalizazioaren aurka egon behar da.<br>GGKEek badute zer esanik globalizazioari buruz.<br>Elkarrekin lan egiteko gai ugari daude.<br>Bi alderdien ekarpenak ezin hobeak izan daitezke.<br>Mugimendu osagarriak gara.<br>Oportunismoagatik interesatzen zaizkigu (hedabideetan agertzen dira).<br>GGKE batzuk gero eta hurbilago daude mugimendu horietatik.<br>Koordinakundeak bozeramailetzak sortzen ari dira gizarte mugimenduekin harremanetan jartzeko. |

Iturria: Erro y Ventura (2002).

# 6. Internet publizitate baliabide gisa edo gizarte komunikaziorako kultura gisa

Komunikatzeko beste tresna bat da Internet edo GGKEak barrutik kanpora eta goitik behera astintzeko berrikuntzaren bat ote da? *KomunikAkzioa. Elkartasunerako eta talde ekintzarako komunikazioa*[91] topaketako hausnarketak oinarri egindako atal honetan, neure buruari galdetzen diot nola Internetek lagundu ahal digun GGKEetako gizarte komunikazioaren eredua sortzen. Izan ere, adierazi dudan bezala, Internetek goitik behera aldatuko du elkartzeko kultura, baina horretarako, erabaki politikoa hartu beharko da aldez aurretik: horizontaltasunaren, eztabaida zabalerako irekieraren eta komunikatzeko gogoaren aldeko apustu sendoa. Bide horretatik jo dute GGKE guztiek?

### 6.1. Internet promozio bide gisa edo komunikazio eremu gisa

Oraindik ez dugu datu zehatzik, GGKEak Internet eta informazioaren teknologia berriak nola interpretatu eta erabiltzen ari diren jakiteko. Gehienetan, sarea euren promoziorako eta publizitaterako tresna izango balitz bezala ezagutu eta onartzen dutelako susmoa dugu. Ikertzen jarraitu beharko dugu. Dena dela, jakin badakigu erresistentzia globaleko mugimenduak beste era batera hurbildu eta jabetu direla Internetez, saretik bertatik sormenezko eta gizarteratutako emaitzak ateratzeko. GGKEek asko ikasi ahal dute esperientzia horretatik.

Ezaugarriei begira, aurrekaririk gabeko aldaketa ekarri ahal dute Internetek eta informazioaren teknologia berriek, elkarteen lana egituratzeko orduan; edo besterik gabe, beste irudikeria bat izan daitezke, komunikatzeko modu instrumentalak ezkutatzeko eta sustatzeko. Dena dela, argi eta garbi dago ez dagoela komunikazioari buruz hitz egiterik Internet kontuan hartu barik.

GGKEen esanetan, posta elektronikoaren erabilerak bete-betean hobetu du euren lana egiteko modua -esate baterako, bazkideekin eta hegoaldeko elkarteekin dituzten harremanak-. Horrez gain, aitortu egiten dute itxaropen handia dutela euren web orrietan. Hori dela eta, euren komunikazio arloek ahalegin handia egiten dute web orriak sortu, abian jarri eta eguneratzeko[92]. Hala ere, horrek guztiorrek ezer gutxi esaten digu sarera pixkanaka-pixkanaka hurbiltzeko orduan duten jarrerari buruz.

[91] Jardunaldi honetan Internet eta teknologia berrien gaia landu zuten Igor Sádaba (Nodo 50), Patxi Gaztelumendi (Indymedia), Montserrat Boix (Red de Mujeres) eta Miguel Romerok (ACSUR-Las Segovias). Zordun gaude batez ere Sádabak aurkeztutako lanarekin: *Solidaridad y nuevas tecnologías. Transformaciones, obstáculos y realidades* (2002).

[92] Astiroago aztertzea merezi duten bi alderdi agertzen dira hemen. GGKEen eta Hegoaldeko kideen arteko harremanak nahikoa hobetu diren arren (posta elektronikoaren erabilerak asko lagundu du), zenbait ñabardura egin behar dira. Posta elektronikoaren bidez garapen proiektuekin zerikusia duten informazioak azkarrago edo batbatean transmititzeko modua dago. Informazio mota hori GGKEen eta beren kideen arteko komunikazioaren %80 edo 90 da, beste alderdi ez hain administratibo batzuen kalterako (Erro y Ventura, 2002). Bestetik, GGKEen barruan web orrien moda dago. Orri horien erabilgarritasuna ez du inork zalantzan jartzen, baina publizitate hutsa edo, berez, ekintza guztien azken helburu bilakatzeko arriskua dago, baldin eta komunikazioaren ideia argi bat ez badago. Era berean, web orrien eguneratzeak ahalegin handia eskatzen du GGKEek komunikazioari eskaintzen dizkioten giza baliabide urriak kontuan izanda.

**1. grafikoa: GGKEen esanetan, komunikazioa lantzeko orduan dituzten baliabideak**




Iturria: Erro eta Ventura (2002).

Gaur arte, gai horri buruz egin diren ikerketa eskasen arabera, estatu espainoleko GGKEak Internet erabiltzen hasi berri direnez, ez dituzte behar bezala ustiatzen tresna horrek eskaintzen dizkien aukerak, euren web orrien kalitate teknikoa eskasa da oso eta ez dira batere adierazgarriak[93]. Nolanahi ere, Interneten bidez sortzen ari da benetako gizarte komunikazioa, GGKEetara hurbiltzen diren lagunak bazkide-emaileak, bezeroak edo kontsumitzaileak barik, erabiltzaileak eta hiritarrak izan daitezen? Egin berri diren azterketen arabera, egoera ez da batere baikorra. Dirudienez, estatu espainoleko GGKEen %85ek dagoeneko web orria duela adierazten du. Hala ere, erakunde horien %96k onartu egiten du publizitaterako tresna moduan baino ez duela erabiltzen[94]. Bestetik, Euskal Herrian diharduten GGKEei baino ez badiegu erreparatzen, kopurua askoz ere txikiagoa da. Erakundeen %92,7k Internet erabiltzen duela esan arren, %63,4k baino ez du web orria (ikus 1. grafikoa).

Eskura ditugun datuak oso zehatzak ez badira ere, badirudi GGKEak Internetera hurbiltzen ari direla, baina euren ikuspegia instrumentala da (baliabideak lortu, erakarri eta konbentzitzeko baliabidea da eurentzat), komunikatzeko beste bide batzuetara hurbiltzen direnean gertatzen den bezala; esate baterako, hedabideetara hurbiltzen direnean. Beraz, ez dira konturatzen baliabide ezin egokiagoa izan daitekeela gizartearen partaidetza eta elkartegintza bideratzeko modu berriak sortzeko orduan.

GGKEetan komunikatu eta lan egiten dutenek badute erronkarik, Interneteko erabileren aukeren eta errealitatearen berri eman behar dietelako euren erakundeei. Zeri eman behar diote lehentasuna? Hau nabarmendu nahi nuke:

[93] *ONG e Internet: matrimonio de conveniencia o romance imposible.* Pere Tarrés Fundazioa. Bartzelona. 2000.

[94] *ComunicAcción. Comunicación para la solidaridad y la acción colectiva* jardunaldian (Hegoa. Bilbao. 2002ko azaroa) Miguel Romerok aipatutako oraintsuko azterlan batetik ateratako datua.

- GGKEek pentsatu egin behar dute zer den eurentzat Internet eta nola eta zertarako erabiltzen ari diren.
- Internet erabiltzeko orduan, GGKEek erabaki politikoa hartu behar dute aldez aurretik, hau da, gizartearekin modu irekian komunikatu nahi duten erabaki behar dute. Sareak, berez, ezin du GGKEek komunikatzeko duten jarrera aldatu. Beraz, gure ustez komunikazioa zer den galdetu behar dugu.
- GGKEek asko ikasi behar dute Interneten erabilera komunikatiboari eta teknikoari buruz gizarte mugimenduetatik eta, batez ere, erresistentzia globaleko mugimenduetatik.

## 6.2. Internet zuzen erabiltzeko betekizunak: begirada komunikatiboaren eragozpenak

*Gizartea mugitzen den lekuan bertan, gizartea aldatzeko tresna bizia da Internet; burokratizazio politikoa eta hiritarrak ordezkatzeko politika mediatiko hertsia nagusi diren lekuan, ordea, iragarki taula baino ez da Internet. Internet aldatzeko, politika aldatu beharra dago. Horren ondorioz, Interneten erabilera politikoak politika bera aldatu ahal du.* Igor Sábadak jaso zituen (2002:13) hitzek den-dena esaten dute; Castellsenak dira berba horiek (1998). Internetek erakundeen ezaugarriak aldatzen ditu, aurreko tresnen aldean. Hona hemen Sábadak emandako arrazoiak:

- Mundu guztiarentzat zabalik dagoen sarea da.
- Etengabe abian dagoenez, beti dago prest, gure interesen arabera.
- Unean bertako komunikazioa izateko aukera eskaintzen du.
- Globala da erabat.

Hori dela eta, honako hau lortzen da sareari esker:

- Berehalakotasuna (unean bertako komunikazioa).
- Elkarreragina (bi edo norabide anitzeko komunikazioa).
- Birtualtasuna (komunikazioaren zabaltasuna, testuaren, audioaren eta bideoaren bat egitea…).
- Bateratasuna (komunikazio bidezko integrazioa edo komunikazio protokolo unibertsalen agerpena).

Honako hau argi eta garbi utzi beharko da:

- Beste komunikabide bat baino zerbait gehiago da Internet.
- Ezinbesteko tresna da, politika egin edo gizartean parte hartzeko orduan.
- Zerikusi handia du elkarteen dimentsio komunikatibo eta sinbolikoarekin (hedabide nagusiak eta Internet ezinbesteko tresnak dira).
- Internetek ezaugarriak aldatzen ditu, elkarteek orain arte erabilitako tresnen aldean. Mundua ikusi eta munduan egoteko modua aldatzen du: antolatzeko, elkartzeko eta elkartegintza sustatzeko modu berria da; informazioa eta, batez ere, ezagutza demokratizatzen ditu; elkarreragina bultzatzen du, baina mundura irekitzeko, partaidetza bilatzeko eta komunikatzeko gogoa izateko eskatzen digu.

- Horren ondorioz, partaidetza eta elkar menpekotasuna sortu behar da erakundeen artean, eta topaketaren zein adostutako ekintzaren alde egin behar da inolako zalantzarik gabe.
- *Ekintzarako eta antolamendurako aukera pribilegiatua*[95] bada ere, mehatxua ere izan daiteke, antolatzeko eredu hierarkikoak edo instrumentalak jartzen dituelako kolokan, harremanak izateko eta lan egiteko eredu deszentralizatuen, horizontalen eta saretuen mesedetan.

Beraz, GGKEek onartu egin beharko dute Internetek ez dituela euren arazo komunikatiboak konponduko eta partaidetza bera ere ez duela goitik behera aldatuko. Izan ere, erakundeen euren partaidetzarako jarduerek eta sustatu ahal duten gizarte partaidetzak aldatuko dute Internet, *benetako soziabilitatea eta soziabilitate birtuala elkarren artean lotuta daudelako. Zenbat eta sare fisiko handiagoa izan, orduan eta sare telematiko eta komunikatibo handiagoa garatzen da. Arlo birtuala ez da ezerezetik sortzen, eragin metagarria eta atzeraelikagarria dagoelako soziabilitate fisikoaren/benetakoaren eta soziabilitate birtualaren/komunikatiboaren artean*[96].

## 6.3. Erresistentzia globaleko erakundeek nola erabili duten Internet

Jakin badakigu erresistentzia globaleko mugimenduentzat ezin garrantzitsuagoak direla Internet eta informazioaren teknologia berriak. Horrelako mugimendu askok erruz erabiltzen dituzte. Hori dela eta, eskumen teknologiko handia dute, sarean antolatu, komunikatu eta mugitzeko orduan[97]. Adibide eta esperientzia ugari daude: Nodo 50, Indymedia, Mujeres en Red, Pangea…

Elkarteek euren eskarien berri eman eta jarduerak zabaltzeko orduan, erabiltzen dituzten nazioarteko ekintza eta jarduera ugariak jasotzen ditu Sábadak. Honako urrats hauek nabarmentzen ditu:

- Boikotetik edo manifestalditik web orrira.
- Erasoa edo jazarpena (flaminga).
- Isilarazi (deletinga).
- Nortasunak ordezkatu edo interferentziak (maila-bombingak edo mass flamingak).
- Informazio ugari bidali (spamak).
- Mezu ugari bidali, zerbitzariak blokeatzeko, presionatzeko edo hondatzeko (netstrikeak).

Gogoan izan behar da bide horiek guztiak erabiltzen direla ohiko bideei uko egin gabe: posterrak, panfletoak, telefonoa, ahoz ahokoa, mobilizazio politikoak…

Mugimendu horiek Interneti erabilera berriak ematen dizkiotenez, arlo instrumental hutsetik baino haratago doaz. Kode askearen eta ezagutzaren erkidegoen bidez, ezagutzaren pribatizazioaren aurka egiten dituzten borrokak dira horren adierazgarri. Lankidetzarako urratsak dira, eta software deszentralizatu eta erkidearen erabileraren alde egiten dute; esate baterako, GNU, GPL lizentzia eta Linux[98].

95 Sádaba (2002:6).

96 Idem.

97 Dena dela, Sampedrok dioenez, ahalmen hori ez da ohiko komunikabideetara pasatzen (2002:2).

98 Gai honi buruz, ikusi Sádaba op. cit. Baina batez ere begiratu Nodo 50, Pangea edo Indymedia, besteak beste.

**Talde ekintzarako jarduera berrien zenbait adibide**

| Ekintza/jarduera mota | Azalpen laburra | Adibidea |
|---|---|---|
| WWW bidez argitaratu | Propaganda, artikuluak, informazioa, salaketak, gatazkak, eurek sortutako materiala… argitaratzen dituzte formatu elektronikoan. | Edozein mugimendu edo GGKEren edozein web orri. Ikusi: http://www.nodo50.org http://www.pangea.org |
| Eskabide-orriak | Web orriei esker, orriko bisitariek eskatzen zaiena bete edo erantzuten diote. Horrela, elkarreragina sustatzen da (esate baterako, ikustaldien liburua). | Web orri bateko ikustaldien liburua, AEBetako preso bat arrazakeriagatik hil ez dezaten. http://www.nodo50.org/thomasmiller/librovisitas/guestbook.php Atzerritarrei buruzko Legearen aurkako sinadurak jaso. http://Transit-lounge.com/papeles http://www.sosrascime.org |
| Mailbombing | Mezu ugari bidaltzen dira, web orri zehatz baten zerbitzaria asetzeko edo blokeatzeko. Ekintza “erasokorrenetakoa” da. | 1997ko uztaileko IGCren aurkako mailbombinga. http://www.nodo50.org/artículos/mailbomb.html |
| Petition Online | Eskabide-orriaren bidez jasotzen diren eskabide, eskari edo eskaera ugari bidaltzen dira. | Era guztietako on-line eskaerak: http://www.petitiononline.com |
| Zibermanifestaldia | Balizko talde ekintza birtuala da, eta manifestaldiaren ezaugarri batzuk agertzen dira. | “Mugarik Gabeko Kazetariek” prentsa askatasunaren alde zibermanifestaldia: http://www.cybermanif.com Informazio gehiago gaztelaniaz: http://enredando.com/cas/en.medi@/idd-05-00/msg00008.html |
| On-line bazkidetza edo dohaintzen bilketa | Eskabide-orriak mugimendu bati lotzeko edo sartzeko edo dirua bidaltzeko aukera eskaintzen du. | Pangeako aldizkari batean alta hartzeko eskabide-orria: http://www.llistes.pangea.org/mailman/listinfo/boletín |
| Hackinga edo hackeoa | Zerbitzari baten informazioa eskuratu edo eremu pribilegiatuetan/pribatuetan sartzen dira, sabotajeak egiteko. | Moncloako web orriaren hackeoa (El Mundo: http://www.elmundo.es/navegante/99/agosto/11/lamoncloa.html edo http://es.gsmbox.com/news/mobile_news/all/46512.gsmbox) |

Iturria: Igor Sádaba 2002:8.

Azken batean, komunikatzaileek eurek ere *jakitera eman* beharko diete GGKEei ezagutzeko moduak eta *elkarrekin egoteko moduak*[99] goitik behera aldatzeko eremuak direla Internet eta informazioaren teknologia berriak.

[99] Martín Barbero, 2002.

# 7. GGKEek komunikabideekin dituzten arazoak

Komunikabideekin duten harreman korapilotsua bezain kontrajarria da GGKEen kezka nagusietakoa. Horrez gain, giltzarria da euren komunikazio politikak diseinatzeko orduan. Bere horretan dagoen gai nahasia omen da, gainera. Atal honetan, arazoaren ezaugarri objektiboak eta subjektiboak berrikusi nahi ditut azkar-azkar, GGKEentzat izan ahal dituen arriskuak adierazi eta aurre egiteko zenbait orientazio eskaini.

Lau zatitan banatuko dut gaia:

- GGKEek gatazkari buruz duten ikuspegia.
- Bereiztu ahal ditugun ezaugarri objektiboak.
- Egoeraren arrisku nagusiak.
- Konponbideen bilaketa.

Iparraldea-hegoaldea harremana aldatzeko, jendea mugitu nahi badute, GGKEek agendak eta hedabideen diskurtsoaren esparru diskurtsiboak aldatu beharko dituzte. Sampedrok (2202:1) dioenaren arabera, eurentzat ezinbestekoa da jendearengana iristea. Hona hemen arrazoiak:

- Barruko antolamendua (baliabideen erakarpena eta kohesioa).
- Euren zeregin politikoa (maila politikoa presionatu, legeriak aldatzeko eta garapenerako lankidetzarako baliabide gehiago emateko).

Era berean, teorian, gizartearen hezkuntza ere izan behar dute helburu. Dena dela, autore honen iritziz, hezkuntzaren helburuak ez du lekurik hedabideen gaur egungo egituran eta kulturan. Nola egin da arazoa, batez ere, GGKEen eta hedabideen arteko harremanak hain arazotsuak direnean.

## 7.1. Nola ulertzen dute GGKEek gatazka?

GGKEek diotenez, hedabideekin duten harremana *ez da ez ona ez emankorra. Hori dela eta, ondorio kaltegarriak ditu gure lanak gizartean duen oihartzunean*[100]. Elkarrengandik oso urrun dauden bestelako erakundeak bat datoz egoera oso txarra dela esatean. Euskal Herrian, zenbait erakunderi galdetu zaie euren iritzia hegoaldeko herrialdeen errealitateak hedabideek nola jakinarazten dituzten jakiteko, eta %90ek oso *desegokia* dela erantzun dute. Hedabideekin harreman ona dutela dioten GGKEak dira salbuespenak[101].

Zeren kexu dira GGKEak? Euren esanetan, hedabiderik gabe bizirauterik ez duten arren, gero eta zailagoa egiten zaie eurekin bizitzea. Euren iritziz, honako hauek dira erakunde bien arteko antzinako elkarbizitza zoriontsua mehatxatzen duten zirrikituak:

- Hedabideek ez dute inolako interesik lankidetzan, elkartasunean eta GGKEek sortzen dituzten albisteetan.
- Lan arlo honen errealitatea desitxuratu edo gaizki ulertu ohi dute.
- Zenbait hedabidek eta kazetarik ez dute lankidetzaren mundua ezagutzen.

GGKEen ustez, honako honen arduradun nagusiak dira hedabideak:

- Gizarteak ez du GGKEen ekintza esparruari buruzko ikuspegi zehatz, sakon eta osorik. Izan ere, datuen arabera, oraindik ere jendeak ez daki zehatz-mehatz zeintzuk diren GGKEen helburuak, zer premia eta muga dituzten, zergatik desitxuratzen diren edo zeintzuk diren hegoaldeko herrialdeetako arazoen benetako arrazoi sakonak[102]. Besteekin batera, eurak ere (GGKEak, gizartea eta hedabideak) errudunak direla onartzen badute ere, haizatu egiten dira, hedabideek osagai kaltegarriei (hondamendiak, gatazkak…) lotutako zatiko ikuspegia baino ez dutela ematen ikustean, hegoaldeko kulturei buruz hitz egiten dutenean.
- Gizarteak GGKEak heroitzat hartzen bazituen ere, irudi hori itzali egin da euren betsaretik. Ados daude euren historian etapa berria hasi dela onartzeko orduan, eta jakin badakite gero eta urrunago daudela gizartearentzat GGKEak erakunde idilikoak ziren garaietatik. Era berean, jakin badakite biztanle gehienek eurei buruz duten iritzia gero eta txarragoa dela. Horrez gain, zenbait hedabideren miran daudela sumatzen dute, eta bertan, eszeptizismoa, mesfidantza eta nolabaiteko areriotasuna dira nagusi. Ezin garrantzitsuagoa iruditzen zaie nolako doinua eta jarrera azaldu duten hedabideek zenbait GGKEren jarduera zehatzen inguruko eskandaluen berri emateko orduan. Euren iritziz, jokabide horrek zalantzak sortzen ditu laguntzarako eta garapenerako lankidetzarako eta GGKEen lanerako fondo ekonomikoen erabilera zuzenaren inguruan[103].

[100] Hitzaldia; ONGD 2000. Globalizar la solidaridad. Construir el desarrollo humano, Hegoa, 2000: 17.

[101] Erro y Ventura 2002.

[102] Martínez Sánchez 1998; López Rey 2001; Erro y Ventura 2002.

[103] Erro y Ventura 2002.

- Jendeak GGKE gutxi batzuk baino ez ditu ezagutzen, eta erakunde gehienek ez dute hedabideetan agertzeko aukerarik. Horrez gain, jendaurrean azaltzeko beharrezko baliabideak dituzten GGKEen artean, erakunde batzuek erabiltzen dituzten komunikazio jarduerak ez datoz bat jokabide eta irudi kodeen abiaburuen izpirituarekin eta/edo moduarekin. Erakunde gehienek jokabide hori gaitzesten dute. Erabiltzen duten estiloak zentzurik gabe hunkitu nahi du jendea, eta sektore osoaren ospea belzten dute.
- Gero eta zailtasun handiagoak dituzte euren gizarte oinarria handitzeko, kopuruari begira (baliabide ekonomikoak) eta ezaugarriei begira (sentsibilizazioa, mobilizazioa eta giza baliabideak): laguntzaren nekearen mamua.

Beraz, ulergarria da GGKEak kezkatuta barik itsututa egotea hedabideekin dituzten harremanengatik.

## 7.2. Nolakoa da gatazka dakizkigun datuen arabera?

Hasiera batean, egoeraren zergati objektiboak bilatzeko orduan, egiaztatu egin daiteke GGKEak oso oker ez dabiltzala, euren baieztapen batzuk zehaztu behar badituzte ere. Euren susmo gehienek datu egiaztagarriak dituzte oinarri.

Garapenaren arazoari eta garapenaren gaiari aurre egiteko orduan, hedabideek erabilitako moduak ezer gutxi esaten du euren alde. Izan ere:

- Hedabideentzat, hondamendia, indarkeria edo desoreka da azpigarapena.
- Informazioa gertaeren alderdi sentsazionalistenetan oinarritzen da, eta desagertu egiten da biktimen irudi telegenikorik ez dagoenean.

Hegoaldeari buruzko albisteen %2k baino ez du hizpide gobernuen eta erakundeen eguneroko jarduera arautua. Garapen bidean dauden herrialdeei buruzko albisteen %91k hondamendiak, ezegonkortasuna eta indarkeria ditu hizpide[104].

Hala ere, gertaera are nabarmenagoa ere badago. GGKEen gertakariak jendartean garrantzi objektiboa badu ere, hedabideek -beste gai batzuetan ez bezala (makroekonomia, ikuskizunak, teknologia berriak…)- ez dituzte garapenaren arloko edukiak hobetu. Honako hau egiaztatu dugu:

- Saioetan ez dute tarte berezirik sortu (garapenari buruzko informazioek ez dute leku finkorik eta tarte batetik bestera dabiltza nora ezean).
- Ez dituzte iturriak aukeratzeko irizpideak aldatu (oraindik ere, GGKEak nekez dira ohiko iturriak: instituzioak eta gobernuen ikuspegiak dira nagusi).
- Ez dituzte garapenaren arloan diharduten profesionalak prestatu eta berezitu. Hona hemen GGKEetako komunikatzaileentzako oztopo nagusietakoa: hedabideetako profesionalek lan egiteko orduan duten babes eza.

[104] Nafarroako Unibertsitateak Informazio eta Garapenari buruz egindako ikerketa, 1999. “Perspectivas del mundo de la comunicación”, martxoa/apirila, 9. zk. 2002.

Hasiera batean, hedabideek ikus-entzuleak jartzen dituzte aitzakiatzat. Euren esanetan, lekutan dagoenez, jendeak ez du interes handirik garapenaren arloan. Irizpide berberari eusten diote gai guztietan? Aitzakia horren balizko zehaztasuna bertan behera geratzen da sakontzen dugunean. Hedabide horiek ez dute inolako zalantzarik izan, ikus-entzuleentzat batere interesgarriak ez diren beste gai batzuei buruzko formatu eta tarte berriak sortzeko orduan eta euren profesionalak arlo horietan prestatzeko orduan. Merkatuko ikerketak kontuan hartuz gero, jendeak oso interes gutxi du informazio politikoan eta makroekonomikoan. Beraz, zergatik eskaintzen zaie hainbesteko kuota, hainbeste orrialde eta hainbeste pantaila[105]?

Halako kontraesanaren ondorioz, benetako arrazoiak bestelakoak direla pentsatu beharra dago, hau da, hedabideen ekonomia politikoa, euren benetako interesak eta gizarte erantzukizuna ulertzeko modu bitxia.

### 7.2.1. GGKEak, eredu mediatikoak

Onerako edo txarrerako, estatu espainoleko GGKEen eredua mediatikoa da. Zer esan nahi du horrek? Batez ere, GGKEek, neurri handi batean, hedabideei zor dietela gizartean duten nagusitasuna.

Historia ezin errazagoa da. GGKEek hedabideei zor diete lortu duten guztia, hedabideek eurek aurkeztu zituztelako gizartean heroi berriak balira bezala (elkartasunaren eztandaren garaia). López Reyk (2001) aztertu duen bezala, hedabideek eurek bultzatu zuten GGKEen *goraldia* (1985-1988). Dena dela, jakin berri dugunez, *aukera mediatikoko*[106] une haiek ez ziren gertatu elkartasunezko mugimenduak benetan aurrera egin zuelako, hedabideen euren dinamikak eta premiak horiexek zirelako baizik[107].

Halaxe da. %0,7ko kanpaina adostasun esparru orokorrean sortu eta garatu zen, eta berez, ez zituen egoerak eta erantzukizunak salatzen[108]. Testuinguruaren ondorioz, balizko eduki subertsiboa alde batera utzita, gobernuek eta hedabideek ez zuten inolako eragozpenik izan kanpaina hori sustatu edo, gutxienez, bideratzeko orduan[109]. Hori dela eta, ondoren agertu ziren aukera mediatiko berriek ez zuten hainbesteko indarrik izan eta, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik aurrera, GGKEak ez ziren iturriak eta aitzindariak izan garapenari buruzko informazioan[110].

Garai hartan, hedabideek eragile freskoak behar zituzten, zaharkitutako erakunde politikoen aldean, gazteentzat eta ikus-entzuleentzat ez zirelako batere erakargarriak. GGKEak izan ziren eragile horiek. Eragile mediatiko ezin hobeak ziren, *itxaropena eta balore berriak*[111] zekartzatelako. Dena dela, horrez gain, testuinguru dramatikoetan mugitu, ingurukoak hunkitu eta, batez ere, albiste eta irudi ikusgarriak bezain telegenikoak sortzen zituzten erakundeak ziren.

Bestetik, GGKEek nolabaiteko bultzada behar zuten gizartean, artean oso mugatuak ziren esparruetatik irteteko. Hori dela eta, jokoan sartu ziren, baina seguruenik ez zekiten nolako nahasmen mediatikoan sartzen ari ziren. Nolanahi ere, batak bestea erabili zuen, limurkeriaz eta konplizitatez betetako jokoan.

Horren ondorioz eta hedabideek gertakari berriari eman zioten tratamenduaren ondorioz, garapenerako laguntzak eta GGKEek norabide zehatz baterantz jo zuten, barruko aldeari (antolamendua) eta kanpoko aldeari (jendaurreko irudia)

[105] Eroski fundazioak albistegien edukiei buruz egindako azterlana (2002).

[106] Sampedro, Jerez eta López Rey (2002).

[107] Horrek ez du esan nahi komunikabideak izan zirenik GGKEen garapenaren errudun bakarrak. Garapenerako kooperazioari emandako laguntzen araupetze ofiziala eta beste faktore batzuk ere erabakigarriak izan ziren. Gai honi buruz ikusi López Rey (2001).

[108] Aipagarria da hasiera batean GGKEek ez zutela paper garrantzitsua izan %0,7ko mugimenduaren sorreran. Hain zuzen ere, GGKEak ere harritu egin ziren, beste sektore batzuk bezala, mugimendu horren arrakastaz. Orduan GGKEek, batez ere CONGDEren bidez, laguntza eman zioten –batik bat baliabideak, azpiegiturak eta zerbitzuak eskainiz– mugimenduari eta kanpainari.
Gai honi buruz kontsultatu CONGDEren aktak.

[109] Esate baterako, egunkari batzuek, besteak beste ABCk, itzelezko babesa eman zioten, El País-ekin lehian.

[110] Gai honi buruz ikusi Calle 2000 eta Sampedro, Jerez eta Rey 2002.

[111] López Rey, 2001:29.

begira. Bestela esanda, GGKEak bat-batean sartu eta legeztatu ziren gizartean, eta eredu mediatiko horrek bultzatu eta harrapatu egin zituen aldi berean. Izan ere, eredu horren barruan egituratu, hazi eta eratu dira, harik eta gaur egun duten izaera finkatu arte. Horrexegatik dira mediatikoak GGKEak. Aurkezpen hark gizarte legezkotasun handia eman zien GGKEei, baina euren ordaina jaso zuten: elkartasunerako eredu mediatikoan itxi zituen, eta hezkuntza prozesuei barik, eragin telegenikoei eman zieten lehentasuna. Gaur egun, badirudi ez direla eredu horretatik aldentzeko gai.

Harrezkero, elkartasunaren eta garapenerako lankidetzaren alderdi azalekoenak eta telegenikoenak iritsi dira agenda mediatikora. Ñabardurak, arazoen funtsezko eragileak, egiturazko ezarpenak (esate baterako, garapenerako hezkuntza), ordea, kanpoan geratu ziren. Laguntza humanitarioa eta larrialdietarako ekintzak nabarmendu ziren, eragin handiko irudi gehiago sortzen zituzten eta.

Eredu mediatikoak komunikazioaren ikuspegi instrumental eta estuan itxi zituen GGKEak, eta zailtasun handiak dituzte eredu horretatik aldentzeko. Alderantziz, badirudi gero eta lokaztuago, geldiago daudela harea mugikorretan, logika mediatikoak -merkatukoak bezala- aseezinak direlako: ikuskizun eta sinplifikazio dosi handiagoa eskatzen dute egunero. Gainera, GGKEek dosi hori eskaini nahi ez dutenean edo eskaini ezin dutenean, biktima bihurtzen dira. *Ez dugu batere gustuko hedabideek guri buruz esaten dutena*, diote gaur egun defentsiban dauden GGKE etsiek edo ez hain etsiek[112]. Horrela azalduta, ez dirudi GGKEek erraz konponduko dutenik egoera hori.

### 7.2.2. Komunikazio produktuak kontrolatzeko zailtasunak

Eraentzen dituzten logika mediatikoek gertakari soilak, zatikoak balira bezala aurkezten dituzte gizarte egoerak, euren testuinguruetatik aldenduta, benetako arrazoi korapilotsuak aipatu gabe, eta alderdi hutsalak nabarmentzen dituztenez, arinkeriaz hartzen dituzte. Kontraesana ezin handiagoa da GGKEentzat: hedabiderik gabe gizarteak ezer gutxi ezagutzen ditu, eta hedabideekin, euren errealitatearen gezurrezko irudia jasotzen du gizarteak.

Halaxe da, gizartera iritsi eta atxikipenak lortzeko, irabazi asmorik gabeko erakundeek hedabideen premia dute. Dena dela, hedabideen logika kontuan hartuta, ez dago gertakari korapilotsuak azaltzerik eta ez dago egiturak aldatzeko moduko diskurtsoen berri ematerik. Horren ondorioz, GGKEak egoera kontrajarrian daude trabatuta, euren ezaugarri bereizgarriak alde batera utzi behar dituztelako (gizartearen aldaketa sustatu), jendartean nabarmendu eta bizirik iraun nahi badute. Bien bitartean, gizartean, benetan gertatzen denaren irudi desitxuratuak edo nahasiak dira nagusi.

Hedabideek ez dizkiete ateak ixten GGKEei -datuen arabera, gero eta gehiago agertzen dira hedabideetan, telebistako pantailan bertan ere bai (GGKE handiak, jakina)-, baina erakunde horiek logika mediatikoei men egin behar dietenez, neurri batean, euren burua saltzen dute albiste izateko. Gaur egun, berezko informazio eskubidea duten gizarte eragileak dira GGKEak, baina ordainetan, arrisku handiz berritu behar izan dute euren diskurtsoa.

Euren ikusgarritasun publikoari eusteko, euren komunikazio politikek, estrategiek eta egiturek erakundeen babesa behar dute, eta iparraldea-hegoaldea tragediako (erretorika diskurtsibotik haratago) egiturazko alderdiak leundu edo

[112] CONGDE, Txostena 1997:31. Kasurik eztabaidatuena El Semanal astekarian agertutako artikulua izan da: 2002-4-20. *"ONG's: la cara oculta de la solidaridad"*. Carlos Manuel Sánchez. Espainiako Garapenerako GGKEen Koordinakundearen (CONGDE) Gobernu Batzordeak komunikatu bat atera zuen, hain zuzen ere GGKEen errealitatea islatzen ez duten orokortasunak erabiliz ikuspegi murritza eta partziala eman zuela salatzeko, eta komunikatu hori 400etik gora GGKEk sinatu zuten Espainian. Komunikatuaren zati bat baino ez zuten argitaratu komunikabideek. Baina beste hainbat titular aipa ditzakegu, esate baterako: *"Juzgado el expresidente de una ONGD que no justificó los gastos de un viaje a Rusia. El acusado no ha acreditado en qué empleó 800.000 pesetas del Gobierno de Navarra"*, Diario de Navarra, 2000-6-2, 32; *"Abuso de niñas a cambio de galletas. Cientos de menores africanos denuncian violencia sexual por parte de empleados de ONG y fuerzas de paz de la ONU"*, El País, 2002-2-28, 6; *"El auto de Garzón relaciona la ONG de la alcaldesa de Lasarte con HB"*, Diario de Noticias, 2002-9-4, 49: edo oraintsu, "*La policía española vincula a ONG saudíes con Al Qaeda"*, El País, 2002-12-8, 5.

alde batera utzi behar dituzte. Horren ondorioz, are handiagoa da GGKE handiak eta ertainak zein txikiak banatzen dituen zuloa, esparru mediatikoaren gaineko eskumen osoa instituzionalizatzen da eta, bide batez, haratago doan gaia dela ezkutatzen da, arazoa ez delako bakarrik GGKEek euren zeregina arautzeko aukeratu dituzten abiaburuen letra eta izpiritua errespetatzea edo ez errespetatzea (ikus 3. eta 4. eranskinak).

**2. grafikoa: GGKEen informazioaren bilakaera (El País)**




Iturria: Sampedro, Jerez eta López Rey (2002: 279).

Dena dela, horrez gain, datuen arabera (ikus 2. grafikoa), GGKEek arrisku handiz ihes egiten dute aurrerantz, urtez urte, *sustapen eta adostasun* mezuak ugaritu egiten direlako, komunikazio produktu *arazotsuak* murriztu egiten diren bitartean. Horixe bera dio Sampedrok, Jerezek eta López Reyk egindako azterketak. Honako maila hauek erabiltzen dituzte autore horiek:

- *Sustapen* albisteak. Baliabideak lortzea eta GGKEen proiektuen emaitzen berri ematea dute helburu, testuinguru batean kokatzen dituen erreferentzia kritikorik egin gabe. Maila horrek gora eta gora egin du laurogeiko hamarkadaren erdialdetik.
- *Adostasun* albisteak. Honako hau dute helburu: proiektuak abian jartzeko baliabideak lortzea; dirua biltzeko asmoz eta kritikarik egin gabe, jolasa edo hezkuntza oinarri, jendea sentsibilizatzea; GGKEen eta administrazio zein enpresen arteko lankidetzaren berri ematea; eta erakundeak gizartean parte hartzeko eta borondatezko lana garatzeko bideak direla adieraztea.

- *Gatazka* albisteak. GGKEek gobernuen jarduerei aurre egiteko garatutako taldekako protestaldiak eta salaketak dituzte hizpide.

Datu horien arabera, badirudi GGKEen hezkuntza ahalegina oro har ari dela murrizten. Hori dela eta, argi eta garbi dago garapenerako hezkuntza ez dela gaur egungo irabazi asmorik gabeko erakundeen lehentasuna[113].

Bestetik, azken garaiotan, iragarkien eta lankidetzan parte hartzeko deien bidez, GGKEak (handiak eta ertainak) telebistako kate guztietan agertzen direnez, joera hori nagusi dela berresten da. Telebistak are gehiago bultzatzen ditu eragina eta sinpletasuna. Hori dela eta, sustapen eta adostasun mezuak dira nagusi, gatazka mezuen kaltetan, ia-ia agertu ere ez direlako egiten.

### 7.2.3. Komunikabideekiko gatazka estrukturala

Nik bi alderdi nabarmendu nahi nituzke. Beste erakunde batzuen aldean, hedabideetara hurbiltzeko orduan, GGKEek zergatik duten egiturazko desabantaila azaltzeko orduan, hedabideen euren ekonomia politikoa eta ezaugarri dituzten logika mediatikoak hartu behar dira kontuan.

a) Hedabideen ekonomia politikoaren eta erakundeen testuinguruaren ondorioz, GGKEak desabantailan daude instituzio eta gai ofizialen aurrean.

Hedabideekiko arazoek eragin berbera dute GGKE guztietan:

- GGKEek baliabideen kudeatzaileak baino ez direnean eta nagusi diren adostasunak mehatxatzen edo hausten ez dituzten diskurtsoak zabaltzen dituztenean, harrera ona ematen zaie. Horri lotuta, irabazi asmorik gabeko erakundeak derrigorrean sustatu behar dira hedabideetan.
- GGKEek benetako arazoak dituzte, gizarte mugimendu adierazgarriak edo gatazka mugimenduak direnean; gizarte adostasunak, mitoak (esate baterako, aurrerapena edo garapenerako lankidetzako sistema bera) eta instituzioak kolokan jartzen dituztenean; eta, batez ere, hiritarren partaidetza demokratikoari ateak zabaldu nahi dizkiotenean. Hona hemen bekatu handia: *statu quo*-ak aldez aurretik kontrolatuta ez dituen norabide autonomoetarantz mugitzea gizarte partaidetza. GGKEen erronka handia da aldi berean.

*Dohainen truke, GKE kudeatzaileek hiritar-kontsumitzailez osatutako gizarteari "saldu" ohi diote elkartasuna segurtasun eta kontzientzia onaren aktiboa dela. Hain zuzen ere, gero eta gehiago sustatzen dute arrazoi morala duen merkataritza harremana (Aguirre, 1999). Gatazka GKEek, ordea, zenbait adostasun eta instituzio jarri nahi dituzte kolokan informazioaren bidez, globalizazioak ongizate estatuetan sortzen dituen arazoen berri ematen ez dutelako eta hiritarren partaidetza demokratikoa onartzen ez dutelako (Alonso, 1999). Jendaurreko informazio ekintza da, eta lehen urratsa da, gizartea aldatzeko ekintzara heltzeko subjektibotasuna sortzeko (haserrea). Nolanahi ere, kasu bietan, ezinbestekoa da hedabideen laguntza*[114].

Argi eta garbi dago: GGKEen kultura instrumentala denean (eta kudeaketaren eredua aukeratzen dutenean), hedabideekin dituzten arazoak gutxitu egiten dira edo desagertu[115]; kultura adierazgarria edo dialogikoa aukeratzen dute-

[113] CONGDE. VV.AA.k egindako ikerlan baten ondorioetako bat (2000): *Una mirada hacia el futuro. Panorama actual y desafíos de la Educación para el Desarrollo en las ONGD de la Coordinadora.* CONGDE. Madril. Bestetik, hezkuntza eta komunikazioa ere ez dira lehentasunezkoak laguntza eta garapenerako kooperazioarekin zerikusia duten azterketa akademikoetan. Posgraduen %2 eta %4 artean bakarrik dedikatzen dira informaziora, eta %2 bakarrik hezkuntzara. Pérez (1999), López Rey (2001:125).

[114] Sampedro, Jerez eta López Rey (2002:256).

nean (eta gatazkaren eredua aukeratzen dutenean), ordea, hedabideek ateak itxi ohi dizkiete.

Horri lotuta, hedabideek eurek dituzte arazoak ohiko egoera kolokan jartzen duen edozein erakunderekin (GGKEak edo erresistentzia globaleko mugimenduak). Izan ere, hedabideek botereari eta ekonomia, politika eta gizarte arloko eragileei egindako kritika nekez (egoeraren arabera baino ez) igarotzen da ezarritako ordenaren kudeaketaren dimentsiora. Hedabideek ez dute jendearen talde ekintza sustatzen: nagusi diren proiektu ekonomiko eta politikoekin daude lotuta eta ikus-entzuleak dituzte helburu (iragarleak pozik egoteko eta etekin ekonomiko handiagoak lortzeko), eta ez, gizarte dinamikan parte hartu nahi duten ikus-entzuleak. Egiturak auzitan jartzen dituztenen ahotsak baztertu, desitxuratu eta isilarazten dituzte. Hori dela eta, GGKEek laguntza mediatikoa galtzen dute, diskurtsoak erabiltzen dituztenean eta egiturazko arrazoiak aipatu edo egitura horien aldaketak azkartzen dituzten gizarte jarduerak sustatzen dituztenean.

Horren ondorioz, hedabideetatik, sistemaren kudeaketa jarri ahal da auzitan (eraginkortasunari begira), baina nekez jar daiteke auzitan sistemaren egitura edo sistema bera. Behin eta berriro goitik beherako kritika egiten duten ahotsek (egiturak desegokiak direla adierazi eta arrazoiak zein erantzukizunak aipatzen dituztenek) egiaztatu egiten dute euren diskurtsoak albo batera uzten direla (euren botere subertsibo guztia galtzen dute, hedabideek esparru diskurtsibo hutsalen barruan islatzen dituztelako) edo isilarazi egiten dituztela. Gizarte mugimenduen aztarna GGKEen izaeran bertan dagoenez, ñabardurak ñabardura, sistemaren egiturak kritikatzen dituzte euren diskurtsoetan eta euren gizarte jardueren bidez aldatu nahi dute sistema hori. Orduan, gatazka sortzen da talde ekintza sustatu nahi ez duten hedabideen (ez dute diskurtso korapilotsuetarako lekurik) eta bete-beteko partaidetza euren jardueraren helburutzat hartzen duten GGKEen artean (azkenean, errudunak nortzuk diren adierazten duten prozesu korapilotsuak bultzatzen dituzte). Hori dela eta, GGKEen eta hedabideen arteko loturak anbibalenteak dira oso (limurkeriak, konplizitateak, ezarpenak eta negoziaketak dira nagusi). Lotura kontrajarri horiek GGKEen eta sistemako beste instituzio batzuen arteko topaketen ezaugarri ere badira; esate baterako, administrazio publikoak, merkatua edo armada (urrunago joan gabe, armada berriro legeztatu da gizartean, kontraesana badirudi ere, arlo humanitarioan murgildu delako).

b) Horrez gain, hedabideek erabiltzen dituzten logika mediatikoetan, ez zaie ongi etorria ematen gatazkak antzeman, onartu eta sustatzen dituzten diskurtsoei. Zentzurik gabe utzi eta *onera ekartzen dituzten esparruetan sartzen dituzte, subertsiorako ahalmena* gal dezaten[116].

Hasiera batean, aurrez aurreko borroka dago kazetaritzako baloreen eta GKEen artean. Hona hemen azalpena:

- Kazetaritzako baloreek honako honi ematen diote lehentasuna: gai hurbilak, ikus-entzuleen ohiko bizimoduan dauden inplikazioak, berrikuntza, ikusgarritasuna, ulertzeko erraztasuna.
- GGKEek kanpoko politikako gai urrunak dituzte hizpide (ikus-entzuleen eguneroko kezkekin zerikusirik ez dutenak). Horrez gain, aktore ezezagunak dituzte protagonista, eta kazetaritzakoa baino geldoagoa eta pedagogikoagoa den denbora behar duten errealitateetatik atera dira.

Beraz, hedabideak ez dira garapenerako hezkuntzarako plataforma egokiak.

[115] Dena dela, gestioko ereduaren alde egiten duten GGKEak ere ez daude ziur komunikabideekin: besteei baino hobeto esaten dieten arren, GGKEei buruz ematen den informazioa testuinguruz kanpokoa eta ikusgarria izaten da orokorrean, eta nahasmen horretan jendeak ez ditu gauzak argi bereizten. Bestetik, gestioko GGKEek ere nolabaiteko diskurtso antisistema bat egin behar dute, gizartean sinesgarritasunik galdu nahi ez badute.

[116] Hori egunero-egunero egiaztatu daitekeen zerbait da, esate baterako egunkari bat irakurriz. Egunkarietako orrialdeetan GGKEen iragarki txikiak agertzen dira, normalean doanekoak. Laguntza eskatzekoak izan daitezke, baina inguruan era guztietako iragarkiak izaten dituzte, adibidez: etxeetan inbertitzekoak, zakila luzatzekoak, autoak saltzeko. Edo era honetako informazioak: Afganistan suntsitu egin behar da, delinkuente arriskutsu batzuen atxiloketa, Raulen golak, edo telebistako azken programa. Eta ez diot esatearren: oraintxe bertan ikusten ari naiz horrelakoak. Ez dut datarik emango eguneroko kontua delako hori.

## 7.3. Arrisku nagusiak

Bi muturretako batean erortzea da GGKEen egoeraren arrisku nagusia:

### 7.3.1. Sare mediatikoetan atrapatuta

Hona hemen GGKEentzako mehatxu handiena: mezu kritikorik ez helaraztea, gizartea mugitzeko asmoa euren ideietatik ezabatzea eta logika mediatikoetan murgiltzea. Oro har, jokabide kodeak bortxatzeko eta sarritan kontrajarria den oreka zailean mugitzeko joera antzematen da letran edo izpirituan.

Sampedrok dioenez, hedabideetara iristen jakin behar da, baina ez gara inoiz bertan geratu behar. Ahal bada, *parasitatu* egin behar dira[117]. Soggek kontuan hartu beharreko alderdia aipatzen du. Estrategiak kultura bihurtzen dira eta GGKEen izaera aldatu ahal dute, eurek antzematen ez badute ere. GGKEek euren burua sustatzeko grina dutenez -diru-sarrerak eta ospea bilatzen dituzte- eta hiritar-kontsumitzaileei elkartasuna saldu nahi dietenez, itzulerarik gabeko ibilbidean murgildu ahal dira GGKEak. Hain zuzen ere, asmatu egin behar dute *nola sartuko duten berriro untxia kapelan*[118], animaliak eskuetatik ihes egin digunean, bere kabuz bizitzen ikasi duenean eta gehiegi loditu denean. Hasiera batean, GGKEei irabazi handiak eman zizkien magia jokoa jukutria bihurtu da. Jarduera instrumentalek *harreman eta ainguraleku instituzional berriak irekitzen dituztenez, erakundearen abiaburu ziren erreferente etikoak eta ideologikoak eta gizarte loturak aldatu ahal dituzte amaieran*[119].

Jarrera instrumentala (engainupean geure gain hartuta: gaur, merkatuaren araberako komunikazioaren esku jartzen naiz, baina dirua lortzeko besterik ez; eta horrela, errealitatea aldatu ahal izango dut bihar) prozedura zuzenen bidezko kulturan solidotzen da. Gainera, merkataritzako logikak barneratu direnean, oso zaila da euretatik urruntzea, are gehiago, GGKEen inguruko dinamika ezin azkarragoetan.

### 7.3.2. Sare mediatikoetatik kanpo geratzea

Era berean, aurkako joeraren kontrako txertoa ere jarri beharko dugu: (ohiko) hedabideak ez erabiltzeko erabakia hartu eta aukerako komunikabideetara jo irtenbide bakar moduan. Gaur egun, jakin badakigu geure buruaz beste egingo genuela ohiko hedabideetatik baztertuko bagintuzte edo gu geu baztertuko bagina. 80ko hamarkadan sortutako aukerako komunikaziorako esperientzia ugariek asko irakatsi ziguten (kapital kultural handia dugu harrezkero). Dena dela, batez ere, aukerakoa ez idealizatzen eta, itzultzeko atea irekita utzi gabe, sistemako mugetatik ez irteten irakatsi ziguten. Orain, diskurtsotik haratago, gero eta GGKE gutxiagok egiten diote muzin hedabideetan agertzeari.

- GGKE handiek gero eta lotura handiagoa dute instituzio eta enpresekin. Euren baliabide handiak eta logika mediatikoak erabiltzen dituzte, marka irudia edo erakunde irudia sortzeko. Horrela, bada, etekinak lortzen dituzte ekonomia zein erakunde mailan. Doako publizitatea dute bermatuta, laguntza humanitariorako eta larrialdietarako proiektuetara bideratzen dituztelako euren komunikazio jarduerak, eta horrela, hedabideek eskatutako ikusgarrita-

[117] Sampedro, *ComunicAcción: Comunicación para la solidaridad y la acción colectiva* jardunaldia. Hegoa. Bilbao. 2002-11-20.

[118] Sogge, 1998: 259 eta III. kapitulua.

[119] Sampedro, Jerez eta Rey, 2002:257.

suna eta dramatismoa eskaintzen dituzte.

- Gatazka GGKEek (ertainek eta txikiek batez ere) salaketarako baliabide gutxi dituzte. Gutxitan gainditzen dute euren barne komunikabideen barne izaera eta gutxitan hedatzen dituzte elkarteko lagunen ingurutik haratago.

Bi erronka nagusiri aurre egin behar diete: komunikazio egitura eta politika erkideak bilatu eta aukerako komunikabideak asmatu berriro, baina ez iraganeko buru-bazterketatik, Interneten eta teknologia berrien begirada jendetsu eta mugiarazletik baizik.

### 7.3.3. Hedabideek GGKEetan jarduera politikoan eragindako arazo berberak sortzea

Hedabideek presiopean dituztenez, GGKEak edukirik gabe geratu ahal izango lirateke. Ikusi dugun bezala, arrisku hori maila politikoan gauzatu da. Politika simulakro hutsa da -zinismo politikoa-, eta alderdi politikoak hauteskunde ikuskizunak sortzeko eta kudeaketa administratiboa banatzeko makinak dira. Horrek guztiorrek zerikusi handia du parte hartzeko inhibizioarekin eta gizarte erakunde gehienen sinesgarritasunaren galerarekin. GGKEek gizarte heroi berrien ospe babeslea galtzen ari direla jakin badakitenez, ikasgaia ikasi behar dute eta zintzoak izan behar dira lelotzat hartzen duten instantziak gero eta gutxiago onartzen dituen gizartearekin[120].

## 7.4. Konponbideak bilatzea

### 7.4.1. GGKEen eta hedabideen arteko benetako harremana ezagutzea

Kontraesana badirudi ere, gizartea aldatzeko eredua aukeratzen duten GGKEentzat hedabideek baztertzea bezain kezkagarria izan behar da hedabideek onartzea. Hedabideekiko lankidetzaren eta borrokaren arteko berezko tentsioa onartu behar dute GGKEek. Eraginkortasunez aurre egiten ikasi behar dute, beste instituzio batzuekin egiten duten bezala; esate baterako, estatua edo merkatua. Kritika eta ezinbesteko lankidetza bateratu behar dituzte.

### 7.4.2. Aukera mediatikoetarako egitura berriak sortu eta aprobetxatzea

Negoziaketa emankorrerako giro hori sortzeko, gaitzetsi behar ez dituzten abiaburuak eta keinuen zein konplizitateen bilaketa bateratu behar dituzte GGKEek. Egoera onak igaro egin direnez, aukera mediatikorako egitura berriak bilatu, eraiki behar dira. Nola egin? Beharbada, oraindik ez dugu oso argi, baina badakigu zerbait:

- GGKEek ez dute zer irabazirik, hedabideekin zuzenean eta aurrez aurre borrokan egiten badute.
- Borroka horretan, lagundu nahi dieten mugimendu eta instituzio guztien laguntza behar dute GKKEek: itunak, hitzarmenak eta mankomunitateak erabakigarriak dira.

### 7.4.3. Hedabideei eta profesionalei buruz pentsatzen hastea hedabideetatik kanpora

[120] Adibide asko eman genitzake. Serbiako kasua oso adierazgarria iruditzen zait. Bigarrenez, presidentziarako hauteskundeak bertan behera utzi behar izan dira hautesle faltagatik. Ez dago modurik hauteskundeetan gutxienez hautesleen erdiek parte-hartzea lortzeko. Dirudienez, jendea ez dago prest ustezko demokrazia bat legitimatzen jarraitzeko: goitik eta kanpotik hartuta dauden erabakientzako onespen bila dabilen sistema bat da. Serbiarrak ez daude prest legezko zilegitasunik emateko NATOk antolatu eta burututako *"trastorno historiko"* bati (herrialde bat bonbardatu eta suntsitu, oposizioko gerrillak armaz hornitu, txotxongilo-gobernua ezarri, gobernua suntsitu eta, gero, Milosevic entregatuko dutela esanez xantaia egin). *"Parece un pueblo razonable: o sea, que mantiene aún vestigios de razón"* esan zuen. E.Haro Tecglen, *Cosas de serbios*, 2002-2-10,61).

Zeregina oso garrantzitsua eta korapilotsua denez, praktika handia behar da:

Lehenengo eta behin, kazetariak GGKEen borroken bozeramaile publikoak izan daitezen eta hedabideak lan horren berri emateko plataformak izan daitezen, GGKEek behar duten laguntza lortu nahi badute, beste modu batera begiratu beharko diete profesionalei eta hedabideei, hau da, arazoak ere badituzten erakundeak bezala.

a) Hedabideen zenbait arazo:

- Teknologia berrien bultzadaren, pilaketa eta globalizazio prozesuen eta izugarrizko lehiakortasunaren ondorioz, goitik behera aldatzen ari dira une honetan.
- Zenbait hedabideren errentagarritasun ekonomikoa (esate baterako, prentsa idatzia edo irratia) kolokan dago: munduko iragarle guztien publizitate aurrekontuaren %20 *on-line* iragarkietan inbertituko da 2003. urtean[121].
- Era berean, gero eta arazo gehiago dituzte jendearekin, eta badirudi gizartean sinesgarritasuna galduko dutela: esate baterako, ikus-entzuleek gero eta konfiantza gutxiago dute telebistan (telebistako saioak ikusten badituzte ere, ez dute ezinbestean sinesten bertan esaten dutena), bilatzen dituzten albisteak aurkitzen ez dituztela diote eta nekatu samar daude saio guztiak antzekoak direlako[122].

b) Komunikazioko profesionalen zenbait arazo:

- Une honetan, nora ezean daude, euren lanbidearen oinarriak auzitan jartzen dituen desorientazioa eta zalantza direlako nagusi: Internetek eta komunikazio bulegoek euren lana interpretatzeko eta egiteko moduak aldatzen dituzte (zenbait autoreren esanetan, desagertzear dagoen lanbidea da)[123].
- Aurrekaririk gabeko lanbide eskasiaren biktimak dira, eta ez dute mehatxu horri aurre egiteko behar besteko erakunde edo elkarte pisurik.
- Informazioaren kalitatearen eta euren lanbideak gizartean duen ospearen galeraren lekuko mutuak dira[124].

Azken batean, GGKEek kezka horiek guztiak erabili behar dituzte, elkarguneak bilatzeko eta hedabideak erabiltzeko negoziaketak eta aukerak sortzeko. Aldaketaren zantzuak -ahulak, baina gero eta zehatzagoak- antzematen dira, hutsune asko badaude ere[125]. Dena dela, badirudi arazo horiek larriagotu egingo direla etorkizunean, eta hedabideen gizarte erantzukizuna gai goria izango dela hurrengo urteetan.

Bigarrenez, gizarte mugimenduentzako baldintza politiko egokiak lortu beharko dira, hedabideentzat interesgarriak izan daitezen:

- GGKEen arteko mezuak adostu, ahalik eta biztanle gehienengana iristeko.
- Jarduerak adostu, ordezkari politikoak presionatzeko. Horrela, bada, mugimenduei buruz eztabaidatzen dutenean, mugimenduen bozeramaileak izango dira kazetarien aurrean[126].

121 El País, 1999-11-14

122 *"Los medios en España: tendencia del lector, oyente y espectador del 2000"* ikerlana. Ibérica de Comunicación, Análisis de Información (Ibecom). Madril.

123 Gai honek bete-betean eragiten die baita ere prestakuntzari eta komunikazio ahalmenei.

124 "Prestige" ontziak Galizian eragindako hondamendi ekologiko eta sozialaren kasuan Partido Popularrak informazioa ezkutatu du, kazetarien lana oztopatu eta edukiak zentsuratu ditu, eta horren aurrean kazetariek Francoren diktadura garaian bezala erreakzionatu dute. Telebista katearik gehienek bertara eraman zituzten kazetariak, gobernuak ez zuela benetako informaziorik ematen ikusi zutenean. Galiziako Kazetarien Elkargo Profesionalak komunikatu ofizial bat atera zuen zentsura eta gobernuaren jarrera onartezina salatzeko. (2002-12-6).

125 Esate baterako, Europako ikus-entzunezkoen politikari buruzko hutsunea, edo Espainian alderdi politiko handiek telebistaren erabilera edo komunikazio formula berrien jabetza euren artean banatzeko duten adostasuna.

[126] Presio politikoa, horrela ulertuta, dagoeneko GGKEek ia guztiz utzita duten jarduera bat da. Asko dute jokoan eta berreskuratu egin beharko lukete. Hain zuzen ere, gay eta lesbianen elkarteek adierazi dute, datozen hauteskunde autonomikoetarako, euren eskakizunak onartu dituzten alderdiei emateko botoa eskatuko dutela. Gai honi buruz ikusi Sampedro 2002.

[127] Sampedro, Jerez eta López Rey 2002.

### 7.4.4. Hezkuntza lan berria eta balio anitzeko estrategia baten aldeko apustua

Amaitzeko, GGKEek argi eta garbi izan behar dute euren komunikazio helburuak zabalagoak izan behar direla, oihartzun handiagoa izan behar dutela. Logika mediatikoetara egokitutako mezuen bidezko ikusgarritasun mediatikotik haratago joan behar dira. Ikusmina sortzeko, merkatuko logikaren barruan lekurik ez duten premiak adierazteko eta instituzioen geldotasuna auzitan jartzeko sortu ziren.

Zeregin pedagogiko berrirantz bideratu beharko dute komunikazioa, eta, batez ere, gizarte partaidetza izan beharko dute helburu. Horretarako, egoera aktiboak sortu beharko dituzte, hiritarrek taldean lan egin dezaten eta eskubideak, autonomia, onarpena, salaketa... lor ditzaten. Gizarte edo hezkuntza komunikazio hori inolako arazorik gabe bateratu ahal da egitura mediatikoak demokratizatzeko eskaerarekin eta komunikazioaren erabilera estrategikoarekin[127].

# 8. Politika, estrategia eta egiturak diseinatzea: GGKEetan komunikazioa lantzeko proposamena

Presaka ibiltzea da komunikazioaren inguruan mugitzen garen pertsonen ezaugarri bereizgarria. Hedabideek euren lan-erritmo azkarra sartu digute gorputzean. Itsu-itsu gabiltza hemen eta oraina harrapatu nahian (egia esan, ia-ia beti ihes egiten digute hatzen artetik), eta eskatzen digutena eskaini nahian: emaitza zehatzak, ukigarriak, eraginkorrak eta berehalakoak. Dena dela, hori ezinezkoa da gehienetan, mirariek lekurik ez duten arloan -garapenaren arloan- komunikazioaz hitz egiten dugunean, behintzat. Instituzioen berezko erritmoak azkartu, berehalako ondorioak agindu eta emaitza ukigarriak bezain ikusgarriak bilatu nahi baditugu, porrot egingo dugu aldez aurretik.

GGKEen ingurunean, komunikazioa bideratzeko orduan, gizarte eta hezkuntza ikuspegitik egiten ditugun proposamen guztiak erabakigarriak bezain lasaiak izan beharko dira. Goizetik gauera sortzen ez diren eraldaketa sakonak ditugu hizpide. Zuhurtziaz eta zintzotasunez jokatu behar da GGKEetan.

Berehalako arazo zehatzei ustezko irtenbideak ematen dizkien irismen handiko politika diseinatzeko, zenbait trebetasun izan beharko dira. Nire ustez, lau ideia dira garrantzitsuak:

- Argitasuna. GGKEei gaur egungo egoera erakusten jakin: larritasun, premiatasun, zuhurtzia eta itxaropen marrazkia.
- Lasaitasuna. Arazoei aurre egiteko ikuspegiak eskaintzen jakin: irtenbide soilen bidez -beteko ez dena aginduta- aspaldiko gatazka korapilotsuei aurre egiten ahalegindu beharrean. Behar besteko lan eta erritmoaren bidez aurre egiteko aukerak eskaini.
- Aukera. Proposamenak nori eta noiz egin behar diren jakin: garai zailak izango dira GGKEentzat, euren kontraesanen ikusgarritasuna handituko delako eta, aldi berean, komunikatzeko beste modu bat aurkitu behar izango

dutelako. Komunikazio proposamenak entzuteko gaitasunak gora egin behar du, komunikatu nahi duten GGKEetan, behintzat. Hortxe egon beharko da, erritmoa biziagotu gabe, baina adi-adi, lanean.

- Gaitasuna. Nola eta nondik hasi jakin. Inork ez du formula magikorik -batzuek eduki badituztela dioten arren-. Nire ustez, argi eta garbi izan behar dugu nondik hasi behar den ondo prozesua, eta horretarako, egoeraren benetako arrazoi sakonak hartu behar dira kontuan. Ondoren, askoz ere natural eta errazagoa da bat egitea, gizartearen sormena eta komunikazioaren aberastasuna gidariak izatea, egitea eta eginez ikastea. GGKEak eta, oro har, gizarte mugimendu berriak bizitzen hasi berri dira: oraindik ere badute zer eginik.

Ideia horiek zehazteko, komunikazio jarduеretarako aukera bihurtzeko, honako hauek oinarri dituen proposamena garatu dut:

- Lan honen ondorioak aztertu.
- Oinarrizko puntuak antzeman: komunikazio begiradak diseinatzeko orduan, kontuan hartu behar duguna.
- Komunikazioa aldatzeko eta komunikazio politikak, estrategiak eta egiturak diseinatzeko proposamenaren zirriborroa, bi norabidetan:
    - Gaiari buruz etengabe hausnartu eta prestatzeko egitasmoak egin (GGKEek eta komunikatzaileok denbora eta eztabaida beharko ditugu, komunikazioa zer den jakiteko).
    - Komunikazio ekintza eta jarduera zehatzetarako egitasmoak eraiki (komunikazioa sortzeko politikak eta estrategiak).

Hain zuzen ere, bidean bertan agertuko dira bidaia horri ekiteko behar diren komunikazio egiturak.

Nire asmoa ez da oso ondo antolatutako proposamenak aurkeztea -ez ditudalako-, bidea urratzea eta eraikitzeko bideak iradokitzea baizik. Horretarako, *Komunikaziorako eta garapenerako lankidetzarako tresnak* izeneko ahaleginak sortutako hausnarketak hartuko ditut kontuan.

## 8.1. Ondorioak

Lehenengo eta behin, lan honen ondorio nagusiei buruzko laburpena egingo dut. Ondoren, gizarte eta hezkuntza komunikazioa garatzeko orduan, niretzat ezinbestekoak diren alderdiak azalduko ditut.

### 8.1.1. Laburpena

Hona hemen gai nagusia. Bere garaian, estatu espainoleko GGKEek eredu kultural mediatikoa aukeratu zuten, eta harrezkero, baliabide eta ospe gehiago lortu nahi dituen komunikazio merkaturatua izan da nagusi.

Hori dela eta, arazo ugari dituzte, baina batez ere, irteerarik gabeko tunel batean sartu dira. Komunikazio merkaturatuaren ondorioz, GGKEek -batez ere, hedabide jendetsuen eta merkataritzako komunikazioaren filosofien eta tresnen bidez- jarduteko logika eta modu oldarkorragoak eta komertzialagoak erabili dituztenez, ez datoz bat ez GGKEen izaera kritikoarekin, parte-hartzailearekin eta aldatzailearekin ez euren diskurtsoarekin. Beraz, GGKEen komunikazio egoera harrapatuta dago, konpondu beharrean, arazoak larriagotzen ari direlako.

Komunikazio merkaturatuaren ikuspegia itogarria denez, honako honetarako eragozpenak dituzte GGKEek:

- Ez dute komunikazio prozesuen gizarte eta hezkuntza esanahia antzemateko moduko sentsibilitaterik. Horrela, bada, ez dute gizarte eta hezkuntza komunikazioa *ezagutzeko* aukerarik.
- Erakundeetan bizitasuna bestelakoa bada ere -izaeraren eta tamainaren arabera, batez ere-, ez dute antzematen arazoak GGKE guztietan duela eragina. Izan ere, laguntzaren nekea erakunde horien diskurtsoaren nekea ere izan daiteke.
- Ez dute ulertzen txarto interpretatutako (erabilera instrumentalera eta alderdi teknikoen prestakuntzara mugatutako) komunikazioaren hobekuntza teknikoaren eta profesionalizazioaren alde egiten dutela. Horrela, bada, arazoa konpondu beharrean, larriagotu egiten dute:
    - Komunikazio pastela lortzeko orduan, GGKEen arteko lehia areagotzen da (hedabideetan duten agerpena).
    - Iparraldea-hegoaldea haustura agertzen da, GGKE handien, ertainen eta txikien artean.
    - GGKEek menpekotasun handiagoa dute komunikazio arloko teknikari eta espezialistetan. Hedabideen, publizitatearen eta *marketingaren* aurrean, eskuak lotuta dituzte, bai eta kontratatzen dituzten komunikatzaileen euren aurrean ere. Izan ere, kazetaritzatik edo publizitatetik datozenez, ez dute gizarte komunikaziorako prozesuak lantzeko moduko prestakuntzarik eta esperientziarik.
- Ez dira gai arriskuaren gizartean gizabanakoek dituzten onarpen zalantzei eta premiei erantzuteko. Hori dela eta, GGKEek arazo handiak dituzte gazteak erakartzeko.

GGKEen arloan mugitzen diren komunikatzaileek ekimena izan behar dute, eta honako hau frogatu behar diete GGKEei:

- Komunikazioa ez da edozein instituzioren beste dimentsio bat: behetik gora eta barrutik kanpora zeharkatzen du. Zerikusi handia du onarpenarekin, gizakien eta gizarte taldeen ezaugarriekin eta hezkuntzarekin.
- Komunikatzeko estiloa aukeratzeko orduan, GGKEen kultura instrumentala edo adierazgarria eta dialogikoa hartu behar da kontuan. Azken batean, aukeraketa politikoaren araberakoa da: iparraldea-hegoaldea harremanen egiturak aldatu (*gatazka GGKE*) edo zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeak izan (*kudeaketa GGKEak*).
- Ikuspegi biak bestelakoak badira ere, elkarrekin bizi direnez, tentsioak, eskizofreniak eta nora eza sortzen dituzte GGKEetan bertan. Ezin dute elkar baztertu.

- Irtenbidea GGKEen agendan omen dago. Hona hemen lehentasunak:
  - Lehenengo eta behin, eraldaketa (gizarte mugimenduak diren GGKEak sortu berriro).
  - Bigarrena, integrazioa (zerbitzuak ematen dituzten agentziak).
- Gaur egungo egoera: berezko ordena aldatu egin denez, bete-betean integratzeko eredua da nagusi. Etorkizunean, GGKEtzat hartzen dugunak zerikusi handia izango du zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeekin, eta menpekotasun handia izango dute gobernuetan eta merkatuan.
- Internet ez da beste komunikabide bat (azkarragoa eta informazio joan-etorri handiagokoa), antolatzeko, elkarrekin egoteko eta errealitatea aldatzeko modu berria baizik. Internet irudikeria edo museoko objektua baino zerbait gehiago izan dadin, GGKEek begirada komunikatiboa aldatu behar dute sarera hurbiltzeko orduan.
- GGKEek oso gutxi eta txarto erabiltzen dute sarea: arlo horretan asko ikasi behar dute gizarte mugimenduetatik.
- Eredu mediatikoak GGKEak harrapatu ditu. Hedabideetan agertzeko, GGKEek euren izaera aldatzailea jarri behar dute kolokan (sustapen eta adostasun mezuak hedatu). Hala ere, ez dute euren komunikazio produktuak kontrolatzerik.
- Hedabideek euren logikei dagozkien egiturazko mugak dituztenez, GGKEen eta hedabideen arteko berezko harremanean lankidetzaren eta gatazkaren arteko tentsioa da nagusi. Beraz, GGKEen estrategiak balio anitzak eta oso malguak izan behar dira, kazetariekin eta hedabideekin elkarlanean aritzeko eta, aldi berean, komunikazio mediatikoaren demokratizazioa eskatzeko.

### 8.1.2. Ahaztu ezin diren ekarpenak

Gizarte komunikazioa zer den, hezkuntzan nolako ekarpenak dituen eta nola hasi ahal garen ezartzen azaltzeko orduan, oso gogoan izan behar ditugu zenbait alderdi:

- Gizarte komunikazioa prozesuen multzoa da, eta mugitzeko orduan, estatuari, merkatuari eta botere-iturri nagusiei politikoki galdegiten eta adierazten dieten gizarte eragileak jartzen dituzte abian, komunikazio produktuen ekoizpenaren, igorpenaren, hedapenaren, jasoketaren eta erabileraren bidez. Hedabideetan informazioak hedatzea baino korapilotsuagoa da. Horrez gain, bi galdera deseroso sortzen dira: Komunikatu egin nahi dute GGKEek? Zertarako?

  Bere hezkuntza boterea profesionalizazioa ohi ez bezala ulertzeko moduan datza. Honako hiru alderdi hauek kontuan izan behar ditugu beti:

  - Komunikazioaren sozializazioa.
  - Komunikazio eskumena.
  - Komunikazio arloko erantzukidetasuna.

- Gizarte komunikazioak baino ezin die erantzun nortasunaren gaur egungo erronkei. Erreferenteak etengabe negoziatzen ari den gizarte zalantzagarriak komunikazio eraginkorra behar du, gainjarrita dauden nortasun bizien bezain irekien berri emateko. Gorputzetik bertatik bizitako komunikazioa (adierazgarria).

- GGKEek komunikatzeko eremuak, denborak eta prozesuak sortu behar dituzte (*leku antropologikoak*), eta giza eskalakoak izan behar dira. Giza eskalako garapena behetik eta barrutik bertatik baino ezin da egin, giza eskalara egindako lekuetatik.

- Onerako edo txarrerako, den-denak komunikatzen du eta komunikatzen duen guztiak hezten du. Horra hor hezkuntza komunikazioa. Horrela ulertutako komunikazioak nortasunen arteko elkarrizketarekin du zerikusia. Hori dela eta, ez dago adierazgarritasunik gabeko estrategiarik (zama sinbolikoa: nortasunen elkarrizketa), ez eta estrategiarik gabeko adierazgarritasunik (helburu zehatzak: errealitate materialak). Garapen proiektua egitea bezain garrantzitsua da besteen, gizarte baztertuen ahotsa iritzi publikoari jakinaraztea. Dena dela, euren ahotsak oihartzuna eta materialtasuna izango ditu, ideia abstraktuen eztabaidatik barik, behetik, garapen proiektuaren eguneroko zereginetik sortutako topaketaren berezko emaitza denean.

- Gizarte komunikazioa garatzeko, politika sortu behar da berriro, hau da, hiritarrak (kritikoak, autonomiadunak eta arduratsuak). Dagoeneko desagertu den iraganetik jarauntsitako ideiak desmitifikatu behar dira; esate baterako, apolitizismoa eta neutraltasuna, gero eta kontrajarriagoak direlako. Erakundeen politikatik haratago joan behar da. GGKEen eta gizarte mugimenduen arteko hutsunea bete behar da.

- Erresistentzia globaleko mugimenduen aldean, GGKEak oso atzeratuta daude, Interneten eta informazioaren teknologia berrien benetako izaera ezagutu eta ustiatzeko orduan. Asko eta asko ikasi ahal dute erresistentzia globaleko mugimenduetatik, aspaldi antzeman zutelako:
  - Interneten ondorioz, komunikazioa gizarteratu egin behar dela (giza sarea da lehen sarea).
  - Jabetze eta erabilera berriak eskaintzen dituela.

- Hedabideekin egiturazko arazoa dago, baina era berean, bere garaian GGKEk aukeratutako eredu mediatikoak sortutako gatazka ere bai. Hedabideetara iristen jakin behar da, hedabideak erabili ahal izateko, eta ez, hedabideen merkataritzako logika mediatikoetan harrapatuta geratzeko. Horretarako, gizarte komunikaziorako politikak eta balio anitzeko estrategiak garatu behar dira, eta eraginkortasunez bateratu behar dute lankidetza-gatazka dialektika.

## 8.2. Lan proposamena

Hiru ideia nagusitan egituratzen da:

- Gizarte komunikazioa zer den eta zertarako erabiltzen den ezagutu (zer egin daitekeen).
- *Komunikazio merkaturatuaren* mugak ezagutu (zer egiten ari den).
- Komunikazio batetik bestera igaro ahal den eta nola egin ahal den ezagutu.

### 8.2.1. Proposamenaren oinarriak

a) Komunikazio merkaturatuaren mugak ezagutu (zer egiten ari den).

Erronka zaila da benetan. Komunikatzaileak garenez, GGKEei *adierazi* behar diegu egiten ari diren guztiak ez duela zentzurik eta ondorioak kaltegarriak izan ahal direla. Horrez gain, lasai-lasai hitz egin beharra dago hori lortzeko, GGKEak baliabide gutxi eta premia asko dituzten erakundeak direlako eta ezin diegulako berehalako erantzuna eman komunikazioan dituzten arazo zehatz guztiei.

1. taulan, *ezagutza* horretan sortuko diren zenbait arazo jaso nahi izan ditugu, baina, era berean, arazo horiek konpontzen ahalegintzeko aukerak eta moduak ere bai.

**1. taula: Komunikazio merkaturatuaren mugak ezagutzeko arazoak, aukerak eta moduak**

| Arazoak | Aukerak | Moduak |
|---|---|---|
| • Aurrerantz ihes egin.<br>• Ez dago komunikazio esparru zehatzik.<br>• Kultura instrumentala.<br>• Integratzeko jarreraren garaipena.<br>• GGKE ugari GGKE guztien barruan.<br>• Arazoa teknikoa dela pentsatu.<br>• Denbora eta baliabideak bilatu. | • Arazoa lokatu.<br>• GGKEen gaur egungo eredu mediatikoa gainditu.<br>• Hedabideekiko arazoa konpontzen hasi.<br>• Merkataritzako komunikazioko filosofia eta tresnekiko gatazka.<br>• Esparru mediatikoak lortzeko orduan, GGKEen arteko lehia gainditu.<br>• GGKE handiak-txikiak hausturari aurre egin.<br>• Diskurtsoa berritu (diskurtsoaren nekea).<br>• Jendea mugitu (bazkideak, gizartea bera).<br>• Partaidetza sustatu.<br>• Barruko kohesioa landu. | • Desikasi.<br>• Komunikazioaren helburua aldatu: finantziazioa eta ospea.<br>• GGKEen kultura eta egitura.<br>• Hausnartu.<br>• Itun estrategikoak bilatu.<br>• GGKEen, gizarte mugimenduen, kazetarien, hedabideen, unibertsitateen, administrazioen artean. |

b) Gizarte komunikazioa zer den eta zertarako erabiltzen den ezagutu (zer egin daitekeen).

Bigarren urratsean, gizarte eta hezkuntza komunikazioa zer den eta zertarako erabiltzen den ezagutu behar da. Lehen aipatu dugunez, komunikatzen dutenen prestakuntza eza da antzemandako arazo nagusietakoa, oro har, ez dituztelako gizarte komunikatzaileen ezaugarriak betetzen (2. taula).

Ahalegin honetan, ezinbestekoa da GGKEetako komunikatzaileak garapenerako hezkuntza arloko arduradunekin koordinatzea, euren esperientzia oso aberasgarria izan daitekeelako.

**2. taula: Gizarte komunikazioa ezagutzeko arazoak, aukerak eta moduak**

| Arazoak | Aukerak | Moduak |
|---|---|---|
| • GGKEak eta GGKEetako komunikazio arloko profesionalak ez daude prestatuta.<br>• Ez dago gizarte komunikatzailerik.<br>• Ez dago talde hausnarketarako denborarik eta espaziorik.<br>• Joerak eta komunikazio kultura.<br>• Komunikatzeko gogorik ez izan: ikarak.<br>• Komunikatzeko grina ez da sortzen: eraiki egiten da, ahalegin handia da, eta hezi egin behar da. | • Gaur egungo egoera lokatzen hasi.<br>• Etengabeko talde hausnarketarako espazioak, denbora eta baldintzak sortu. | • Partaidetzaren kultura sustatu: komunikazioa gizarteratu; komunikatzeko eskumena; komunikazio arloko baterako erantzukizuna.<br>• Garapenerako hezkuntza arloen esperientzia. |

c) Komunikazio batetik bestera igaro ahal den eta nola egin ahal den ezagutu.

Amaitzeko, 3. taulan adierazi dugunez, komunikatzaileek zenbait oztopo gainditu beharko dituzte, GGKEei komunikazio merkaturatua alde batera utzi ahal dela –berehalakoan– eta gizarte komunikazioari eutsi behar zaiola frogatzeko.

Arlo horretan, ezinbestekoa da gizarte mugimenduen esperientzia batzuetatik ikastea.

**3. taula: Komunikazio batetik bestera igarotzeko arazoak eta aukerak**

| Arazoak | Aukerak |
|---|---|
| • Ikarak eta susmoak.<br>• Gaitasun tekniko eskasa.<br>• Hutsunea gizarte mugimendu berriekiko harremanetan.<br>• Komunikazio sentsibilitatea esnarazi.<br>• Gizartearekin zintzoa izateko beldurra (hizkuntza lausoa eta kontzeptu nahasketa GGKEetan bertan): GGKE ugari GGKE guztien barruan.<br>• GGKE eskizofrenia: erreferentzia esparru gehiegi.<br>• Ez dago komunikazio esparru zehatzik.<br>• Integratzeko jarreraren garaipena.<br>• Kultura instrumentala. | • Esperientziak daude: egiten ari da.<br>• Teknikari begira, egin egin daiteke: Internet eta informazioaren teknologia berriak.<br>• Adibide arrakastatsuak gizarte mugimenduetan.<br>• Baliabideak eskasak dira, baina inoiz ez dira hainbeste izan.<br>• GGKEetan dauden aurrekariak: jokabide kodeak eta irudiak. |

Dena dela, honako hau da proposamenaren eskema orokorraren laburpena:

- Argi eta garbi utzi behar da gizarte edo hezkuntza komunikazioa aukeratuz gero instrumentala ez den kulturako GGKE eredua eraikitzen dela. Horrez gain, elkartasuna eta garapenerako lankidetza interpretatzeko orduan, gizartea aldatzea eta iparraldea-hegoaldea harremaneko egiturak aldatzea izan behar da helburua.

  Hain zuzen ere, horren ondorioz, ohiko gizarte jarduerak alde batera utzi behar dira, eta diru-bilketari eta ospeari barik, hezkuntzari eta eztabaida publikoari lehentasuna ematen dien zeregin pedagogiko berria bultzatu behar da. Dena dela, era berean, gizarte oinarri politikoa eta sendoa bilatu behar da (GGKEen jardueran partaidetza erabakigarria duten bazkideak eta boluntarioak), gaur egungo gizarte oinarri ekonomikoaren eta iragankorraren aldean (bazkide-laguntzailearen irudian oinarritutakoa).

- Aldatzeko esparrua (adierazgarritasuna eta salaketa) eta integratzeko esparrua (zerbitzu zehatzen kudeaketa) bateratu, eta tentsio hori komunikazio adierazkorra bihurtu (hezkuntza komunikazioa). Dena dela, estrategia bera ere hartu behar da kontuan (helburu material zehatzak lortzeko).

- Komunikazio, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako politikei eta jarduerei eutsi ikuspegi beretik. Adierazkortasun berbera izan behar duten arren, bestelako helburuak eta estrategiak aukeratu eta garatu arlo bakoitzerako.

- GGKEen komunikazio arazo, modu eta jarduerei buruzko eztabaida sartu XXI. mendeko errealitatean elkartasunak, laguntzak eta GGKE eurek duten zereginari buruzko hausnarketa orokorrean.

### 8.2.2. Komunikazioaren gainean gogoeta egiteko inguruak sortu

Komunikazio eremuak sortu behar dira, berriro asmatzeko esparruak sortzeko. Abiapuntua ezin errazagoa da: garapenerako komunikazioa ezin da egun batetik bestera eraiki, talde hausnarketarako prozesu erabakigarri bezain geldoaren bidez baizik. Hasiera batean, zentzuzkoa da pentsatzea prozesu hori:

- Baterako komunikazio jardueretatik eraiki behar dela. GGKEentzat berehalako erabilgarritasunik ez duen hausnarketa teorikoan ez erortzea da helburua, eta talde edo erakunderen batek kapitalizatutako ahalegina ez egitea.
- Behetik gora eta barrutik kanpora eraiki behar dela. GGKEen barrutik naturaltasunez hedatu behar da antzeko erakunde, sare, elkarte eta koordinakundeetara. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka, engaiatutako beste erakunde batzuetara hedatu behar da (gizarte mugimenduak, komunikazioko profesionalak, hedabideak, unibertsitatea, administrazioa), elkarguneak taldekoak eta diziplina anitzekoak izan daitezen. Nolanahi ere, GGKEek eurek hartu behar dute ekimena -interes handiena dutenak dira-, elkarguneak bilatu behar dituzte eta balizko jarduerak bideratu eta euren inguruko jarraipena egin behar dute. Ahalegina behar bezala garatzeko, ikerketa ekimenak jarri behar dira abian, datu enpirikoei buruz eztabaidatu eta hausnartzeko.

Hona hemen galdera: nork eutsiko dio gaiari eta nork egituratuko du sortzeko aukera izan dezan. Zer GGKEk eta GGKEen barruan nortzuk? Hasiera batean, nire ustez, GGKE txiki eta ertainetatik, ikerketa helburu duten GGKEetatik edo ikasketa zentroetatik eta erakundeetako komunikatzaileetatik irten behar dira sustatzaileak. Oso ondo kokatuta omen daude, proposamena egiteko orduan. Ondoren, GGKEen adostasun organismoetan landu ahal da, koordinakundeetan, alegia.

Helburua ez da beste proiektu bat egitea. Nire ustez, ekintza proposamena edo egitasmo sustatzailea bultzatu behar da, komunikazio arazoei buruzko agenda sortzeko eta taldean garatzen hasteko. Horrez gain, denborak, espazioak eta moduak eraiki behar dira instituzioetan (egiturak), egin egiteko. Helburuak:

- Lan egitasmoa antolatu GGKEak koordinatzeko erakundeetatik (koordinakundeak).
- Eztabaidak eta komunikazio arloko barne-diagnostiko txikiak sustatu GGKEetan.
- Mahai-inguruak eta eztabaida-guneak antolatu GGKEen artean.
- Diziplina anitzeko eztabaida *mahai iraunkorra* eratu[128].
- Prestakuntza prozesuetan sortutako hausnarketa gauzatu (ez *“beste” ikastaro bat*, eraginkorra izan nahi duen eta gutxieneko hitzarmenak lortu nahi dituen *bestelako ikastaroa* baizik).
- Pixkanaka-pixkanaka, gizarte mugimenduak, kazetariak, hedabideak eta administrazioak engaiatu eztabaida horretan.

[128] Behatoki baten aurrekari antzeko bat (azken boladan oso modan dagoena).

### 8.2.3. Komunikazio moduak eratu

Nire iritziz, komunikazio politika, estrategia eta egitura eraginkorrak diseinatzeko, GGKE txikiek eta ertainek (eurentzat dira ohar hauek) hiru alderdi nagusi izan behar dituzte kontuan:

a) Ez da zentzuzkoa GGKEek komunikazio ekipo eraginkor bana izatea. Era berean, ez da zentzuzkoa euren egiturak izatea kudeatzeko, sentsibilizatzeko, garapenerako hezkuntza sustatzeko; lekuan bertan langileak izatea... GGKEak bateratzeko moduak eta organismoak asmatu eta bultzatu behar dira. Ezagutzen hasi berri den mundu zabala ireki besterik ez da egin: koordinakundeak, sareak, oso oinarrizko proposamenetatik sortutako ekintzak (hori dela eta, gehienek hartu ahal dituzte euren gain) eta zerbitzu tekniko erkideen diseinua. Horrelako GGKEek bereizkuntzan bilatu behar dute euren berezitasuna, euren ezaugarri bereizgarriak, alegia. Bi aukera egongo dira komunikazioan:

- Zerbitzu estrategiko erkideen erabilera: komunikazioa bera da premiazkoena. Dagoeneko ezin dugu esan ez dugula baliabiderik edo aukera teknikorik ez dugula. Internetek eta teknologia berriek aitzakiarik gabe uzten dituzte GGKEak. Borondate eta interes arazoa da.
- GGKE batzuk gizarte eta hezkuntza komunikazioko zerbitzuen kudeaketan bereiztu behar dira. Nolanahi ere, bigarren aukera hau arazotsuagoa da, laguntza teknikoa eskaintzea edo beste aholkularitza bulego bat irekitzea baino zerbait gehiago delako[129].

Inolako zalantzarik gabe, zerbitzu estrategiko erkideak eta erakunde berezituak osagarriak izan daitezke.

b) GGKEen koordinakundeak bultzatu behar badira ere, birsortu egin behar dira, bestelako adostasun eremuak izan behar dira eta. Nire iritziz, finantza iturriak presionatzeko eta legeztatzeko tresnak barik, hausnartzeko eta gizarte ekintza sustatzeko lekuak izan behar dira. Horrez gain, buru-estimurako jarduera izan behar da GGKE txiki eta ertainentzat. Orain, badirudi koordinakundeek GGKE handiek zehaztutakoaren arabera aurrera egiten dutela, handiek zeresan handia dutelako hedabideetan eta baliabide ugari dituztelako. Nolanahi ere, GGKE ertainak eta txikiak nagusi dira sektorean. Atomizazio prozesuan murgilduta daudenez, ez diete euren garrantziari eta ahalmenei erreparatzen.

c) GGKE ertain eta txikien eta gizarte mugimenduen arteko bateratasuna eta berariazko babesa bilatu behar dira ezinbestean. Horrelako GGKEak malguagoak dira, eta, oro har, GGKE handiek baino lotura handiagoa dute inguruko errealitateekin. Eurek hartu behar dute ekimena, erresistentzia globaleko mugimenduetara zintzotasunez hurbiltzeko eta eurekin bi norabidetan lan egiteko:

- Giza sarea sortu (gizarte komunikazioa).
- Sare teknologikoa sortu (Internetez eta informazioaren teknologia berriez jabetzea eta erabiltzea).

[129] Lan honetan batez ere ideia batzuk baino ez ditugu eman nahi; beraz, ez dugu sakonduko. Baina ondo pentsatzeko kontua da komunikazio prozesuetan espezializatutako GGKEak sortzeko aukera. Ez dira komunikazio zerbitzuen erakunde kudeatzaile bilakatu behar (merkatukoak baino merkeagoak), izan ere, horrela ez dugu aurrera egiten. Askoz gehiago izan behar dute: topaketarako eta gizarte komunikaziorako espazioak bultzatzen eta sortzen espezializatutako erakundeak, laguntza teknikoa eskainiko dutenak, baliabide eta prozesu teknikoen eta GGKEetako jendearen arteko bitartekari gisa eta komunikazio prozesuetan laguntzeko eta ebaluatzeko aditu gisa.

### 8.2.4. Egiten hasteko ideia batzuk

Pentsatzen eta jarduten hasteko ideia erabilgarriak eta interesgarriak eskaini nahi ditut –guztion artean askoz gehiago sortu ahal ditugu-. Dena dela, beti-beti, jatorrizko galderak izango ditugu abiapuntu: Zergatik eta zertarako komunikatu? Nolako komunikazioa egiten dugu? Nolako komunikazioa egin nahi dugu? Zer dakar aukeraketa horrek?

#### GGKEetan bertan

Enpatiak bilatu eta ekintzak adostu komunikazio, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza arloen artean. Honela hasi ahal da:

- Materialak aukeratu, prestatu eta banatu (artikuluak, txostenak, datuak, aipamenak...) erakundean bertan (GGKEetako barruko tresnen bidez, batez ere), komunikazio egoeraren larritasuna eta gaiaren garrantzia azaltzeko. GGKEen mezuak eta kanpainak ikuspuntu kritikotik irakurri. Gaia jorratzen hasteko postulatuak zehaztu.
- Material horietako ideiak eguneroko lanean erabili pixkanaka-pixkanaka (ohiko bileretan, ebaluazio txostenetan, elkarrizketetan, jarduera zehatzen proposamenetan...), aldez aurretik berehala abian jarri ezin direla jakin arren.
- Eguneroko zeregin zurrunbilotsuan, hausnartzeko astia hartu. Prestakuntzaren eta lanbide egokitzapenaren bidez gauzatu behar da GGKEetan[130]. Prozesua errazagoa izan dadin, material horiek taldean prestatu ahal dira, komunikazio eta garapenerako hezkuntza arloko arduradunen artean edo zenbait GGKEtako komunikazio arloetako langileen artean (ez dira GGKE bakar batentzako materialak izan behar). Interneti esker, inolako arazorik gabe egin daiteke lan hori.
- Ondo aukeratu ondoren, material batzuk hedatu GGKEetako barruko informazio bideetan (berripaperak, web orria...).
- GGKEetako esperientzien ebaluazioa bateratu.
- GGKEetara eraman komunikazio, hezkuntza eta sentsibilizazio arloek edo arduradunek batera lan egiteko proposamenak.

#### GGKEen artean

- GGKEetako komunikatzaileen arteko erakunde harremana sortu pixkanaka-pixkanaka, ez-formala, formala, gehienetan erkideak diren premiazko arazoak kontuan hartuta.

[130] GGKEek gero eta denbora gehiago eskainiko diote komunikazioan pentsatzeari, eztabaida hainbat erakunderen artean adostutako jarduera baten bitartez egituratzen hasten bada eta horri zentzu praktikoa topatzen badiote.

- Koordinatzeko organismoetan, gero eta gehiago irekitzen ari diren eremuak erabili, baina, era berean, zenbait GGKEren arteko itun ideologikoetan, gremioko itunetan edo itun enpatikoetan, partzuergoetan (GGKEen euren uste sendoak barik, finantziazio iturriek bultzatzen badituzte ere) eta kanpaina erkideetan ere bai. Hasiera batean, gizarte eta hezkuntza komunikazioaren ikuspegitik, komunikazioaren gaia tartekatu daiteke jarduera erkide horiek prestatu edo ebaluatzeko bileretan. Batez ere, koordinakundeen bidez, GGKEen artean sortutako eremu erkide hori leku ezin egokiagoa da gaiari buruzko ikerketa, hausnarketa eta prestakuntza proposamen ofizialak egiten hasteko.

Hona hemen proposamenak:

- Zenbait GGKEtako komunikatzaileen arteko lana lasaia bezain erabakigarria izan behar da. Materialak prestatu eta trukatu ahal dituzte, egindako jarduerak jaso eta ebaluatu ahal dituzte, erakundeen arteko eztabaidak egin ahal dituzte, lan proposamenak egin ahal dizkiete zenbait erakunderi. Nahiko prestatuta dauden materialak eraman behar dira GGKEetara. Une honetan, hasteko moduko literatura kritikoa dute komunikatzaileek gaiari buruz.
- Hausnarketa testu erkideak argitaratu GGKEen komunikabide eta aldizkarietan.
- Baterako jarduerak proposatu GGKEei.

## GGKEen eta beste gizarte mugimendu batzuen artean

Berriro ere, komunikatzaileena da erantzukizun nagusia. Lehen urratsa eman behar dute (euren mesedetan) eta gizarte mugimenduetara hurbildu behar dira, eta, batez ere, erresistentzia globaleko mugimenduetara. Izan ere, mugimendu horiek GGKEak baino askoz aurreratuago daude Interneten eta informazioaren teknologia berrien erabileran. Oso gai iradokigarria da, eta harrera ezin hobea du GGKEetako zuzendaritza organoetan. Honako hau iradokitzen dugu:

- Mugimendu horiek Interneti ematen dioten erabilerari eta lortzen dituzten emaitzei buruzko materialak banatu.
- Prestakuntza proposamen errazak antolatu, GGKEetako arlo nagusiak engaiatzeko (zuzendaritza, kudeaketa, komunikazioa, garapenerako hezkuntza eta borondatezko lana).
- Mugimendu horien ekintzen berri izan.

## GGKEen eta engaiatutako beste instituzio batzuen artean

Hainbat eta hainbat gauza egin ahal dituzten arren, ezinbestekoa da -gure iritziz- instituzio horietara hurbiltzeko modua aldatzea. Orain arte, GGKEek erromesen moduan jo dituzte instituzio horien ateak: hitz egin eta elkarlanean aritzera barik, eskatzera joan dira.

- GGKEak kazetarien bila joaten dira behar dituztenean, euren zeregina hedatzen dute eta. Hori dela eta, GGKEen sustapenaren tresnak direla sumatzen dut. Oraindik ez diegu konplizitaterik, kalitateko lankidetzarik eskaintzen: iturri interesgarriak, artikulu egokiak eta zorrotzak, datu adierazgarriak, erakundeen inguruko testuinguruen interpretazio eguneratuak, kritika politikoa edo makroekonomikoa, ikerketa, autoebaluazioa eta autokritika, euren arazoengatiko interesa edo erreflexu onak besterik ez[131].
- Era berean, GGKEek ez dakite nola jokatu hedabideekin instituzio moduan. Jendaurrean iraindu, eta pribatuan erregutu egiten diete. Nekez hitz egiten dute eurekin hausnarketa doinu eta hizkuntzan gizarte kalitateari eta erantzukizunari buruz, esate baterako. Ez dago lankidetzari buruz hitz egiteko moduko autonomiarik eta nortasunik, ez eta komunikazioaren demokratizazioa eta hedabide publikoetan agertzeko eskubidea eskatzeko ere, Konstituzioak berak emandako eskubidea bada ere. Dena dela, esan dugunez, hedabideek eurek ere arazoak dituzte bidean, ez dakite nola hurbildu gizartera. Euren etorkizuna batere argi ez dagoenez, antzekotasun ezin hobea da hitz egiten hasteko[132].
- Antzeko zerbait gertatzen da unibertsitatearekin. Gaur arte, GGKEen proposamenak oso lotsatiak izan dira, zatika baino ez dira hurbildu. Topaketa tangentzialak (oro har, jarraipenik gabe eta ebaluazio zorrotza egin gabe), bekadunen irudi eztabaidagarria maisutzetan edo unean uneko lankidetzetan. Era berean, ez zaio hitz egiten erakunde etorkizunaren ikuspuntutik: esate baterako, Komunikazio ikasketak eta kazetaritza aberastu ahal ditu gizarte eta hezkuntza komunikazioak?, zergatik baztertzen dituzte komunikazioa eta garapenerako hezkuntza nazioarteko laguntza eta lankidetza helburu dituzten maisutzek[133]?

Ezin da esan kazetariek, hedabideek, unibertsitateek, administrazioek eta beste iturri batzuek euren lana hobetu nahi ez dutenik etekin handiagoa atera ahal izateko. Erakundeek euren interesak dituzten arren, elkarrizketari ekiteko moduko osagaiak daude.

## GGKEen eta iparraldeko bazkideen artean

GGKEetako bazkideak mugitzea oso zaila dela onartuta -objektibotasunez-, honako galdera honen erantzuna -subjektiboa- hartu ahal dugu kontuan: nolako bazkideak sortzen ari dira GGKEak? Partaidetza oso eskasa da gure inguruan, eta ez da ezerezetik sortzen, eztandatik baizik. Energiak, tenperaturak eta/edo gaitzak metatzen direnean egi-

[131] Dirudienez, ikerketa lerro garrantzitsua ari dira garatzen Valentziako CEUn, GGKEetako langileen eta kazetarien arteko lankidetza bultzatuz jokabide kodeen diseinuan (Nos Aldas, 2002: 22).

[132] GGKEen eta komunikabideen arteko harremanari buruz ikusi Víctor eta Jónathan-CUPACS Salamanca, *¿Por qué intentarlo en los medios convencionales?* Elkartasunerako eta ekintza kolektiboko jardunaldian. Hegoa. Bilbao. 2002-11-28. *Kontrainformazioko* eskuliburu oso erabilgarria da.

[133] Pérez, 1999.

ten du eztanda. Erresistentzia globaleko mugimenduek aspaldi desegin zuten mitoa: gaur egun badago parte hartzerik. Hona hemen galdera: zer ez du onartzen jendeak, partaidetza edo simulakroa?

Zenbait lanek GGKEn eta euren bazkideen arteko harremanean sakondu dute[134]. Xehetasun bat nabarmendu nahi dut: badirudi GGKEen barruko aldizkariak bazkide-emaileek kuotari eusteko bakarrik diseinatu direla. Hori dela eta, aldizkari horien helburua ez da garapenaren gaia azaltzea edo elkartasunaren kulturak euren eguneroko bizimoduan dituen ezarpenak ikustea. Beraz, nire ideia ezin errazagoa da: bazkideekin eta emaileekin komunikatzeko tresnak kalitateko komunikazio esparru bihurtu.

## GGKEen eta hegoaldeko bazkideen artean

Gaur egun, hiru gauza dakizkigu:

- Garapenerako lankidetzako proiektuak ez daude diseinatuta gizarte komunikazioa egiteko. Komunikazio tresna moduan, lehentasun gehiago ematen diete zenbakiei pertsonen arteko elkarrizketari baino.
- Internetek, informazioaren teknologia berriek, sareko lanak... aurrekaririk gabeko eremuak eta aukerak sortzen dituzte. Nolanahi ere, GGKEek proiektuez eta zenbakiez baino ez dute hitz egiten Internet bidez[135].
- GGKEek -zehaztasuna, sistema eta ebaluazioa kontuan hartuta- hegoaldeko bazkideei galdetzen diete nola ikusten duten komunikazioa. Nik ez dut ezagutzen gaiari buruzko lan seriorik.

Hiru egitate horiek mahai gainean jartzean, gizarte komunikaziorako proposamen osoa egin dudala sumatzen du.

[134] García Izquierdo, 2001.
[135] Erro eta Ventura, 2002.

# Bibliografia

**Aipatutako bibliografia**

Angulo, G. (1998): “Opinión pública y cooperación”, *In pie de paz*, 47, pp. 48-50.

Aranguren Gonzalo, L.A. (2002): *Identidades en movimiento. Los marcos de sentido en las organizaciones de voluntariado*. Cáritas. Madril.

Augé, M: (1995): *Hacia una antropología de los mundos contemporáneos.* Gedisa. Bertzelona.

Ballesteros, C (2001): *Marketing con causa, marketing sin efecto. El marketing con causa y la educación para el desarrollo*, Universidad Pontificia Comillas. ICADE. Madril.

Boix, M. (2002): “Feminismos, comunicación y tecnologías de la información”. *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 28-11-2002.

(2002): “La comunicación como aliada: tejiendo redes de mujeres”. *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 28-11-2002.

Bourdieu, P.: (1997) *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Anagrama. Bartzelona.

(1999) *Contrafuegos. Reflexiones para servir a la resistencia contra la invasión neoliberal*. Anagrama. Bartzelona.

(2001): *Contrafuegos. Por un movimiento social europeo*. Anagrama. Bartzelona.

Calle, A. (2000): *Ciudadanía y solidaridad*. IEPALA. Madril.

Castells, M. (1998): *La era de la información*. Tres volúmenes. Alianza editorial. Madril.

Camps, V. (1999): *Paradojas del individualismo*. Crítica. Bartzelona.

De Certeau, M.:

(1994) *La cultura en plural*. Nueva visión. Buenos Aires.

(1996) *La invención de lo cotidiano*. Universidad Iberoamericana/ITESO. Mexiko.

Díaz-Salazar, R. (1996): *Redes de solidaridad internacional. Para derribar el muro Norte-Sur*. Hoac. Madril.

Erro, J.:

(2001) “Las prácticas comunicativas de las ONGD. De la comunicación mercadeada a la construcción de una mirada comunicacional. *Directorio de ONGD 2000*. CONGDE. Madril. 51-72 or.

(2002) *ONGD, desarrollo y comunicación*. Hegoa. Bilbao.

(2002) con Ventura, J.: *La situación de comunicación en las ONGD del País Vasco*. Hegoa. Bilbao.

García Canclini, N.:

(1994) *Culturas híbridas*. Grijalbo. Mexiko;

(1996) "La ciudadanía más allá del zaping", *Telos* 47. zk.

(1999) *La globalización imaginada*. Paidós. Buenos Aires.

García Izquierdo, B. (2001): *Nuevos socios para nuevas ONGD*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao.

García Roca, J. (1998): *Exclusión social y contracultura de la solidaridad. Prácticas, discursos y narraciones*, HOAC, Madril.

Gimeno, J.C. y Monreal, P. (Eds.) (1999*): La controversia del desarrollo. Críticas desde la antropología*. IUDC/UCM, Madril.

Gómez de Souza (1995): *Proyectos de cambio*. Eural. Mexiko.

Grasa, R:

(1998) "Las ONGD de desarrollo españolas de 1996: Una visión de conjunto", in *Directorio ONGD 1997.* CONGDE. Madril. 289-299 or.

(1999) "Las ONGD de desarrollo españolas en 1997: Una visión de conjunto", in *Directorio Electrónico ONGD 1998*. CONGDE. Madril.

Grijelmo, A (2000): *La seducción de las palabras*. Taurus. Madril.

Habermas, J.: *Teoría de la acción comunicativa*. Bi ale. Taurus. Madril.

Ibáñez, J. (1985): *Del algoritmo al sujeto. Perspectivas de la investigación social*. Siglo XXI. Madril.

Innararity, D. (2002): *La transformación de la política*. Península-Bilboko Udala. Bilbao.

Jerez, A.:

(1997): *¿Trabajo voluntario o participación? Elementos para una sociología del Tercer Sector*, Tecnos, Madril.

(2001): Comunicación y ciudadanía. La visibilidad de los problemas sociales en los medios de comunicación como cuestión democrática. Cáritas. Madril.

(2002), con Sampedro, V., y López Rey, José: "ONGD, medios de comunicación y visbilidad pública. La ciudadanía ante la mediatización de los mensajes sociales", in *Las ONG y la política*, Marisa Revilla (ed.), Istmo. Madril. 251-281 or.

Lerhner (1990): *Los patios interiores de la democracia. Subjetividad y política*. FCE.Mexiko.

López Rey, J.A.:

(2001): *Solidaridad y mercado*. Netbiblo. A Coruña.

(2002), Sampedro, V., eta Jerez, A., José: "ONGD, medios de comunicación y visbilidad pública. La ciudadanía ante la mediatización de los mensajes sociales", in *Las ONG y la política*, Marisa Revilla (ed.), Istmo. Madril. 251-281 or.

Luhmann, N. (2000): *La realidad de los medios de masas*, U.Iberoamericana, Anthropos, Bartzelona.

Maffesoli, M. (1990): *El tiempo de las tribus*. Icaria. Bartzelona.

Martín Barbero, J.:

(1987): *De los medios a las mediaciones. Comunicación, cultura y hegemonía*. Gustavo Gili. Mexiko.

(1996): *Pretextos, conversaciones sobre la comunicación y sus contextos*. Universidad del Valle. Colombia.

(1999), con German Rey, *Los ejercicios del ver. Hegemonía audiovisual y ficción televisiva*. Gedisa. Bartzelona.

(2002), *Comunicación y educación*. Hitzaldia. ITESO. Guadalajara. Mexiko.

Martín Beristain, C. (1999): Reconstruir el tejido social. Un enfoque de la ayuda humanitaria. Icaria. Bartzelona.

Martínez Sánchez, J.L. (1998): *La imagen de las ONG de desarrollo. (Para ir dimensionando el Tercer Sector)*. Nafarroako Gobernua. IEPALA. Madril.

Maslow. A.H. (1970): *Motivation and personality*. Harper & Row. New York,

Monsivais, C. (1988): *Escenas de pudor y livianidad*. Grijalbo. Mexiko.

Morín, E. (1995): *Sociología*. Tecnos. Madril.

Mouffe, Ch. (1999): *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*. Paidós. Bartzelona.

Navarro, P. (1994): *El halograma social. Una ontología de la socialidad humana*. Siglo XXI. Madril.

Nos Aldas, E. (ed.): *Medios periodísticos, cooperación y acción humanitaria. ¿Relaciones imposibles?* Icaria. Bartzelona.

Ortiz, R. (1998): *Otro territorio. Ensayos sobre el mundo contemporáneo*. Universidad Nacional de Quilmes. Colombia.

O'sullivan, T. y otros (1995): *Conceptos clave en comunicación estudios culturales*. Amorrortu. Buenos Aires.

Parra Alvarracín, G. (2000): Bases epistemológicas de la educomunicación, E.Abyayaba, Quito.

Perez, L.(1999): "Titulaciones para las profesionales de las ONG", in *Oenegé*, 12. zk., 44-49 or.

Ramírez, J.M. (1999): "La reconfiguración de la sociedad y la política: compromisos y desafíos para las ciencias sociales", in Reguillo R. y Fuentes, R., *Pensar las ciencias sociales hoy. Reflexiones desde la cultura*, ITESO. Guadalajara. Mexiko. 143-172 or.

Ramoneda, J. (1999): Después de la pasión política. Taurus. Madril.

Reguillo, R.

(1996): *La construcción simbólica de la ciudad. Sociedad, desastre, comunicación*. Universidad Iberoamericana/ITESO. Guadalajara.

(1997): "Movimientos indígenas y esfera pública. Una agenda para el fin de siglo". *Movimientos sociales, Revista Foro*. Colombia. 95-104 or.

Romero, M.: (2002): "Mosquitos en red: Notas para un debate sobre la comunicación alternativa". *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 28-11-2002.

Sádaba, I. (2002): "Solidaridad y nuevas tecnologías. Transformaciones, obstáculos y realidades". *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 28-11-2002.

Sampedro, V.

(2002), con Jerez, A., y López Rey, J.: "ONGD, medios de comunicación y visbilidad pública. La ciudadanía ante la mediatización de los mensajes sociales", en *Las ONG y la política*, Marisa Revilla (ed.), Istmo. Madril. 251-281 or.

(2002): "Nuevas perspectivas y retos para la comunicación social". *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 2002-11-28.

Sogge (1998): *Compasión y cálculo. Un análisis crítico de la cooperación no gubernamental al desarrollo*. Icaria. Bartzelona.

Sonntag, H.R. (1993): "La situación actual de las ciencias sociales latinoamericanas", in Pozas, R. (coord.), *Las ciencias sociales en los noventa*, IUS-UNAM. Mexiko.

Touraine (1999*): ¿Cómo salir del liberalismo?* Paidós. Bartzelona.

Zubero, I.:

(1994) *Las nuevas condiciones de la solidaridad*. Desclée de Brouwer. Bilbao.

(1996)a: “Participación y democracia ante las nuevas tecnologías”, *Telos* 45. zk.

(1996)b: *Movimientos sociales y alternativas de sociedad*. HOAC. Madril.

(1998): *“Solidaridad y participación sociopolítica”*, in VV.AA. Hacia una sociedad más solidarida. Mensajero. 79-86 or Bilbao.

Zubieta, A.M. (2000): *Cultura popular y cultura de masas. Conceptos, recorridos y polémicas*. Paidós. Buenos Aires.

**Bibliografia orokorra**

Alfaro, R.M. (1993): *Una comunicación para otro desarrollo*, Calandria, Lima.

Angulo, G. (1998): “Opinión pública y cooperación”, *En pie de paz*, 47, 48-50 or.

Aranguren gonzalo, L.A.

(1998): *Reinventar la solidaridad. Voluntariado y educación*. PPC. Madril.

(2000): Cartografía del voluntariado, PPC. Madril.

(2002)a: *Identidades en movimiento. Los marcos de sentido en las organizaciones de voluntariado*. Cáritas. Madril.

(2002)b: *Ética en común*, PPVE. Madril.

Augé, M: (1995): *Hacia una antropología de los mundos contemporáneos.* Gedisa. Bertzelona.

Balandier, G. (1994): *El poder en escenas. De la representación del poder al poder de la representación*. Paidós. Bartzelona.

Ballesteros, C (2001): *Marketing con causa, marketing sin efecto. El marketing con causa y la educación para el desarrollo*, Universidad Pontificia Comillas. ICADE. Madril.

Bernabé, J. (2001): “Las áreas de comunicación de las ONGD y el trabajo periodístico”, *Revista Española de Desarrollo y Cooperación*, 7. zk., 127-146 or.

Bisbal, M. (1994): *La mirada comunicacional*, Alfadil, Venezuela.

Blumer, J.G. (ed.) (1993): *Televisión e interés público*. Bosch. Bartzelona.

Boix, M.

(2002): “Feminismos, comunicación y tecnologías de la información”. *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 2002-11-28.

(2002): “La comunicación como aliada: tejiendo redes de mujeres”. *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 2002-111-28.

Bourdieu, P.:

(1997) *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Anagrama. Bartzelona.

(1999) *Contrafuegos. Reflexiones para servir a la resistencia contra la invasión neoliberal*. Anagrama. Bartzelona.

(2001): *Contrafuegos. Por un movimiento social europeo*. Anagrama. Bartzelona.

Braden, S. eta Mayo, M. (1999): “Culture, community Development and Reopresentation”, in *Community Development Journal; An International Forum,* Oxford University Press, 3. zk., 191 or. 204 or.

Calle, A. (2000): *Ciudadanía y solidaridad*. IEPALA. Madril.

Camps, V. (1999): *Paradojas del individualismo*. Crítica. Bartzelona.

Caritas Española, Revista. Alonso, L.E. y Jerez, A., “Hacia una repolitización del Tercer Sector”, in Documentación Social, 122 (2001), *Repensar el voluntariado*.

Castells, M. (1998): *La era de la información*. Hiru ale. Alianza editorial. Madril.

Choque Aldana, M (1998): “Medios masivos, identidades colectivas y la construcción de ciudadanía en Bolivia”. In *America Latina Hoy.* Gizarte zientzien aldizkaria. Instituto de estudios de Iberoamérica y Portugal. Universidad de Salamanca. 19. zk. 45 or. 56 or.

Coordinadora de Organizaciones No Gubernamentales de Cooperación para el Desarrollo-España (CONGDE) (2000): *Directorio de ONGD 1999*, Madril.

Coordinadora de Organizaciones No Gubernamentales de Cooperación para el Desarrollo de la CAV (2000):*Conferencia ONGD 2000. Globalizar la solidaridad. Construir el desarrollo humano*. Hegoa. Bilbao.

Cortés, C.E. (1997): *De las comunicaciones para el desarrollo a la comunicación mercadeada*. Mimeo. Universidad Pontificia Javeriana. Bogotá.

Cortina, A. (2001): *Ciudadanos del mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*. Alianza Editorial. Madril.

De Certeau, M.:

(1994) *La cultura en plural*. Nueva visión. Buenos Aires.

(1996) *La invención de lo cotidiano*. Universidad Iberoamericana/ITESO. Mexiko.

De Felipe, a. y Rodríguez de Rivas, L. (1995): *Guía de la solidaridad*. Temas de hoy. Madril.

Díaz-Salazar, R. (1996): *Redes de solidaridad internacional. Para derribar el muro Norte-Sur*. HOAC. Madril.

Dubois, A. (2000): *Equidad, bienestar y participación. Bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro*. Cuadernos de trabajo Hegoa, 26. zk. Bilbao.

Erro, J.:

(2001) “Las prácticas comunicativas de las ONGD. De la comunicación mercadeada a la construcción de una mirada comunicacional. *Directorio de ONGD 2000*. CONGDE. Madril. 51-72 or.

(2002) *ONGD, desarrollo y comunicación*. Hegoa. Bilbao.

(2002) con Ventura, J.: *La situación de comunicación en las ONGD del País Vasco*. Hegoa. Bilbao.

Espinosa, O. (1998): “Pueblos indígenas de la amazonia peruana y el uso político de los medios de comunicación”. *América Latina Hoy.* Revista de Ciencias Sociales. Instituto de Estudios de Iberoamérica y Portugal. Universidad de Salamanca. 19. zk., 91 100 or.

FAO (1995): *La comunicación: clave para el desarrollo humano*. Erroma.

García Canclini, N.:

(1994) *Culturas híbridas*. Grijalbo. Mexiko;

(1996) “La ciudadanía más allá del zaping”, *Telos* 47 zk.

(1999) *La globalización imaginada*. Paidós. Buenos Aires.

(2001) “Culturas, medios y políticas”, *Nueva Sociedad.* 175. zk. 60-154 or.

García Izquierdo, B.:

(2000): “Las principales características estructurales de las ONGD de la Coordinadora. Un análisis dinámico y prospectivo de los datos consolidados de 1998”, en CONGDE, 2000.

(2001): *Nuevos socios para nuevas ONGD*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao.

García Roca, J.:

(1994): Solidaridad y voluntariado. Sal Terrae. Santander.

(1998):*Exclusión social y contracultura de la solidaridad. Prácticas, discursos y narraciones*, HOAC, Madril.

(2001): *En tránsito hacia los últimos. Crítica política del voluntariado*. Sal Terrae. Cantabria.

Gimeno, J.C. y Monreal, P. (Eds.) (1999*): La controversia del desarrollo. Críticas desde la antropología*. IUDC/UCM, Madril.

Gómez de Souza (1995): *Proyectos de cambio*. Eural. Mexiko.

Gómez Galán, M. y Sanahuja, J.A. (Eds.) (2001): *La cooperación al desarrollo en un mundo en cambio. Perspectivas sobre nuevos ámbitos de intervención*. Cideal. Madril.

(1999): *El sistema internacional de cooperación al desarrollo. Una aproximación a sus actores e instrumentos*. Cideal, Madril.

Gómez Galán, M. eta Sainz Ollero, H. (1999): *El ciclo del proyecto de cooperación al desarrollo. La aplicación del marco lógico*. Cideal, Madril.

Grasa, R:

(1998) "Las ONGD de desarrollo españolas de 1996: Una visión de conjunto", in *Directorio ONGD 1997.* CONGDE. Madril. 289-299 or.

(1999) "Las ONGD de desarrollo españolas en 1997: Una visión de conjunto", in *Directorio Electrónico ONGD 1998*. CONGDE. Madril.

Grijelmo, A (2000): *La seducción de las palabras*. Taurus. Madril.

Habermas, J.: *Teoría de la acción comunicativa*. Dos volúmenes. Taurus. Madril.

Ibáñez, J. (1985): *Del algoritmo al sujeto. Perspectivas de la investigación social*. Siglo XXI. Madril.

Ibarra, P. Y Tijerina, B. (1998): *Los movimientos sociales*. Trotta. Madril.

Innararity, D.

(2000): *Ética de la hospitalidad*. Península. Madril.

(2002): *La transformación de la política*. Península-Bilboko Udala. Bilbao.

Jerez, A.:

(1997): *¿Trabajo voluntario o participación? Elementos para una sociología del Tercer Sector*, Tecnos, Madril.

(2001): Comunicación y ciudadanía. La visibilidad de los problemas sociales en los medios de comunicación como cuestión democrática. Cáritas. Madril.

(2002), Sampedro, V., eta López Rey, José: "ONGD, medios de comunicación y visbilidad pública. La ciudadanía ante la mediatización de los mensajes sociales", in *Las ONG y la política*, Marisa Revilla (ed.), Istmo. Madril. 251-281 or.

Keane, J. (1991): "Democracia y medios de comunicación", *Revista Internacional de Ciencias Sociales* (UNESCO), nº 126.

Lerhner (1990): *Los patios interiores de la democracia. Subjetividad y política*. FCE.Mexiko.

López Rey, J.A.:

(2001): *Solidaridad y mercado*. Netbiblo. A Coruña.

(2002), Sampedro, V., eta Jerez, A., José: "ONGD, medios de comunicación y visbilidad pública. La ciudadanía ante la mediatización de los mensajes sociales", in *Las ONG y la política*, Marisa Revilla (ed.), Istmo. Madril. 251-281 or.

Luhmann, N. (2000): *La realidad de los medios de masas*, U.Iberoamericana, Anthropos, Bartzelona.

Maffesoli, M. (1990): *El tiempo de las tribus*. Icaria. Bartzelona.

Martín Barbero, J.:

(1987): *De los medios a las mediaciones. Comunicación, cultura y hegemonía*. Gustavo Gili. Mexiko.

(1996): *Pretextos, conversaciones sobre la comunicación y sus contextos*. Universidad del Valle. Colombia.

(1999), German Rey, *Los ejercicios del ver. Hegemonía audiovisual y ficción televisiva*. Gedisa. Bartzelona.

(1999):"El miedo a los medios. Política, comunicación y nuevos modos de representación". *Nueva Sociedad*. 161. zk. 43-56 or.

(2002): *Comunicación y educación*. Hitzaldia. ITESO. Guadalajara. Mexiko.

Martín Beristain, C. (1999): Reconstruir el tejido social. Un enfoque de la ayuda humanitaria. Icaria. Bartzelona.

Martínez Sánchez, J.L. (1998): *La imagen de las ONG de desarrollo. (Para ir dimensionando el Tercer Sector)*. Nafarroako Gobernua. IEPALA. Madril.

Maslow. A.H. (1970): *Motivation and personality*. Harper & Row. New York.

Miguel de Bustos, J.C. (1996): *Cultura, comunicación y desarrollo: algunos elementos para su análisis.* Hegoa. Cuadernos de trabajo. 16.. zk.

Molina, M.A. (1998): *Marketing social. La gestión de las causas sociales*. ESIC, Madril.

Monsivais, C. (1988): *Escenas de pudor y livianidad*. Grijalbo. Mexiko.

Morín, E. (1995): *Sociología*. Tecnos. Madril.

Mouffe, Ch. (1999): *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*. Paidós. Bartzelona.

Navarro, P. (1994): *El halograma social. Una ontología de la socialidad humana*. Siglo XXI. Madril.

Nos Aldas, E. (ed.): *Medios periodísticos, cooperación y acción humanitaria. ¿Relaciones imposibles?* Icaria. Bartzelona.

Orozco, G. (1994): *El rescate de los medios. Desafío democrático para los comunicadores*. Universidad Iberoamericana-Fundación Manueal Buendía. Mexiko.

Ortiz, R. (1998): *Otro territorio. Ensayos sobre el mundo contemporáneo*. Universidad Nacional de Quilmes. Colombia.

O'sullivan, T. y otros (1995): *Conceptos clave en comunicación estudios culturales*. Amorrortu. Buenos Aires.

Parra Alvarracín, G. (2000): Bases epistemológicas de la educomunicación, E.Abyayaba, Quito.

Perez, L.(1999): "Titulaciones para las profesionales de las ONG", in *Oenegé*, 12. zk., 44-49 or.

Pérez Tornero, J.M. (1994): *El desafío educativo de la televisión*. Gedisa. Bartzelona.

Prieto Castillo, D.:

(1985): *Diagnóstico de la comunicación*. CIESPAL. Quito.

(1988): *Análisis de mensajes*. CIESPAL. Quito.

(1989): *Tres experiencias de diagnóstico de la comunicación*. CIESPAL. Quito.

(1996): *Comunicación social y construcción de la tolerancia*. Mimeo. Mendoza. Argentina.

(1999): *Comunicación y mediación pedagógica*, Mimeo, UCA. El Salvador.

(2000). *Elogio a la comunicación*. Mimeo. UCA. El Salvador.

Ramírez, J.M. (1999): "La reconfiguración de la sociedad y la política: compromisos y desafíos para las ciencias sociales", in Reguillo R. eta Fuentes, R.,

*Pensar las ciencias sociales hoy. Reflexiones desde la cultura*, ITESO. Guadalajara. Mexiko. 143-172 or.

Ramírez, TX. (1995): *Gabinetes de comunicación*. Bosch. Bartzelona.

Ramoneda, J. (1999): Después de la pasión política. Taurus. Madril.

Reguillo, R.

(1996): *La construcción simbólica de la ciudad. Sociedad, desastre, comunicación*. Universidad Iberoamericana/ITESO. Guadalajara.

(1997): "Movimientos indígenas y esfera pública. Una agenda para el fin de siglo". *Movimientos sociales, Revista Foro*. Colombia. Mexiko. 95-104 or.

(1998): *Mapas nocturnos. Diálogos con la obra de Jesús Martín Barbero*. DIUC. Santafé de Bogotá D.C.

(1999): *Pensar las ciencias sociales hoy. Reflexiones desde la cultura*. Iteso. Mexiko.

Rodrigo Alsina, M. (1999): *Comunicación intercultural*. Anthopos. Bartzelona.

Romero, M.: (2002): "Mosquitos en red: Notas para un debate sobre la comunicación alternativa". *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 2002-11-28.

Sádaba, I. (2002): "Solidaridad y nuevas tecnologías. Transformaciones, obstáculos y realidades". *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 2002-11-28.

Sampedro, V.

(2002), Jerez, A., eta López Rey, J.: "ONGD, medios de comunicación y visbilidad pública. La ciudadanía ante la mediatización de los mensajes sociales", in *Las ONG y la política*, Marisa Revilla (ed.), Istmo. Madril. 251-281 or.

(2002): "Nuevas perspectivas y retos para la comunicación social". *Jornada ComunicAcción para la solidaridad y la acción colectiva*. Hegoa. Bilbao 2002-11-28.

Sartori, G. (1998): *Homo videns. La sociedad teledirigida*. Taurus. Madril, 1998.

Sogge (1998): *Compasión y cálculo. Un análisis crítico de la cooperación no gubernamental al desarrollo*. Icaria. Bartzelona.

Sonntag, H.R. (1993): "La situación actual de las ciencias sociales latinoamericanas", in Pozas, R. (coord.), *Las ciencias sociales en los noventa*, IUS-UNAM. Mexiko.

Thompson, J.B. (1996): *Los media y la modernidad*. Paidós. Bartzelona.

Tortosa, J.M. (2001): *El juego global. Maldesarrollo y pobreza en el capitalismo mundial*. Icaria. Bartzelona.

Touraine (1999*): ¿Cómo salir del liberalismo?* Paidós. Bartzelona.

VV.AA. (1995): *Los medios como plazas para la democracia*. Calandria. Lima.

Zubero, I.:

(1994) *Las nuevas condiciones de la solidaridad*. Desclée de Brouwer. Bilbao.

(1996)a: "Participación y democracia ante las nuevas tecnologías", *Telos* 45. zk.

(1996)b: *Movimientos sociales y alternativas de sociedad*. HOAC. Madril.

(1998): *"Solidaridad y participación sociopolítica"*, en VV.AA. Hacia una sociedad más solidarida. Mensajero. 79-86 or. Bilbao.

Zubieta, A.M. (2000): *Cultura popular y cultura de masas. Conceptos, recorridos y polémicas*. Paidós. Buenos Aires.



# Eranskinak

# 1. eranskina

## Garapenerako GGKEen Koordinakundearen GGKE
## - Enpresak harremanetarako Lantaldearen ondorioen agiria

(XV. Ohiko Batzar Nagusian aurkeztua, 2001eko martxoaren 24an)

Agiri honetan Lantaldean eztabaidatutako gai nagusienak jaso nahi dira, eta, era berean, Lantaldeak CONGDEko kide diren GGKEen eta enpresen arteko harremanetarako garrantzitsu ikusten dituen irizpide eta orientabideak ere batu nahi dira. Ondorioak Lantaldeko kideen adostasunaz hartu dira.

Agiri honek orientabide izan nahi du. Bertan batutako elementuetan oinarriturik, Lantaldeak hurrengo hilabeteetan testu laburrago bat proposatuko du, eremu honetan GGKEek izan beharko duten Jokabide Kodea garatzeko. Testu laburrago horrek honen izaera bera izango du eta Kodean bildutako gainontzeko alderdiak ere bete beharko ditu.

## 1. Harremanetarako oinarriak

Lantaldearen ustez, enpresa gizarte eragile oso garrantzitsua da, bai gure gizartean bai lan egiten dugun Hegoaldeko herrialdeetan ere. Enpresaren helburu nagusia ondasun eta zerbitzuak produzitu eta komerzializatzea da eta jarduera horren bitartez etekina lortzea. Baina helburu horrez gainera, enpresek kontuan izan behar dituzte gizartearen eta eurekin harremanak dituzten taldeen eskariak. Gizarte erantzukizuna, ingurumenaren errespetua eta kausa solidarioetarako ekarpenak egitea dira eskari horietan gero eta sarriago agertzen diren elementuak eta, beraz, enpresa estrategietan ere gero eta gehiago hartzen dituzte kontuan.

Jokabide kodean jasotakoaren arabera, GGKEen ezaugarri nagusietariko bat da *gizartea aldatu edo transformatzeko borondatea* izatea, eta azken helburuak pobreziaren aurka borroka egitea eta gizarte bereizkeria gainditzea dira.

Oso argi dago bai enpresen bai GGKEen izaera, eta horrek euren arteko harreman konplexua hobeto aztertzen lagunduko digu. Harreman honetan hainbat alderdi daude –salaketatik lankidetzara, beste eremu batzuetatik pasatuz–, bai enpresen munduan bai GGKEen artean ere, eta horiek zehaztasunez aztertu behar dira, orientabide eta irizpide batzuk eta derrigorrez bete beharreko gutxieneko baldintza batzuk ezartzeko; horrela, moda iragankorren gainetik gure izaera eta baloreei eutsi nahi badiegu gainditu ezin diren muga edo erreferentzia batzuk izan ditzagun.

Gure ustez, enpresa eta GGKEen arteko harremana eta lankidetza oso garrantzitsua izan daiteke pobrezian murgildutako herrialdeen garapenerako.

## 2. Enpresari buruzko gogoeta eta jarduerak, enpresa eragile gisa harturik Hegoaldeko herrialdeen garapen ekonomikoan

Enpresa pribatua eragile nagusi bilakatu da garapen prozesuetan. Zuzeneko inbertsio pribatua askozaz handiagoa da garapenerako ematen den laguntza baino, eta Espainiako enpresak dagoeneko ari dira parte hartzen prozesu honetan modu gero eta garrantzitsuagoan, batez ere Latinoamerikan eta Afrika Hegoaldean.

Garapen prozesuan hainbat faktorek eragiten dute; besteak beste, gobernagarritasunak, gizarte zibilaren indartzeak, etab. Era berean, enpresen transnazionalizazio prozesuek, liberalizazioak eta pribatizazioak (batez ere oinarrizko gizarte zerbitzuenak) nabarmen eta modu askotan eragiten diete Hegoaldeko herrialdeko herritarrei. Prozesu horietan enpresak eragile oso garrantzitsuak dira; hori dela-eta, GGKEek azterketa eta gogoeta ahalegin handiagoa egin behar dute, kontraparteekin batera, egoeraz jabetzeko eta prozesu azkar eta garrantzitsu hauen aurrean posizioak hartzeko. Etorkizunean ondoko hauei buruzko gogoeta ere egin beharko da: MMEn (Munduko Merkataritza Erakundea) egiten ari diren negoziazioak, erregio arteko akordioak, Nazioarteko Moneta Funtsaren (NMF) politikak, Munduko Bankuaren politikak, etab.

Enpresekin ditugun harremanetan, enpresa horiek Hegoaldeko herrialdeetan egiten dituzten jardueretan modu positiboan eragiten ahaleginduko gara, batez ere giza eskubideen eremuan, lan eskubideetan, ingurumenean, biztanle indigenetan, osasun publikoan, etab. Eragin hori batez ere jokabide kodeak ezarriz egingo da, izan ere, enpresek onartu egingo dituzte eta kanpotik egiaztatu ahal izango da bete egiten dituztela. GGKEen helburua ez da enpresen jokabideari zilegitasuna ematea, baizik eta jarduerak sozialki arduratsuak izatea eta jardueron egiaztapena erakunde egokiak egitea.

Eragin lan horren bitartez alderdi positiboak nabarmendu daitezke edo, bestela, enpresa jakin baten jardueran oinarritutako salaketa bat jar daiteke, baldin eta herritarren artean haren jarduerak ondorio txarrak dituela egiaztatzen bada.

## 3. Enpresarekiko harremanak Garapenerako Kooperazioa martxan dagoen bitartean

Gai hau jorratzean, Lantaldeak egiaztatu duenez, arlo honetan GGKEen eta enpresen arteko harremanak mugatuak dira, nahiz eta harremanak areagotzeko aukerarik badagoen. Lantaldearen iritziz, oso positiboa da enpresa kontuan hartzeko beharrizana ekipoen hornidurarako edo era guztietako garapen proiektuetan ezagutza eskaintzeko. GGKEen proiektuak bereziak diren arren, lankidetza posiblea da guk laguntzen ditugun proiektuetan ere, batez ere zenbait sektoretan, esate baterako, energian edo nekazaritza eremuko garapenean. Gauza positibo gisa, batzuetan enpresaren ekarpenak doanekoak edo oso kostu baxukoak izaten dira.

Etorkizunean gero eta sarriago egongo da Administrazioek deitutako (Europako Batasuna, Garapen Bankuak, Gobernuak, etab.) lizitazioetara batera –enpresa bat eta GGKE bat- joateko aukera, Administrazio horiei dagozkien kooperazio proiektuak garatzeko. Kasu horietan GGKEak bere berezitasunak gordetzeko ahalegina egin beharko du, eta kontuan hartu beharko du bere zereginen artean Hegoaldeko herrien gizarte eta antolakuntza sarea bultzatzea dagoela; beraz, ahalegina egin beharko du zenbait jarduera gauzatzeko ardura duen erakunde soila ez izateko. Lankidetza mota horiez gain, enpresa laguntzailea izan beharko litzateke, gizarte transformazio prozesu sakonean, helburu sozialetan konprometituz.

Kooperazio Legearekin bat etorriz, enpresek garapenerako laguntza fondoetan parte hartzen duten kasuetan (batez ere FADetan), fondo horiek Ekonomi Lankidetza eta Garapeneko Erakundeak (ELGE) finkatutako irizpideak bete beharko dituzte eta garapenarekin bat datozen proiektuak finantzatzeko izan beharko dira; era berean, proiektuetan onuradunek parte hartu beharko dute, bideragarriak izan beharko dira ikuspegi sozial eta kulturaletik eta ondorio kaltegarriak saihesteko ingurumen azterketa bat egin beharko da.

## 4. Enpresarekiko harremanak, lankidetza ekonomikoei, babesari eta kanpainei begira

Lantaldeak enpresen eta GGKEen arteko zenbait lankidetza esperientziaren berri izan du, bai Lantaldeko kideek emandako informazioetan oinarrituta bai enpresa batzordeetako, unibertsitateetako edo enpresetako jendea gonbidatuz. Ikusi denez, enpresen eta GGKEen arteko hainbat lankidetza modu onuragarriak dira gure erakundeen helburuak lortzeko. Ekarpen ekonomikoak edo produktuak, zerbitzuak edo ezagutza oso baliagarriak dira gure jardu-

teko ahalemena hobetzeko. Dena dela, enpresekiko lankidetza harremanek GGKEen lanaren gidari izan behar duten independentzia, gardentasun eta eraginkortasun baloreak errespetatu beharko dituzte.

Gure ustez, harreman honetan enpresako langileen parte-hartzea oso garrantzitsua izango litzateke. Batzuetan langileek eurek bultzatzen dute GKE baten jardueraren bati laguntzea, eta ekimen horren eraginez batzuetan enpresek ere langileek egin dituzten ekarpenen pareko ekarpena egiten dute. Ekimena enpresaren zuzendaritzatik atera bada ere, gure ustez langileak tartean sartzea (ekintzetan parte hartzeko aukera emanez, informazioa eskainiz eta sentsibilizatuz) oso mesedegarria dela ikusi da.

Hainbat mota eta tamainatako enpresak daude, jarduera eta enpresa kultura oso desberdinak dituztenak. Gure ustez, gehienekin batera lan egin genezake, hurrengo puntu batean jasoko diren zenbait irizpide errespetatuz.

Dohaintzei dagokienez, nahi den bezala erabiltzeko dohaintzak eta proiektu zehatzei lotutako dohaintzak bereizten ditugu lantaldean. Bigarrenei dagokienez, kontuan hartzekoa da enpresen lehentasun eta interesak GGKEen planifikazioen eta gure lanaren helburu diren komunitateen lehentasunen gainetik ez izatea. Garapen proiektuetarako fondoak adjudikatzeko deialdi ireki eta egonkorrak dituzten enpresen kasuan (zuzenean zein erakunde jakin batzuen bitartez), komenigarria da adjudikaziorako mekanismo eta irizpide argiak izatea, eta gastu arinak, malguak eta kooperazioaren berezitasunei egokitutakoak justifikatzeko sistemak izatea, derrigorrez Administrazio publikoen ohiko eskemak zertan jarraitu izan barik.

### Lankidetzarako irizpideak

Gure iritziz badaude errespetatu beharreko gutxieneko irizpide batzuk enpresen eta GGKEen arteko lankidetza eratzeko orduan. Gure irudia eta gure jarduera ez da gizakiarentzat, komunitateentzat eta ingurumenarentzat argi eta garbi kaltegarriak diren ekintzekin lotu behar inolaz ere. Izan ere, ekintza horiek gure Jokabide Kodean onartzen omen ditugun printzipioen aurka daude.

Ondoko irizpideetan adierazitakoa ez dela betetzen egiaztatuz gero, GGKEok ez dugu lankidetzarik izango, edo izatekotan eten egingo dugu. Lantaldearen ustez, onuragarria da enpresek ziurtagirien bidea hartu izana, esate baterako FSC (Forest Stewardship Council), egurraren jatorri egokia egiaztatzen duena. Ziurtagiri horiek, beste eremu batzuetan ere aplikaturik, enpresaren jarduera arduratsuaren gaineko segurtasun handiagoa ematen dute.

1. Lankide izango ditugun enpresek giza eskubideak errespetatu beharko dituzte, bai eta eurekin harremana izango duten pertsonen duintasun, aniztasun eta nortasuna ere. Era berean, emigratzaileei eta beren familiei buruzko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako borrokari buruzko nazioarteko tratatu eta konbentzioak errespetatu beharko dituzte.

2. Enpresek LANEren zortzi funtsezko hitzarmenak bete beharko dituzte (bortxazko lanari, umeen lanari eta sindikatzeko eskubideari dagozkienak). Betekizun hori batez ere Hegoaldeko herrialdeetan, izan ere, han legeria bigunagoa da eta sarriago urratzen da.

3. Lankide izango ditugun enpresek ingurumena errespetatu beharko dute, euren jatorrizko herrialdean indarrean dagoen legeria betez eta estandar berberak mantenduz jarduten duten leku guztietan.

4. Ez dugu harremanik izango armak egin edo trafikatzen dituzten enpresekin.

5. Enpresek errespetatu egin beharko dute osasun publikoa, bai produktuetan bai produkzio prozesuetan, jatorrizko herrialdean indarrean dagoen legeria betez. GGKEok ez dugu bat egingo osasunerako kaltegarriak diren produktuen kontsumoa, besteak beste alkohola eta tabakoa, bultzatzen duten publizitate kanpainekin (atal hau zehazteko, tabakoari buruz OMEk erabaki eta gomendatutakora joko dugu eta FAOk hartzitutako produktuen gainean, besteak beste, garagardo eta ardoaren gainean emandako iritzietara).

6. Lantaldeak eztabaidatu egin du “enpresaren gizarte ekintza korporatiboa” deritzonaren eta kausadun marketingaren artean dauden desberdintasunei buruz eta, baliabide biak onartu arren, argi eta garbi lehenengoaren alde egiten du. Gure ustez, enpresa batek kausa solidarioekin bat egitea erabakitzen badu, horretan irauteko gogoa izan behar du.

7. Kausadun marketingeko kanpaina bat egitean arrazoizko proportzio bat gorde beharko da enpresak GKEari egindako ekarpenaren eta kanpainaren kostu osoaren artean. Logikoa denez, GKEak ekarpen gisa zenbatu dezake kanpainarekin lotutako jarduerari egindako publizitatearen kostua, baina zaindu egin beharko du

publizitate hori lankidetzaren helburuaren berri emateko izan dadin, eta nagusiki ez dadin izan enpresaren eta bere produktuen promozioa egiteko.

8. Lantaldea kezkatuta dago balore solidarioen instrumentalizazioagatik eta balore horiek hutsaltzeko dagoen arriskuagatik, bai eta konpromisoa eta kontsumoa nahasten duten publizitate mezuengatik. Mezuetan derrigorrezkoa da ekintza solidarioaren titularra den kooperazio agentea agertaraztea –GKE, Ministerioa...–. Dena dela, gobernuz kanpoko erakundeek enpresarekin batera lan egiteko eskubidea eta betebeharra dute, baldin eta kanpainetan talde bien logo, marka edo izenak erabiltzen badira.

9. Irudiaren arloan, erreferentzia nagusietariko bat Europako GGKEen bitartekari batzordearen "*Hirugarren Munduaren gaineko Mezu, Irudi eta Jokabide Kodea*" da, nahiz eta lantaldeak onartu egiten duen larrialdi humanitarioek beren berazitasunak dituztela. Gainera, "*Publizitatearen gaineko Jokabide Kodea*" aplikatzea gomendatzen da, batez ere 27. artikulua, kausa sozialdun kanpainei buruzkoa:

- 27. 1. art.-"*Publizitatean iragarki-jartzaile batek onegintzazko ekintza edo kanpaina batean parte hartu duela aipatzen denean, publizitateak zehatz-mehatz errespetatu beharko du informazioa egiazkoa dela eta fede onez jokatu dela*".
- 27. 2. art.-"*Era berean, ondoko arauak ere bete beharko dira:*

*a) Iragarki-jartzaileak argi eta garbi, zuzen eta zalantza barik azaldu beharko du noraino parte hartu duen dagokion onegintzazko ekintza edo kanpainan.*

*b) Publizitatean erakunde solidarioren bat aipatzen bada, erakunde horren oniritzia izan beharko da eta erakunde horrek baimena ematean adierazitako jarraibide eta baldintzak errespetatu beharko dira.*"

# 2. eranskina

Enpresak - GGKEak Harremanei buruzko 2. jardunaldia: Koordinakundeko GGKEen artean sinatzeko Kode Etikoa osatuko duten oinarrizko printzipio utziezinen proposamena enpresekin harremanak ezartzeko

Enpresen eta GGKEen arteko harremanei buruzko 2. jardunaldian egindako lanean argi geratu denez, batetik, enpresekiko harremanak ikuspuntu homogeneo batetik ezartzeko orientabide batzuk ezarri behar dira, baina, bestetik, orientabide horiez gain, derrigorrez bete beharreko gutxieneko irizpide batzuk ezarri beharko lirateke, hain zuzen ere, gaindiezineko muga batzuk ezartzeko, baldin eta moda, joera edo une konkretu batzuen gainetik gure nortasuna eta balore solidarioak gorde nahi baditugu.

Aurrekoarekin bat etorriz, printzipioen zirriborro bat proposatzen dugu. Zirriborro hau, garapenerako kooperazioaren arloan enpresekiko harremanak ezartzeko, Koordinakundeko GGKEek sinatuko duten Kode Etikoaren oinarria izango da:

Euskadiko Koordinakundea osatzen dugun GGKEok sinatu dugun jokabide kodean bertan oinarritu gara eta badakigu GGKEen eta enpresen arteko harremanak ezin direla kontratatzaileen aukeren menpe utzi, ezta ekonomiaren garai, moda edo gorabeheren menpe utzi ere; eta era berean, garapenerako kooperazioaren arloan egiten dugun lanean funtsezko ikusten ditugun printzipioak ezin ditugu alde batera utzi. Hori guztiori dela eta, ondoko puntu hauek ezarri dira GGKEen eta enpresen arteko harremanak ikuspuntu arduratsu eta kontsekuente batean oinarrituta ezar daitezen:

1. Lankide izango diren enpresek giza eskubideak errespetatuko dituzte, bai eta pertsonen duintasuna, aniztasuna eta nortasuna ere, eta batez ere LANEren indarreko tratatuak eta enpresak lan egiten duen herrialdeetan indarrean dagoen legeria.

2. Lankide izango diren enpresek ingurumena errespetatu beharko dute eta ez diete erasorik egingo osasun publikoko gutxieneko bermeei, enpresaren jatorrizko herrialdeko legeria eta enpresak jarduten duen herrialdeko legeria betez. Ez da zilegi izango osasunerako kaltegarriak diren produktuak, besteak beste, tabakoa eta alkohol destilatua, egiten dituzten enpresekin batera lan egitea, ezta armak egin edo merkaturatzen dituztenekin edo horietan partaidetzarik dutenekin batera lan egitea ere.

3. Lankidetzaren eragile elkartasun espiritua eta sustatutako kausarekin bat egitea izan beharko lirateke, hau da, ez da lankidetzarik izango beste barik saldu egin nahi duten edo elkartasuna produktu baten irudiarekin lotu nahi duten enpresekin.

4. GGKEok, enpresa batekiko hitzarmenak ekar litzakeen abantailen gainetik, gure printzipioekin eta gure nortasunarekin koherenteak izateko konpromisoa hartzen dugu.

5. Balore solidarioak instrumentalizatu eta hutsaldu ahal izanak kezkatu egiten gaitu, eta era berean, kezkatu egiten gaituzte “konpromisoa” eta “kontsumoa” nahasten dituzten mezu publizitarioek; hori dela eta, behar-beharrezkoa da mezuetan kanpainaren helburuak, arrazoiak eta epeak argi eta garbi agertzea. Dena dela, GGKEek enpresarekin batera lan egiteko eskubidea eta betebeharra dute, baldin eta kanpainetan euren logo, marka edo izenak erabiltzen badira.

6. Irudiaren arloan, derrigor bete beharreko erreferentzia Europako GGKEen bitartekari batzordearen “Hirugarren Munduaren gaineko Mezu, Irudi eta Jokabide Kodea” izango da.

   Era berean, kontuan izan beharko dira ondoko irizpideak:

   a. Komunikazio estrategia argia eta kontrolatzeko modukoa izatea kanpaina garatuko den eremu guztietan.

   b. Mezu publizitarioa sentsibilizatzeko izango da batez ere, produktu edo marka zehatz bat promozionatzeko baino.

   c. Alde biek kanpainan lortutako emaitzak zabaltzeko konpromisoa hartuko dute.

   d. Hegoaldeko herrialdeetako proiektuen gaineko kanpainetan, kontraparteak informatu egin beharko dira eta onartu egin beharko dute ezarriko den komunikazio estrategia.

7. GGKEen eta enpresen arteko harremana berdintasun eta parekotasun irizpideetan oinarrituko da.

8. GGKEek Jokabide Kodearen berri emango diete enpresei, bai eta Kode horrek dakartzan betebeharren berri ere. Bestetik, enpresek GGKEei beren kodeen edota gizarte izaeradun helburuen berri emango diete, baldin badituzte.

9. Esandako irizpideak bete ez direlako informazio egiaztagarria izanez gero (horretarako behin eta berriro aztertu beharko dira), GGKEok enpresa horrekin lankidetzarik ez izateko konpromisoa hartzen dugu, edo, hasita izanez gero, eten egingo dugu eta, kasu horretan, hori egiteko izan diren arrazoiak zabalduko ditugu.

10. Enpresen eta GGKEen arteko harremanetan lehenetsi egin beharko da *“enpresaren gizarte ekintza”* “kausadun marketingaren” gainetik, izan ere, enpresa batek kausa solidarioekin bat egiteko aukera eginez gero, irauteko gogoa izan beharko du eta koherentziaz jokatu beharko du enpresaren barne eta kanpo ekintzetan.

# 3. eranskina

## GGKEen Koordinakundeko garapenerako GKEen jokabide kodea

(Ohiko Batzar Nagusiak onartua 1998ko martxoaren 28an)

## Sarrera

Azken urteotan aldaketa garrantzitsuak izan dira garapenerako kooperazioaren arloan. Gizarteak elkartasunaren arloari begiratu dio. Eta eremu horretan lanean dabiltzan eragileek ikusi dute gizartean duten eragina eta presentzia nabarmen areagotu dela.

GGKEok, gizartean dagoen elkartasunaren ordezkari gisa, eginbehar garrantzitsua daukagu nazioarteko kooperazioaren arloan, hain zuzen ere, gizarteak eman digulako zeregin hori. Eginbehar hori onartzean, zenbait kontzeptu argitzeko eta printzipio batzuk adosteko beharrizana sentitzen dugu, izan ere, hainbat eta hainbat erakunde daude, gizartearen aniztasunaren erakusgarri gure ustez. Gu ere gizarte anitz horretako partaide gara, baina aniztasun horrek gure lan gero eta konplexuagoari ikuspegi desberdinetatik heltzeko aukera ematen digu.

Kodea zati bitan banatu dugu. Lehenengoan bost kapitulu daude eta bertan edukia jaso da: GGKEen izaera, lan eremuak, jarduteko eta antolatzeko irizpide orokorrak, eta publizitateari, komunikazioari eta irudien erabilerari dagokienez bete beharreko jarraibideak. Bigarrena kodea aplikatu, zabaldu eta betetzeari buruzkoa da.

## Lehenengo zatia. Jokabide kodearen edukia

### 1. GGKEen izaera

GGKEen arloan aniztasuna da bereizgarririk nagusietariko bat, eta hortik beste ezaugarri batzuk ere ateratzen dira:

- Aberastasun sozial handia dakarte, izan ere, aberastasun horrek gizartearen hainbat eta hainbat sektorek nazioarteko elkartasunaren gaian duten interesa islatzen du.
- Kontzepzio, estilo eta praktika desberdinak eta, sarritan, osagarriak dakartzate.
- Gizarteko talde desberdinei zuzentzen zaizkie; txirotutako herrialdeen gaineko informazioa eman eta sentsibilizazio kanpainak egiten dituzte, era berean, konponbide batzuk ere proposatuz. Horrela, pertsona guztiek beren kezken inguruko erreferentzia bat izatea da helburua.
- Elkartasunaren aldeko ahaleginen metaketa dira.

Aniztasun hori gora-behera, desberdintasunen gainetik, denek dituzte zenbait ezaugarri amankomunean, euren izaera markatzen duten ezaugarriak eta, hain zuzen ere, GGKEak eta kooperazioaren inguruan dabiltzan beste eragile batzuk bereizten dituzten ezaugarriak dira.

### 1.1. GGKEen izaera eta ezaugarriak

GGKEak hirugarren sektore deritzonaren edo irabaz asmorik gabeko sektorearen partaide dira; hain zuzen ere, gizarte zibileko boluntarioen elkarte mugimenduan parte hartzen dute.

Hona hemen GGKED baten funtsezko ezaugarriak:

1. Gutxieneko egitura bat duen erakunde egonkorra izatea. Kontua ez da kanpainak egitea edo noizean behineko zenbait jarduera. Nortasun juridikoa eta ahalmen legala izan behar dute, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

2. Irabazi asmorik gabekoa izatea. Diru-sarrera guztiek izan behar dute garapen programen helburu diren herritarren onurarako, hezkuntza eta sentsibilizazio jardueretan erabiltzeko eta, azkenik, erakundearen beraren funtzionamendurako.

3. Garapenerako kooperazioaren eta nazioarteko elkartasunaren arloan aktiboki lan egitea, bai garapenaren arloan lan eginez bai larrialdiko egoerei erantzunez edo bai garapenerako hezkuntzaren arloan jardunez.

4. Gizartea aldatzeko edo transformatzeko borondatea izatea; gizartea hobetzearen alde jardungo dute, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman zuzen eta bidezkoagoak bultzatuz eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatuz garapen prozesuaren berezko eta nahitaezko ezaugarri gisa.

5. Gizartean errotuta izatea eta gizartearen babesa izatea. Agerikoa izan beharko da gizartean duen babesa eta, era berean, aktiboki parte hartu beharko du gizarte horretan. Gizartearen babesa hainbat modutan agertzen da: dohaintza edo kuota bidezko laguntza ekonomikoa; borondatezko lana mobilizatzeko gaitasuna; presentzia soziala duten sareetan aktiboki parte hartzea, beste toki erakunde batzuekiko harremanak, etab.

6. Independentea izatea. GGKEak ez dira gobernuen menpe egongo, autonomiaz jokatu beharko dute. Hau da, GGKEak ez dira erakunde publikoen edo talde enpresarialen kontrolpean egongo edo ez dute menpekotasun organikorik izango; helburuak, estrategiak, kontraparteak zeintzuk izango diren... askatasunez aukeratzeko ahalmena izango dute.

   Beste erakunde batek sortu baditu, legeari dagokionez bereizita egongo dira eta interferentziarik gabe erabakitzeko ahalmena izango dute. GGKEek beste erakunderen batekin loturarik badute (esaterako, alderdi politikoak, erakunde erlijiosoak, sindikatuak, enpresak....), jendaurreratu egin beharko dute lotura edo harreman hori.

   Nazioarteko erakunde baten partaide badira, egiaztatu egin beharko dute erabakiak hartzean badutela gutxieneko autonomia bat bulego zentralei dagokienez.

7. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izatea, elkartasunetik, dohaintza pribatuetatik, borondatezko lanetik edo antzekoetatik datozenak.

8. Karguak aukeratu edo izendatzeko mekanismo gardenak eta parte-hartzaileak erabiltzea, gizonen eta emakumeen artean aukera berdintasuna bultzatuz. Hain zuzen ere, Patronatuko (fundazioen kasuan) edo zuzendaritza batzordeko edo parekoetako kideak boluntarioak izango dira, karguak eragindako gastuengatik eskain diezazkiekeen konpentsazioen kalterik gabe.

9. Euren politikan, jardueretan eta aurrekontuetan gardenak izan beharko dute. Horretarako, dokumentazio kuantitatiboa eta kualitatiboa argitaratu beharko dute, bai eta beren jarduera eta baliabideen kanpo kontrola ahalbidetu ere.

10. Nazioarteko elkartasun eta kooperazio helburuen inguruan oinarrituta eta egituratuta egotea. Horrek esan nahi du Iparraldeko GGKEen helburu nagusien artean bereizkeriaren, pobreziaren eta beronen arrazoien aurkako borrokak egon behar duela. Era berean, GGKEen jarduera koherentea eta arduratsua izango da helburu hori kontuan izanik.

### 1.2. Kontzeptu batzuen inguruko oinarrizko adostasuna

GGKEek ezaugarri ugari eta desberdinak izan arren, oinarrizko kontzeptu batzuen inguruan bat datoz. Hain zuzen ere, kontzeptu eta printzipio horien arabera jarduten dute. Honako arlo hauetan datoz bat: bultzatzen duten garapen motan, aurre egiten dioten pobrezia motan eta Hegoaldeko herrialdeetan garatzen duten kooperazioan.

GGKEek garapena bultzatzen dute, baina aldaketa soziala, ekonomikoa, politikoa, kulturala, teknologikoa, etab. bultzatzeko prozesu gisa ulerturik; hain zuzen ere, prozesu hori borondate kolektibotik ateratakoa izango da eta komunitate bateko kideen antola-

mendu parte-hartzailea eta boterearen erabilera demokratikoa eskatzen du. Garapenak, horrela ulerturik, berdintasun aukera gehiago eta hobeak zabaltzen dizkio gizakiari bere ahalmen guztiak gara ditzan, eta, era berean, datozen belaunaldientzat baliabideen eskuragarritasuna eta erabilera egokia, berezko ingurumena eta kultur ondarea gordetzen ditu.

GGKEak pobreziaren aurka borrokatzen dira; eta pobrezia ulertzen dugu guk dela gizakiak duintasun fisiko, mental eta espiritualez bizitzeko funtsezkoak diren elementuak ez izatea, kontuan izanik generoari, ahalmenei, balio kulturalei, adinari eta talde etnikoari dagokienez dituen beharrizanak. Pobrezia batez ere herrien eta naturaren esplotazioaren ondorio da. Eta gizarte bereizkerien arrazoia baliabideak eskuratzeko aukera berdintasunik ez izatean eta herriak dagozkien erabaki-guneetatik baztertzean datza.

GGKEek praktikan jartzen dute Hegoaldeko herrialdeekiko kooperazioa, eta honela ulertzen dute kooperazioa: berdinen arteko elkartruke aberasgarria (alderdi guztientzat), garapena bultzatu nahi duena eta pobrezia kendu (definitu diren moduan ulerturik). Kooperazioa nazioarteko harremanen testuinguruan kokatu beharreko jarduera da eta, beraz, harreman estua dauka gainontzeko Iparraldea-Hegoaldea politikekin, izan ere, eragina izan nahi du politika horietan, eta ez finantziazio hutsean geratu. Kooperazioak koherentzia orokorra eskatzen du: epe luzerako helburuen (goian adierazitakoak) eta martxan jartzen diren ekintza eta ekimen zehatzen artean; eta bilatutako emaitzen eta erabilitako baliabideen artean.

GGKEek, era berean, garrantzi handia ematen diote beste hiru alderdiri (beren pentsamendu eta ekintzei buruz informazio zehatza ematen dute): generoen arteko berdintasuna, ingurumenaren errespetua eta giza eskubideak bultzatzea.

Genero kontzeptuak gizarte bakoitzean sexuetariko bakoitzari egokitzen zaiona izendatzen du, hau da, emakume edo gizon izateak dakarren eraketa soziala, bien arteko harremana, eta harreman horietan dauden botere/menpekotasun erlazioak. Sistemak eta genero harremanek gizarte harreman guztietan dute eragina, emakumeek eta gizonek beren gizarteratze prozesuetan barneratzen dituzten rol, jokabide, jarrera eta balore desberdinak definitzen baitituzte. Gaurko genero sistemak gutxiagotasun eta menpekotasun egoeran uzten ditu emakumeak, eta genero harremanak gizarte bereizkeriaren adierazle bihurtzen ditu.

Beraz, GGKEen helburua, emakumeek, komunitateko kide gisa, erabakietan parte hartzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea izan beharko litzateke, besteak beste. Era berean, GGKEek garapen eta laguntza humanitarioko programetan modu aktiboan sar daitezen bultzatuko dute, horrela, baliabideen kontrol zuzena eta bidezkoa izango dutela eta berauon etekinak eskuragarri izango dituztela bermatzeko.

GGKEek ingurumena errespetatzen duen garapen mota bultzatuko dute. Beren ekintzek ez dute ingurumena kaltetuko eta naturaren kontserbazioa eta baliabideen erabilera jasangarria bultzatzen dute.

Beren ekintzen bitartez, GGKEek giza eskubideen errespetua bultzatuko dute, giza eskubideak eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural gisa ulerturik, garapenerako eskubidea barne harturik.

## 2. GGKEen lan eremuak

GGKEek, bakoitzak bere berezitasunak kontuan izanik, eta lehen aipatutako kontzeptu eta nortasun arloko ezaugarri komunen barruan, eremu desberdinetan egiten dute lan:

### 2.1. Garapen proiektuak

GGKEek Hegoaldean egiten duen lanaren bitartez pobreziaren arrazoi estrukturalen kontra egin nahi da eta, era berean, lanaren helburu diren herrien garapen soziala bultzatu nahi da.

Horretarako, arazoen arrazoiak aztertu behar dira, Hegoaldeko erakundeekin harreman estua izan eta jarraian lan egin haiekin, eta kontuan izan behar dira beti onuradunen lehentasunak eta protagonismoa; era berean, lehentasuna eman behar zaie bereizkeriaren aurrean ahulen dauden taldeei (generoa, etnia, etab. eta beren talde antolatuak), eta hori guztiori bertako errealitate sozial, ekonomiko eta kulturala kontuan izanda.

Hegoaldeko kontraparteekiko lankidetza elkarrekikotasunean eta errespetuan oinarrituko da, horrela, amankomuneko helburuei ekiteko. Harreman hori era askotakoa izan daiteke:

- Teknika eta antolamendu arloko aholkularitza eta laguntza, horrela, proiektuetan lan egiten duten ekipoen gaitasun teknikoa hobetzeko.

- Laguntza ekonomikoa toki ekimenei.
- Hegoaldea-Hegoaldea kooperazioa bultzatzea, antzeko esperientziak konpartitzeko eta eraginkortasuna hobetzeko.
- Hasitako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa, herritarrengan izan duen benetako eragina jakiteko eta kooperazioaren kalitatea hobetzeko neurriak hartu ahal izateko.

**2.2. Laguntza humanitarioa eta larrialdikoa**

Arlo honetan lan egiten duten GGKEek laguntasuna ematen diete hondamendi larriek kaltetutako herrialdeei, baldin eta hondamendiak erantzun berezia eskatzen duten kalte ekonomikoak edo heriotzak eragin baditu eta osasuna eta oinarrizko zerbitzu komunitarioak kaltetu baditu. GGKEek horrelako egoerak saihesteko ere lan egiten dute.

Laguntza humanitarioa garapenera bideratu behar da beti eta tokiko baliabideen erabilera bultzatu behar du, beti ere kaltetutako herritarrak kontuan izanik eta uneoro parte-hartze aktiboa bilatuz. Era berean, ez dute ezein gobernu eta enpresa talderen interesek baldintzatu behar.

Larrialdiko ekintzen barruan sartzen dira bai identifikazioa eta alerta bai hondamendien aurrean erreakzionatzea. Erreakzio eta erantzunarekin batera salaketa eta presio politikoko ekimenak egin behar dira.

**2.3. Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa**

Jarduera hau sormenezko prozesu aktiboa da eta gizartean jarrerak eta jokabideak aldatzea bilatzen du, justizia eta elkartasunezko baloreak bultzatuz.

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren bidez, GGKEek hauxe lortu nahi dute:

- Iritzi publikoa informaturik izatea munduan dagoen pobreziaren gainean eta pobrezia hori iraunarazten duten arrazoi eta egituren gainean; era berean, herrialdeen arteko elkarmenpekotasuna, bereizkeria eta izan daitezkeen irtenbideak hobeto uler daitezen bilatzen dute.
- Iritzi publikoan beste kultura batzuetako ohitura eta bizimodua ulertu eta errespetatzeko jarrera bultzatzea;
- Gizarte aldaketara bideratutako balore eta jarrerak bultzatzea, justizia, bake, zuzentasun, gizon eta emakumeen eskubide eta aukera berdintasun, demokrazia, parte-hartze, elkartasun eta ingurumenaren errespetuko irizpideetan oinarrituta.
- Pobretutako herrialdeetan konpromiso zehatza bultzatzea.

**2.4. Ikerketa eta gogoeta**

GGKEek, Hegoaldeko kontraparteekin batera, elkartasunezko pentsamendu bat sortzeko lan egingo dute, errealitatean, errealitate horren analisi zientifikoan eta bere esperientzian sakondurik.

Ekintza horiek ikerketa proiektu, argitalpen, prestakuntza ikastaro, mintegi eta tailer, eztabaida foro eta nazioarteko konferentzietan parte hartzean gauzatuko dira.

**2.5. Eragin politikoa**

Eragin politikotzat hauxe ulertzen da: GGKEek Hegoaldeko herritarrei eragiten dieten kontuetan erabaki ahalmena duten pertsona eta erakunde publikoei eta talde eta erakunde pribatuei zuzendutako informazio, elkarrizketa, presio edo salaketa ekintzak (gizarte mobilizazioaren bitartez, ordezkaritza organoetan parte hartuz, etab.) garatzea, horrela, herrialdeen arteko harremanetan modu positiboan eragiteko eta mundu guztiko talderik ahulenen defentsan aritzeko.

**2.6. Bidezko merkataritza**

Bidezko merkataritza nazioarteko mugimendu bat da eta beronen bidez, nazioarteko merkataritza harremanak bidezkoak eta berdintasunean oinarritutakoak izatea bilatzen da, horrela, Hegoaldeko langileen lan-baldintzen duintasuna ahalbidetuz. Harreman horiek ondoko printzipioak errespetatu beharko dituzte:

- Beharrezkoak ez diren bitartekariak kentzea, Hegoaldeko produktoreen erakundeei artezean erosiz.
- Prezioak adostasunez ezartzea produktorearekin.
- Ingurumena, gutxiengoak eta indigenak errespetatzea.
- Talderik ahulenei laguntzea eta merkataritza harreman egonkorrak izatea.
- Nazioarteko merkataritzaren funtzionamendua eta bidegabeko egiturak kolokan jartzea.

## 3. GGKEen harremanetarako irizpide orokorrak

### 3.1. Hegoaldeko erakunde eta taldeekiko harremanak

GGKEek lankidetza estua izan behar dute Hegoaldeko kontraparteekin: toki erakundeak, GKEak, herri mugimenduak eta onuradun herritarrek antolatutako taldeak. Haiekin bat egiten dute helburuetan eta garapeneko lanari buruzko ikuspegian. Hori dela eta, elkarte harremanak ezartzen dituzte haiekin (partenariatua), Iparraldetik paternalismoa edo irizpideen inposaketa ezarri gabe. Elkartzea elkarrekiko konpromiso, erantzukidetasun eta berdintasun printzipioetan oinarrituz egiten da.

GGKEek badakite, sarritan, benetako kooperazioa Iparraldeko herritarren eta toki komunitateen artean gertatzen dela eta, beraz, bitartekari eta garapen prozesuaren bultzatzaile gisa jarduten dutela.

GGKEak, ahal dela, ez dira izango programak zuzenean gauzatuko dituztenak; toki erakundeekin egingo dute lan beti, kasu oso zehatz eta justifikatuetan izan ezik: bertan ez dagoenean erakunderik, egoera konplexuren bat dagoenean edo premiazko egoeretan.

GGKEen jarduerek tokiko sare soziala eratzen lagunduko dute eta ez dute inolaz ere berau kaltetuko; beraz, beti adi egon beharko dute zentzu horretan albo-ondoriorik gerta ez dadin.

GGKEen eta beren kontraparteen arteko harremana kooperazio proiektuetan gauzatuko da batez ere. Proiektu horietan, GGKEek herritar onuradunen ekimenetatik abiatuta egingo dute lan, giza mailako garapena eraikiz. Herritar onuradunak dira beren gizarteetan pobrezian edo bazterkerian bizi diren herritarrak.

Elkarte harremana ez da proiektuetara bakarrik mugatuko, baizik eta gogoeta eta analisi bateratua egingo dute, esperientziak trukatuko dituzte, estrategia bateratuak ezarriko dituzte edo sentsibilizazio eta salaketa kanpainak egingo dituzte, bai Iparraldean bai Hegoaldean.

### 3.2. GGKEen arteko harremanak

GGKEek, beren helburuak lortzeko, ahal dela beste GGKE batzuekin koordinaturik eta lankidetza espirituz lan egingo dute, lan isolatua, euren arteko lehiakortasuna eta lanen bikoizketa saihestuz.

GGKEek ez dute beste erakunderik kritikatuko edo salatuko, arrazoirik eman gabe eta zein erakunde zehatzi buruz ari diren esan gabe.

GGKEen lanaren koordinazioak ondoko ezaugarriak izango ditu:

- Helburu, giza eta diru baliabide eta filosofiari dagokienez kide den erakunde bakoitzaren autonomia errespetatzea.
- Erakundeen arteko komuniazioa ahalbidetzea eta intereseko gai komunen berri ematea.
- Erakundeen arteko ekintza bateratuak bultzatzea.
- Kooperazioaren arloan, printzipioei, jarduerei, helburuei, planteamenduei, etab. buruzko azterketa eta eztabaida bateratua bultzatzea.
- Hirugarren erakunde batzuen aurrean (nazioarteko erakundeak, gobernua, estatuak, beste federazio edo erakunde batzuk) kooperazioaren eta Hegoaldeko herrialdeen garapenaren interesak bultzatu eta defendatzea.
- Nazioko eta nazioarteko iritzi publikoari, indar sozial eta politikoei, nazioarteko erakundeei eta Herri Administrazioei zuzendutako ekintzak koordinatzea.

Helburu horiek behar bezala betetzeko, GGKEek konpromisoa hartzen dute partaide diren koordinazio egitura guztietan modu aktiboan parte hartzeko.

### 3.3. Iparraldeko gizartearekiko eta hango eragileekiko harremanak

GGKEek, herritarren partaidetzarako baliabide gisa, ondokoa onartu behar dute:

- GGKEen lanaren helburua askatasuna, justizia eta elkartasuna bultzatzea izango da, adierazpide zehatz eta eraginkorrak ahalbidetuz.
- Gizartean eragin eremu bat osatzen dute.

Hori dela eta, beren lanaren zati handi bat honetara bideratuko dute:

- Herritarren protagonismoa sendotu eta indartzea.
- Botere publiko, sektore pribatu eta beste gizarte eragile batzuekiko harremana sakontzea, horrela, haien politiketan modu positiboan eragiteko. Hori guztiori, marko estrategiko baten barruan eta kode honetan definitutako printzipio etikoetan oinarrituta.
- Herritarrak mobilizatzea Lurrean baztertu eta gutxietsitako herriei eragiten dizkien bidegabekerien aurrean salaketa jarre-

ra izateko, presioa egiteko eta alternatibak proposatzeko.

- Estrategietan bat datozen beste erakunde eta mugimendu sozialekin akordioak eta harremanak bilatzea.

### 3.4. Dohaintza-emaileekiko harremanak

GGKEek kontu izango dute jasotzen dituzten dohaintzek ez dezaten beren askatasuna murriztu eta ez daitezen izan oztopo beren helburuak lortzeko.

Errespetatu egingo dute dohaintza-emaileen borondatea ematen duten diruaren azken helburuari dagokionez. Dohaintza-emaileek dohaintzaren ziurtagiria jasotzeko duten eskubidea bete egingo dute GGKEek.

Zehaztasunez definitu beharko dute zer ulertzen duten bazkide edo laguntzailetzat kontzeptu horiei buruzko agiri ofizialak luzatzen dituzten bakoitzean.

## 4. GGKEen antolamendurako irizpide orokorrak

### 4.1. Gardentasuna eta kudeaketa

GGKEek legearekin bat etorriz jardungo dute uneoro.

GGKEen kudeaketa arduratsua eta leiala izango da, momentu guztietan erakundearen helburuak betetzea bilatuko dutelarik. GGKEek, gizartearen zerbitzurako erakunde gisa, eskatzen duten guztiei aldian-aldiko informazioa emango diete beren jarduera ildo, programa, helburu, baliabideak lortzeko modu, berauen kalitate eta beren gobernu organoei buruz.

GGKEek urtean-urtean beren jarduera, programa, baliabide eta gobernu organoei buruzko txostena argitaratuko dute.

### 4.2. Baliabide ekonomikoak

GGKEek baliabide ekonomikoak lortzeko egingo dituzten jarduera guztiak legezkoak eta kode honek ezarritako printzipio etikoekin bat datozenak izango dira, batez ere 5. epigrafeari dagokionez (“Komunikazio, publizitate eta irudien erabilerarako jarraibideak”).

Fondoak lortzeko jarduerak egiazkoak izango dira eta saihestu egingo dira mezu engainagarriak; erakundearen nortasuna zuzen deskribatu beharko da; erakundeak behar bezala erantzun ahal izango dituen deiak egingo ditu; eta ez ditu erabiliko presioa egiteko edo errudun sentitzeko teknikak.

GGKEek nahitaez erantsi beharko dituzte kontu ekonomikoak urtero egingo duten txostenean eta bazkide eta dohaintza-emaileei eta lankide dituzten kontraparteei datu ekonomiken berri emango diete.

GGKEek, 50 milioi pezetatik gorako diru-sarrerak izanez gero, urtero erakundetik kanpoko kontu-ikuskaritzak egingo dituzte, eta eskatzen duen ororen esku egongo dira.

GGKEen gastuen banaketa publikoa izango da; era berean, GGKEek zehaztu egingo dute ze kopuru zuzendu den administrazio gastuetara eta zehaztu egingo dituzte gastu horiek kalkulatzeko sartu dituzten kontzeptuak.

### 4.3. Giza baliabideak

Zehatz-mehatz errespetatuko da indarreko legeria GGKEen eta lan egiten duten pertsonen arteko harremana lan-kontratupekoa denean.

GGKEek behar diren neurriak hartuko dituzte diskriminaziorik edo bazterkeriarik gerta ez dadin arraza, sexu, naziotasun edo erlijioagatik. Era berean, erakundearen barruan generoen arteko benetako berdintasuna eta gutxiengoen parte-hartzea bermatzeko, komenigarria da GGKEek horretara bideratutako barne-politikak ezartzea.

GGKEek argi eta garbi definituko dituzte boluntarioekiko harremanak, baldintzak ezarriz eta boluntarioen eskubideak errespetatuz.

Harremana GGKEaren eta Herri Administrazioan betebeharrak dituzten pertsonen artekoa denean, errespetatu egingo dira bertako arauak, bai eta erakunde horrek pertsona horiei emandako eskubideak ere.

Gizarte laguntzaileek egindako betebeharrak sekula ez dira gatazkan izango lan-kontratupeko langileek bete ditzaketen eginbeharrekin.

Publikoak izango dira GGKE bakoitzaren zerbitzura dauden pertsonen (ordainduak edo ordaindu gabeak) kopuruari buruzko datuak.

### 5. Komunikazio, publizitate eta irudien erabilerarako jarraibideak

Komunikazioa, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizaziorako baliabidea da eta ondoko hauetarako balio beharko du:

- Garapenaren arazoei buruzko kontzientzia hartzea bultzatzeko; pobreziaren arrazoiak eta berauon konponbideak ezagutu eta ulertzeko; planetako herrialde guztien elkarren mendekotasuna; elkar ezagutzeko beharrezkoa den elkarrekikotasuna eta kultura desberdinen errespetua.
- Garapenerako kooperazio prozesuetan herritarren parte hartzeko borondatea areagotzeko, kooperazio politika zehatzak bultzatzeko beharrezkoa den eztabaida publikoa bultzatuz, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko elkartasunean sakonduz eta indarrean dauden egiturak aldatzeko borroka eginez.

Horretarako, GGKEek beren komunikazio lanean errespetatu egin beharko dituzte jarraibide hauek:

- Hegoaldeko herrialdeetako errealitatearen ezagutza objektiboa bultzatzea.
- Komunikazioaren protagonista gisa Hegoaldeko pertsona, egoera eta herrialdeak jartzea, eta ez GGKEak eta haien kideak.
- Erabateko errespetua agertzea herritarren eta herrien duintasunaren gainean.
- Beti GGKEen balore “erradikalak” nabarmentzea, besteak beste, justizia, elkartasuna eta erantzukizuna eta genero berdintasuna.
- Komunikazioan pertsonen partaidetza aktiboa bultzatzea.
- Zehatzak izatea komunikazio lan guztietan, komunikazio euskarri desberdinak kontuan hartuz.
- Komunikabideetako profesionalekin batera lan egitea.

Bitartekaritza Batzordearen “Irudi eta Mezuen Kodean” jasotako gomendioak beteko dira, batez ere ondoko puntu hauek:

- Mezuan diskriminazio mota guztiak saihestuko dira (arrazagatik, sexuagatik, kulturagatik, arrazoi sozioekonomikoak...).
- Saihestu egingo dira mezu eta irudi katastrofistak, idilikoak, orokortzaileak eta baztertzaileak.
- Ez dira azalduko Iparraldearen nagusitasuna erakusten duten mezu eta irudiak, edota Hegoaldeko jendea, garapenerako lan bateratuan gure lankide gisa erakutsi beharrean, jende hori gure penaren objektu gisa agertzen duten mezu eta irudiak.
- Hegoaldeko errealitatearen gaineko mezuak zabaldu behar direnean, Hegoaldeko erakundeei horri buruzko iritzia eskatzea.
- Hegoaldeko protagonistei komunikabideerako bidea erraztea.
- Iparraldean jarrera aldaketa indibidual eta sozialak bultzatzen dituzten mezuak areagotzea, hain zuzen ere, Hegoaldean benetako aldaketa eragingo luketenak.

## Bigarren zatia. Kodea zabaltzea aplikatzea eta zabaltzea

### 1. Aplikazioa

GGKEen Espainiako Koordinakundeko kide diren GGKEek eraz sinatuko dute jokabide kodea, izan ere, horretarako epe bat irekiko da. Sinatu nahi ez duten GGKEak baja izango dira Koordinakundean. Erakunde horiek Gobernu Batzordeari kode hori ez sinatzeko arrazoien justifikazioa aurkeztu ahal izango diote eta Gobernu Batzordeak ahalmena izango du berezitasun hori kontuan hartzeko, baina Batzarrak berretsi egin beharko du erabakia.

Gero epe bat irekiko da sinatu duten GGKEek beren estatutuetan, organoetan, metodoetan, aurrekontuetan, etab. behar diren barne egokitzapenak egin ditzaten, hain zuzen ere, kode horren edukietara egokitu ahal izateko.

### 2. Hedapena

Kodearen hedapenak ondoko helburuak ditu:

- GGKEen jarduerak (praktikak), helburuak eta kontzeptua argitzea.
- GGKEen jardunbidean gardentasun, barne demokrazia eta herstura ekonomikoko printzipioak bermatzea.
- Espainiako gizarteari GGKEek adostasunez onartutako jardunbide irizpideak jakinaraztea.

Ondoko hauek jakin egin beharko dute zein den GGKEen jokabide kodea:

- Jokabide kodea sinatu duten erakundeak.
- Zein den jakin nahi duten bazkide eta laguntzaileak (edozein eratakoak).
- Hegoaldeko kontraparteak.
- GGKEekin lankidetza duten herri administrazioak eta nahi duten beste guztiak.
- Komunikabideak, enpresak eta GGKEekin normalean lan egiten duen beste edozein erakunde.
- Iritzi publikoa orokorrean.
- Autonomi eta toki koordinakundeak.

Kodea zabaltzeko ardura GGKEen koordinakundeak eta sinatu duten GGKEek eurek dute.

### 3. Kodea betetzea

Kodea sinatu duten GGKEek jokabide kode hori behar bezala betetzen dutela bermatzeko, jarraipen batzorde bat eratuko da.

- Kodearen jarraipen batzordeko eginkizunak hauek izango dira:
- Jokabide kodearen hedapena eta ezagutza bultzatzea.
- Bultzatzea GGKEek kodea bete dezaten.
- Kodea sinatu duten GGKEek jokabide kode hori betetzen dutela zaintzea.
- Kodea interpretatzea eta GGKEei aholkularitza eskaintzea aplikatzerakoan.

Batzorde hori GGKEen Koordinakundearena da eta Batzar Nagusiak aukeratutako bost kidek osatuko dute: GGKEen koordinakundeko presidentea, elkartutako GGKEetako bi kide eta GGKEetatik kanpoko beste bi kide; azken horiek kooperazioaren eremuan ospea duten pertsonak izango dira eta, gutxienez, kide diren sei GGKEek aurkeztu eta babesturikoak izango dira. Koordinakundeko presidentea izan ezik, batzordeko beste kide guztiak bertaratutakoen, gutxienez, 2/3eko gehiengoz aukeratutakoak izango dira.

Batzordeak jardungo du edo bere kabuz, edo Koordinakundeko Gobernu Batzordeak eskatuta, edo bertan dagoen beste edozein erakundek kodea bete ez delako informazio zehatza aurkezten duenean.

Batzordeak GGKEei zuzendutako gomendioak edo proposamenak egin ahal izango ditu, bere ustez modu berezian kontuan hartu behar diren alderdiei buruz.

Erakunde zehatz bati buruz jarduten denean, batzordeak honela jokatuko du:

- GGKEarekin elkarrizketa zabala ezarriko da, beronek azaldutako arrazoiak entzunez. Elkarrizketa horren emaitza gisa, batzordeak gomendioak egin ahal izango dizkio GGKEari, horrela, GGKE horren jarduerak kodera egokitzeko.
- Elkarrizketan zailtasunak daudenean edo gomendioak behin eta berriro ez badira betetzen, batzordeak jakinarazi egin ahal izango ditu federatutako GGKEen artean kodea bete ez duen GGKEari egin zaizkion gomendioak.

Muturreko kasura helduz gero eta GGKE batek ez badu aintzat hartzen batzordea (elkarrizketa eskaerei jaramonik ez egitea, eskatutako informazioa justifikaziorik gabe eman barik uztea...) edo behin eta berriro justifikazio barik ez badu kodea betetzen, batzordeak zigorrak proposatu ahal izango dizkio (Koordinakundetik botatzea barne) Gobernu Batzordeari, izan ere, horrek erabaki beharko du arazo honen gainean. Batzar Nagusiak berretsi egin beharko ditu zigorrak, kaltetutako GGKEak eskatzen baldin badu.

# 4. eranskina

Irudi eta mezuen kodea
Hirugarren Munduari dagokionez

Foileto honetan Hirugarren Munduari buruzko irudi eta mezuen kodea azalduko da.

Garapen global baterako prozesuan inplikatutako Europako Gobernuz Kanpoko Erakundeek, eragile eta kontraparteek idatzi dute.

Helburua da kode horri buruz eztabaida bultzatzea eta erakunde horiek beren materiala azter dezaten bultzatzea.

Kode hau Europako GKEen eguneroko lanean erronka eta gidari izan beharko litzateke.

Europako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Bitartekaritza Batzordearen Batzar Nagusiak onartu zuen Europako Batzordaren aurrean 1989an.

Beronen erabilpena denon esku dago.

## Atarikoa

Azken hamar urteotan, Europako ikuslegoa ito egin dabe Hirugarren Munduko zenbait herrialdetan dagoen larrialdi egoerari buruzko informazio eta irudi ikaragarriekin. Egoeraren gaineko zenbait interpretazio hartu behar izan dituzte eta premiazko deiak egin dizkiete, batez ere karitate gisa adieraziak, zailtasun egoeran dauden herritarrei laguntzeko. Kanpaina horien bitartez, zalantzarik gabe, hainbat bizitza salbatu dira, baina, era berean, eragin nabarmena izan dute herritarrek Hirugarren Munduari buruz, hango arazo eta konponbideei buruz eta herrialde horiekiko harremanei buruz duten iritzian. Irudiaren karga emozionalaren, hilarri-hizkeradun publizitate lemen erabileraren eta horiek behin eta berriro errepikatzearen bitartez, zinema, telebista eta egunkariak egoki-egokiak bilakatzen dira jendearen arreta erakartzeko. Dena dela, komunikazio mota horrekin, funtsezkoena alde batera uzteko arriskua dago, gauzen alderdi positiboa ezkutatuz ikusgarritasuna lortzeko asmoz.

Faktore erabakigarria bilakatu da hau Europaren eta Hirugarren Munduaren arteko etorkizuneko harremanean, izan ere, zenbait irudi edo mezuk (komunikabideek edo GGKEek zabaldutakoak) kaltetu egin dezakete garapenerako kooperazio erakundeen lana. Eta halaxe da, Hirugarren Munduko herrialdeekiko kooperazioaren eta elkartasunaren kalitatea irudi eta mezu horietan datza, GKEek egindako sentsibilizazio lanaren helburu den jendeari zuzendutako irudi eta mezuetan hain zuzen ere.

Europako eta Afrikako hainbat GKEk “Afrikako Irudiak” proiektuaren barruan egindako bilaketa lan batek eta “Europarrak eta garapenerako laguntza 1987an” izenburupean Europako Komunitateen Batzordeak kofinantzatutako inkesta batek erakusten dutenez, Hegoaldeko herrialdeen ezagutza oso eskasa da. Hirugarren Mundua lehengaien hornitzailea den arren (63%) eta gure produktuentzako irteera iturri den arren (59%), europar bitik batek uste du Hirugarren Munduarekin ditugun harremanen arra-

zoi nagusia dela herrialde horiek gure herrialde aberatsetatik laguntza hartzeko duten beharrizana. Era berean, azterketa horrek erakusten duenez, Europako iritzi publikoak etengabeko interesa agertzen du komunikabideek Hirugarren Munduari buruz emandako informazioaren gainean.

Hirugarren Munduari buruzko irudi eta mezuak arautuko dituen Jokabide Kode bat ezartzea beharrizana da.

## Sarrera

Garapenerako Hezkuntzaren Helburuak:

Garapenerako Hezkuntzari buruz hainbat interpretazio egiten da eta, sarritan, oso anbiguoak izaten dira, izan ere, Garapenerako Hezkuntzak hainbat arlo hartzen ditu. Kontzeptu honi buruzko mugak, batetik, garapenari buruz daukagun pertzepzioak eta, bestetik, gizarte aldaketei buruz egiten ditugun analisiek eta gure konbikzio ideologiko eta filosofikoek zehazten dituzte.

Kontua ez da hemen izendapen hori erabat zehaztuko duen definizioa ematea, baina komenigarria da Garapenerako Hezkuntzaren funtsezko helburuak garbi edukitzea, izan ere, kontuan izan behar dira beti jendeari zuzendutako mezu eta irudiak zabaltzean. Hona hemen, bada, Garapenerako Hezkuntzaren helburu nagusiak:

- Garapenaren arazoari buruzko kontzientziazioa bultzatzea, arrazoiak eta konponbideak eta horien artean dagoen elkardependentzia ulertzea, horrela, hobeto ezagutzeko elkar.
- Eztabaidan parte hartzeko borondatea areagotzea, horrela, benetako lankidetza politiko, ekonomiko eta kulturalari eusteko.
- Herrien arteko elkartasuna bultzatzea ahalik eta bazkide gehienekin, elkarren arteko ezagutza hobearen bidez.
- GGKEen, Estatuen eta EBren konpromisoa sendotzea, aldaketa estrukturalak lortzeko herri baztertuenen alde.

Helburu hauek lortzeko, Garapenerako Hezkuntzak garapenaren arloan ari den erakunde ororen estatutuetan jasota egon behar du, bertan helburuak eta gauzapena finkatuta izango direlarik.

Jokabide Kode honen helburu nagusiak:

- Kode hau Europako GKEentzako erronka da, baita gida bat ere aldi berean. Honetan dabiltzan eragile eta bazkideek Hirugarren Munduari dagokionez egiten dutena aztertzea bilatzen du kode honek, irudi murriztaileak kenduz, hau da, miseria egoerak edo egoera idilikoak azalduz errealitatearen zati bat baino erakusten ez duten irudiak kenduz.
- Batez ere, dirua lortzeko konprometituta dauden GKEak beren deiak hobeto egokitzera gonbidatu nahi ditu.
- Erreferentziako baliabide bat da, GKEei elkarte mugimenduaren solidaritatea, koherentzia eta indarra sendotzen laguntzen diena.
- Europako Komunitateen Batzordeari gomendatzen zaio Kode hau kontuan har dezaten, Europako GKEekin lan egiten dutenean.

GKEak eta dirua lortzea:

Dirua lortzeko sistema desberdinak dituzte Iparraldeko GKEek. Besteak beste, hor daude urteroko kanpainak, kanpaina tematikoak eta premiazko ekintzak. Erabiltzen diren baliabideei dagokienez, esate baterako aipatzekoak dira dagoeneko motibatuta dagoen jendeari informazioa bidaltzea, kartelak eta materialen salmenta (liburuak, zorion txartelak, agiriak, artisautza, etab.).

Hainbat mezu eta irudi GKEek zabaltzen dituzte. Baina dirua batzeko kanpainen publizitatea erakunde bakoitzak daukan kontzeptu pertsonalari dago lotuta, eta kontzeptu horrek zehazten ditu jendeari zabaltzen zaizkion irudi motak.

GKE bakoitzak erabaki behar du zein den sistemarik onena eta ziurtatu egingo du erabilitako metodoak eta GKEak berak, bazkideek edo babesleek erabilitako mezuen edukiak ez dutela menpekotasun eta laguntza irudia proiektatzen.

GKEek saihestu egin behar dituzte mezu hauek:

- Egoeren aniztasuna ezkutatu eta orokortu egiten duten irudiak.
- Irudi idilikoak (errealitatea den bezalakoa erakusten ez dutenak, nahiz eta beti ona ez izan) edo “abentura” irudiak edo exotikoak.
- Irudi akusatzaileak.
- Iparraldearen nagusitasuna azpimarratzen duten irudiak.
- Egoera modu miserable edo patetikoan erakusten duten irudiak.

## Jokabide kodea

Guk, Europako Elkarteko Estatu kideetan ezarritako GKEok, irabazi asmorik gabeko elkarte humanitario desberdinen ordezkari gisa, Hegoaldean garapen prozesua sustatzeko eta Iparraldeko garapen desegokia konpontzeko ekintzekin konprometituta gaudelarik, onartu egiten dugu Jokabide Kode hau, izan ere, gida bat izatea nahi dugu gure eguneroko lanean, Iparraldeko herrialdeek munduko pobreenei buruz egiten dituzten proiekzioak hobetzeko asmoz.

Kode honen bitartez hauxe lortu nahi da Europako GGKEetatik:

- Egiten duten lanari buruzko kontzientzia aztertzea eta berriro ere zalantzan jartzea beren metodoak, atzean utziz “txoke emozionala” eta “unean-uneko laguntza” kontzeptuak, eta jendearentzat egokia den pedagogia garatzeko.
- Euren artean eta gizarteko beste indar batzuekin batzea; informazioaren elkartrukea hobetzea.
- Premiazko deien mezua garatzea, Garapenerako Hezkuntza lana ezerezean gera ez dadin (lan horrek epe luzerako ahaleginak eskatzen ditu).
- Langileen, informazio materiala prestatzeko arduradunen, prestakuntza egokia ziurtatzea, eta lagun horiei aholkua emateko adituak bilatzea.
- Batez ere, Hirugarren Munduari ahotsa ematea mezuak eta irudiak prestatzean.

Nazioarteko garapenerako kooperazioaren barruan (elkartasunean eta baliabideen partekatzean oinarritzen da), nahitaezko baldintza da Hegoaldeko bazkideak parte hartzea iritzi publikoa sentsibilizatzeko ekintzetan, mezuak eta irudiak behar bezala zabaltzeko. 1989an ezin da Hirugarren Munduari buruz hitz egin eta mundu horri buruzko irudiak zabaldu hango eragileei iritzia eskatu gabe. Egoera oso korapilatsua da, Hirugarren Munduaren komunikazio gaitasuna oso desberdina da herrialde batzuetan eta beste batzuetan. Gaitasun hori eragotzia izan liteke garai kolonialeko arrastoen eraginez edo nazioarteko komunikazio sistemaren eraginez, bai komunikabide tradizionalek ez diotelako Hirugarren Munduari lekurik uzten, edo bai Iparraldeko ikuspegitik egiten dutelako.

GKEek honetarako egin behar dute lan:

- Hirugarren Munduari Iparraldeko komunikabide handietara heltzeko eskubidea bermatzeko.
- Gure herrialdeetan Hirugarren Munduko kultur produktuen zirkulazioa bermatzeko, merkatuaren filtroetatik kanpo.
- Kultur produkziorako gaitasun lokala eta autonomoa bultzatzeko.
- Pertsonen korrontea perfekzionatzeko norabide bietan: kooperaziokide ditugun Hirugarren Munduko gobernuei sarriago eta argiago eskatu euren ezagutza eta esperientzien berri emateko.

Benetako elkartasuna ezin da norabide bakarrean gauzatu. Ez al da handinahikoa Hegoaldeko arazoak bakarrik konpondu gura izatea, gure gizarteak berak orokorrean garapen desegokia jasaten duenean?

## Gomendioak

Goian adierazitako irizpideen argitan, Europako GKEek Garapenerako Hezkuntzaren arloan duten materiala eta zabaldutako mezuen edukia berrikusteko konpromisoa hartzen dute. Hain zuzen ere, orokorrean, ondoko hauek hobeto ulertarazteko ahalegina egingo dute:

- Hirugarren Munduko herrialdeetako errealitate eta konplexutasunak beren testuinguru historikoan.
- Garapenerako oztopo diren eragile zehatzak.
- Herrialde hauen ezaugarri den egoeren aniztasuna.
- Norberak egindako ahaleginak.
- Eta egindako aurrerapenak.

## Arau praktikoak

1. Irudi katastrofikoak edo idilikoak saihestea, izan ere, kontzientzia garbi izatera mugatutako karitatea bultzatzen dute, gogoeta bultzatu beharrean.
2. Pertsona guztiak gizaki gisa aurkeztu behar dira eta pertsonen inguru sozialari, kulturalari eta ekonomikoari buruzko informazioak eman egin behar dira, haien kultur nortasuna eta duintasuna bermatzeko. Kultura Hirugarren Munduko herrialdeen garapenerako baliabide gisa aurkeztu behar da.

3. Interesatutako pertsonen lekukotzei lehentasuna eman behar zaie hirugarren batzuen interpretazioen gainetik.

4. Nabarmendu egin behar da pertsonek beren buruen ardura hartzeko duten gaitasuna.

5. Mezua egin behar da jendearengan globalizazio eta orokortze ideia saihesteko moduan.

6. Garapenerako barne eta kanpo oztopoak argi eta garbi agertu behar dira.

7. Elkarren dependentzia eta erantzukidetasuna ideiak azpimarratu egin behar dira garapen desegokian.

8. Miseriaren arrazoiak (politikoak, estrukturalak, naturalak) agertu egin behar dira jendeari Hirugarren Munduko historia, benetako errealitatea eta kolonizazioaren aurretik herrialde horien sakoneko egituren errealitateak jakinaraziko dizkion mezuan. Iragana zein den jakinda, gaurko errealitatetik abiatu behar da eta ikusi egin behar da zer egin daitekeen herrialde horietan bizi duten muturreko pobrezia eta zapalkuntza egoera desagertarazteko. Botere eta interesen arazoak azpimarratu behar dira eta, era berean, salatu egin behar dira zapalkuntzarako baliabideak eta bidegabekeriak.

9. Mezuan era guztietako diskriminazioak saihestu beharko dira (arraza, sexua, kultura, erlijioa, ekonomia...).

10. Hirugarren Munduko gure kideak deskribatzen dira menpeko, pobre eta botererik gabeko pertsona gisa, eta hori areagotu egiten da emakumeen kasuan, izan ere, sarriago agertzen dira dependentziadun biktima gisa, edo txarrago dena, ez dira batere agertzen. Garapenerako Hezkuntzako materialaren hobekuntzan kontuan hartu beharko da, nahitaez, Hirugarren Munduko emakumeen irudiaren aldaketa.

11. Hegoaldeko kideei iritzia eskatu beharko zaie mezuak egitean.

12. GGKE batek, diru-laguntzak lortzeko prozesu batean, beste bazkide batzuen lankidetza badu (erakundeak edo enpresa pribatuak), zaindu egin beharko du Kode honetan agertzen diren gomendioak errespetatu egiten direla oso-osoan. Komenigarria izango litzateke Kodea aipatzea GKEen eta bazkideen artean egindako babes kontratuetan.

**Ondorioa**

Egunerako informazioak Hirugarren Munduari buruz modu partzialegian hitz egiten du, bertako herritarrak euren patu aldaezinaren biktima gisa aurkeztuz. Komenigarria da atzean uztea fatalismo hau eta informazio errealago eta osoagoa ematea, horrela, zibilizazio guztiek berez duten balioaz, gure sistemaren mugez eta justizia, bakea eta ingurumena errespetatuko duen garapen mota baten beharrizanaz jabetzeko. Horrek zehaztu egiten du GKEen lana, izan ere, egiazko informazioa eman behar dute, objektiboa, eta aurkeztutako pertsonen giza balioa ez ezik, informazioaren helburu den publikoaren inteligentzia ere errespetatuko duena.

Europako Garapenerako GKEen Batzar Nagusiak, Bruselan 1989ko apirilean batzarturik, Kode hau jokabide ildo gisa hartu du. Bitartekaritza Batzordeko Garapenerako Hezkuntza arloko lantaldeak gauzatze eta jarraipenerako programa bat egiteko ardura dauka, beronen erabilera orokorragoa egin ahal izateko.

**NGO**

Liaison Commitee of Development NGO´s to the UE
Square Ambiorix 10
1000 Brussels
info@cong.be
www.oneworld.org/liaison

**Garapenerako GKEen Koordinakundea-Espainia**

Coordinadora Estatal de ONGD
C/de la Reina, 17, 3º
Telf: 91 521 09 55
e-m: coordinadora@congde.org
web: http://www.congde.org